

# Irakaskuntza Ataunen

1609-2009



*Aierbe Apalategi, Inazio  
Aranburu Arakama, Maria Karmen  
Arrese Arratibel, Fermin  
Arruabarrena Arruabarrena, Josune  
Auzmendi Galparsoro, Juan  
Auzmendi Muxika, Matxus  
Barandiaran Munduate, Doltza  
Barandiaran Zurutuza, Martin  
Bikuña Agirre, Joxe*

*Dorronsoro Esnaola, Joxe Antonio  
Dorronsoro Zurutuza, Teresita  
Goikoetxea Etxeberria, Jexux  
Iztueta Jauregi, Maria Karmen  
Kerejeta Oharritxena, Antton  
Munduate Aierdi, Begoña  
Munduate Arruabarrena, Inazio  
Zaldua Goena, Josune*

Urte bete pasatxo izango da, lagun artean hizketan ari ginela, batak bestea animatuz iraganeko irakaskuntzaren arrastoak biltzen hasteko konpromezua hartu genuela. Bakoitzak bere aldetik ekin genion: artxibo zaharretatik informazioa atera, argazkiak jaso, pasadizoak grabatu, oroitzapenak eta bizipenak herritarrei eskatu eta abar. Eskuratutako guztia behar bezala sailkatu eta antolatzea izan da taldearen egiteko nagusia.

Material ugari bildu ondoren, berehala konturatu ginen posible izan zitekeela jasotako material hori gure herritarrei eskaintzea. Horretarako, ordea, informazio hori guztia ordena eta forma egokian antolatzeko ez geunden prestatuta. Zer egin? Herriko zenbait gazteri gure asmoaren berri eman genien.

Hauetatik oso harrera ona jaso genuen. Gustukoa zuten lan hau eta prest zeuden euren ezagutzak eta gure asmoak bat eginda aurrera jarraitzeko. Gazte hauen baietza jasotzeak, indartu eta odol berritu gintuen denok, aztertzen jarraitu genuen gauzak zehaztu eta egitasmo berriarekin.

Bestalde esan, aurtengo gure herriko Ikastetxe berria eraiki zeneko 25. urteurrena betetzen dela eta, hori ospatzeko egitarau bat antolatzen ari ziren Batzordekoengandik jaso genuen berria. Batzorde honen iritziz, prestatzen ari ginen lana Ataungo irakaskuntzari buruzkoa izanda, euren egitarauaren barruan sartu zitekeen lan honen aurkezpena. Zalantzarik gabe, ospakizunerako laguntza izan zitekenez, gure ekarpen eta adostasuna eman genion eskaeri.



*Ataungo irakaskuntza hobetzen, urteetan zehar,  
ahalegindu diren guztiei eta Ataungo gaztediari,  
ikus dezaten herriko arazo eta beharrak herritarrak  
elkartu eta saiatuta gainditzen direla edo arazo izaten  
jarraitzen dutela.*



*Irakaskuntza Ataunen*  
*1609-2009*

## EGILEAK

Aierbe Apalategi, Inazio; Aranburu Arakama, Maria Karmen; Arrese Arratibel, Fermin; Arruabarrena Arruabarrena, Josune; Auzmendi Galparsoro, Juan; Auzmendi Muxika, Matxus; Barandiaran Munduate, Doltza; Barandiaran Zurutuza, Martin; Bikuña Agirre, Joxe; Dorronsoro Esnaola, Joxe Antonio; Dorronsoro Zurutuza, Teresita; Goikoetxea Etxeberria, Jexux; Iztueta Jauregi, Maria Karmen; Kerejeta Oharritxena, Antton; Munduate Aierdi, Begoña; Munduate Arruabarrena, Inazio; Zaldúa Goena, Josune.

Diseinua, maketazioa eta inprimaketa: **antza** komunikazio grafikoa • Lasarte-Oria (Gipuzkoa)

Aleak: 500

Lege gordailua: SS-1618-2009

2009ko abendua

Babesleak:





## *Irakaskuntza Ataunen* *1609-2009*

*Aierbe Apalategi, Inazio*  
*Aranburu Arakama, Maria Karmen*  
*Arrese Arratibel, Fermin*  
*Arruabarrena Arruabarrena, Josune*  
*Auzmendi Galparsoro, Juan*  
*Auzmendi Muxika, Matxus*  
*Barandiaran Munduate, Doltza*  
*Barandiaran Zurutuza, Martin*  
*Bikuña Agirre, Joxe*  
*Dorronsoro Esnaola, Joxe Antonio*  
*Dorronsoro Zurutuza, Teresita*  
*Goikoetxea Etxeberria, Jexux*  
*Iztueta Jauregi, Maria Karmen*  
*Kerejeta Oharritxena, Antton*  
*Munduate Aierdi, Begoña*  
*Munduate Arruabarrena, Inazio*  
*Zaldua Goena, Josune*



## **AURKIBIDEA**

<b>0. AURKEZPENA</b> .....	9
<b>1. SARRERA</b> .....	11
<b>2. LEHEN AIPAMENAK</b> .....	13
<b>3. XIX. MENDEA</b> .....	21
<b>4. XX. MENDEA</b> .....	29
4.1. Primo de Riveraren diktadura.....	34
4.2. II. Errepublikak .....	35
4.3. Gerra Zibila eta Francoren diktadura .....	40
4.4. Frankismoaren azken hamarkadak .....	83
4.4.1. Ikastolen mugimenduen sorrera .....	84
San Martingo ikastola.....	88
San Gregorio ikastola.....	99
4.4.2. Patronatoa .....	107
<b>5. JOXEMIEL BARANDIARAN HERRI IKASTETXEA</b> .....	133
<b>6. DOKUMENTUAK ETA TAULAK</b> .....	145
<b>7. ITURRIAK</b> .....	167



## AURKEZPENA

Gaur egun, 2009. urtean, Ataungo herrian eskola bakar bat dago, Joxemiel Barandiaran ikastetxea, herriko eskola publikoa eta euskalduna. Orain dela 60 urte Ataungo auzo guztietan eskola bana zegoen. Gauza garrantzitsu guztietan bezala, denboran zehar Ataungo irakaskuntzan ere aldaketa asko eman dira.

Aldaketa hauek guztiak jaso nahian eta ahalik eta informazio gehiena biltzeko asmoz elkartu ginen herritar batzuk, irakasle, guraso, ikasle, gaian interesa zuten herritarrek azken finean, eta denon artean egin den informazio bilketarekin, iradokizunekin eta testigantzekin egin da lan hau.

Historian zehar Euskal Herriko eskola guztiak Espainiako eta Frantziako estatuen eraginpean egon dira eta lege aldaketa handiak izan dira, garai eta sistema politiko ezberdinen ondorioz. Aldaketa hauek Ataungo irakaskuntzan ere islatu dira historian zehar.

Ikerketa hau 1609. urtean hasten da, Ataunen dokumentatua dagoen lehen eskola ordukoa da. Urte hauetan eskola eta heziketa Elizari erabat lotuta zeuden. XIX. mende erdialdean hasten dira aldaketak somatzen. Gero XX. mendean, liberalismoak haseran eta ondoren Frankismoak era bortitzean eragingo dute gure herrian eta herriko umeengan.

Beste atal garrantzitsu bat hizkuntzarena izango da. Belaunaldiz belaunaldi euskararen eta euskal kulturaren transmisioa ahozkoa izan da. Euskal Herria estaturik gabeko herria izan da eta bi estatu haundien eraginpean egon da gizaldi hauetan. Estatu hauek inoiz ez dute Euskal kultura eta Euskal hizkuntza babesteko eta erabiltzeko ahaleginik egin. Alderantziz, Euskara eta euskal hiztunak zigortuak eta mespretsatuak izan dira.

XVII. mende bukaeratik XX. mendera arteko ibilbidean aldaketak handiak izan dira. Ataungo gizartea ere, bai biztanletza aldetik, bai bizimodu aldetik asko aldatu da. Nekazaritzan eta abeltzaintzan oinarritua egon zen mende askotan. Gero XX. mendean industrializazioarekin lehen sektorearen gainbehera nagusituko da. Aldaketa hauek gure herriko eskoletan ondorio garbia izan zuten eskolak umez bete zirelako.

Bestalde gizartearen beste arlo funtsezko bat agintearena eta garaian garaiko lege eta araudi desberdinen islada izan da. Irakaskuntzaren eta heziketaren garrantziaz jabetuta agintea beti saiatu izan da bere ikurrak eta pentsaera eskoletan ezartzen. Sinbolo hauen adibideak eskolako hormetan garai batean gurutzeak, gero Espainiako bandera, Franco edo Erregearen argazkiak eta, ikusi izan ditugu.

Lan honek aldaketa hauek guztiak jaso nahi izan ditu, ondorengo belaunaldiak jakin dezaten gaur egungo eskolak ez duela askotan garai bateko eskolekin zer ikusirik. Eta gaur egun dugun irakaskuntza lorpen bat bezala ikusten badugu, hein handi batean herritar eta guraso askoren lanari esker izan dela. Heziketa hobe baten beharrean sinesten zutenak.

Aurkezpen hau bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu liburua osatzeko hainbat ekarpen egin dituzten lagun guztiei.



## 1.- SARRERA

Ataungo irakaskuntzaren historia, eta bertan bizi izan diren egoera desberdinen berri ezagutzea, atal garrantzitsu bat dela uste dugu herritarrontzat.

Nork ez ditu hainbat historia bizi izan eskolan igarotako urte haietan. Ahalegindu gaitezen bada gure herriko irakaskuntzaren ibilbidea ezagutzen eta koka dezagun egoera bakoitza bere garaian.

Horretarako, kontuan eduki beharko dugu, gure herriak (Euskal Herriak) historian zehar egitura politiko-administratibo desberdina izan duela eta bi Estatu handiren agintepean, hauen boterea jasan behar izan duela. Izan ere, euskal lurraldeak Aro Modernoan beren foruen baitan antolatzen ziren, baina estatu modernoa sortzen eta eraikitzen joan zen heinean euren burujabetsuna galtzen joan dira. Eta hezkuntza, garaiko arlo desberdinak bezala, prozesu historiko bakoitzaren isla da. Iturri historiko desberdinek, bibliografikoek, artxiboetakoek, ahozko iturriek... honela azaltzen digute. Jakina, zenbat eta garai berriagoetara etorri, orduan eta informazio ugariagoa dugu. Aro Modernoan oihartzunak besterik ez ditugu, esanguratsuak badira ere. XX. mendean berriz, gure gizartean hezkuntzak izan duen garrantzia nabarmen ikusten da, hezkuntza maiz berritu nahi zen gizartearen kimutzat hartu baita eta joera desberdinen talka gune bihurtu gainera.



## 2.- LEHEN AIPAMENAK

Ataungo irakaskuntzari buruz aurkitu ditugun xehetasun zaharrenak 1609koak dira; *Maestros de primeras letras* izenarekin ezagutzen ziren garai haietako lehen maisuak eta kristau dotrina irakastea zen helburu nagusiena; irakurri, idatzi eta zenbatzen ikastea, bigarren mailan geratzen zen.<sup>1</sup>

XVII. mendean Erregimen Zaharra indarrean, Europa osoan Erregimen Feudal klasikoaren ondorengo erakuntza sozial, politiko nahiz ekonomikoa zegoen zutik. Eta honela iraungo du XVIII. eta XIX. mendeetan iraultza liberal burgesak eta iraultza industrialak gailendu zen arte. Sistema honen ezaugarri nagusiak: monarkia absolutua, estamentuetan banatutako gizartea eta ekonomi arloan, jauntxo feudalen eta burgesen arteko gatazkak kapitalismorako trantsizioa markatzen zuen, eta giza harremanetan estamentu gizartea eta estamentu pribilegiatuek hartzen duten talde nagusia izatera hel ezin daitekeen burgesiaren arteko oposizioa nabarmentzen joango da. Politika sisteman tentsio nagusia, boterearen zentralizazioaren eta mota orotako pribilegioenganako (pertsonalak, estamentalak edo lurraldeenak) errespetuaren artean mantentzen zen, jurisdikzio eta foru aniztasun handia baitzegoen garai hartan.

Gurean, Gaztelako monarkia gero eta indartsuagoa egiten ari zen bitartean Foru Sistemak indarrean ziharduen eta honek nolabaiteko autogobernu maila garrantzitsua ematen zion euskal lurralde bakoitzari arlo desberdinetan eta baita hezkuntzan ere.

Garaiko irizpide edo baldintza hauek bermatu eta betez, Foru Diputazioak eta Udalak ziren hezkuntzaz arduratzen ziren erakundeak. Baldintza hauetan, lehenengo maisuak apaizak izan ziren. Maisu hauek, lehenik Udalarekin epe zehatz batetarako hitzarmena izenpetzen zuten eta erakunde honen kontura ohi ziren soldata, etxe bizitza eta behar hainbat sutarako egurra ere bai.

Aipatutako hitzarmenaren baldintzak zehazterakoan, Udalak eta maisuak irakaskuntza lanerako erabili behar ziren ordutegi, itunaren epe, soldata eta beste zenbait xehetasun adostu ondoren, bi alderdiak Notario jaunaren aurrean izenpetzen zuten lan hitzarmena.

XVII. mendetik aurrera, haurrentzako gelak irekitzeari ekin zioten Gipuzkoan. Hasiera batean, biztanle pribatuen diru laguntzari esker eta gerora Udalaren kontura.

---

<sup>1</sup> AUA: 300-31

Agertzen zaigunez Hernanik aurre hartu zuen eta 1599an maisua zeukaten, beranduago besteak beste, Oriok 1605ean, Legazpik 1614an, Legorretak 1625ean eta abar.<sup>2</sup>

Esan bezala, Ataungo eskolako maisuari buruzko lehenengo aipamena 1609koa da, beraz ez zen atzera gelditu eta inguruko herrien ekimenen parean zebilen gure herria. Garai hartan herriko eskola bakarra, Astigarraga auzoko Etxagora etxean zegoen kokatuta eta gela batean adin desberdinetako haurrak elkarrekin egoten ziren.<sup>3</sup>



Astigarragako Etxagora etxea. Hemen ireki zen herriko lehen eskola 1609an.

<sup>2</sup> SALINAS, A. , AGIRRE, J.: *Urrietako irakaskuntzaren histori laburra*. Lankidetzta bilduma. Urrietako Udala, Eusko ikaskuntza. Donostia, 2007. 25.or.

<sup>3</sup> AUA: 300-31

Emakumezkoen hezkuntza oro har beharrezkotzat hartzen ez zenez, oso neska gutxi joaten ziren eskolara.

1619. urtearte, irakaskuntza doan izen bazen ere, igaro berria zen gerratearen ondorioz, diru larritasun handiak zituen Ataungo Udalak eta eskolan zebilen haur bakoitzarentzat ordainketa ezarri zen:<sup>4</sup>

Ordaindu beharreko kopurua, honela banatu zuen Udalak:

- a) Irakurtzen zuten haurrek.....Erreal bat
- b) Idazten zekiten haurrek .....Bi erreal
- d) Kontuak ateratzen zekitenek.....Hiru erreal

Udal ordezkariak osatutako, *Junta escolar* edo Batzorde bat zegoen herrian. Honek begiztatzeko zituen maisu bakoitzaren jokabide eta lanak eta hutsegite desegokiren bat ikusten zutenean, salatu eta neurriak berehala hartzen zituen.

Honen adierazgarria da Philippe Arramendi maisu jaunari 1738an gertatu zitzaiona. Maisu honek gure herrian hiru urte igaro ondoren, desegokia zela argudiatuz bidali egin zuten.

Egindako hutsegiteak argituz, maisu jaunari honela adierazi zion Udalak igorritako txostenean: *“Por justos motivos y para poner especial cuidado en la buena educación, crianza y enseñanza de la doctrina cristiana”*<sup>5</sup>

Aipatutako maisua bidali zutenean sortu zen hutsunea betetzeko, Pedro Urtasun jauna aukeratu zuten eta 1740an, hitzartutako epea bukatu zenean, berriro itun berria adosteko unean honako eginkizun hauek adierazi zizkioten Urtasun jaunari: *“Haia de enseñar a leer, escribir, contar, ayudar a misa y la doctrina cristiana, así en castellano como en bascuence”*<sup>6</sup>

Ezin dugu ahaztu, 1545etik 1563ra, Eliza katolikoak Trenton (Erroman) ospatu zuen kontzilioaren ondoren, herri mintzairak kontuan hartzen hasi zirela, katekesi eta eliza-predikuak, tokian tokiko hizkuntzan egitea adostu zuten eta modu honetara euskaldunei dotrina euskaraz bideratzen hasiko dira. Hau dela eta eskolan ere ahalegin handia egingo da jarraibide hau jorratzen. Eta urte haietan, aurreko mendeetan ez bezala dotrina eta eskola euskaraz txertatzeko ahaleginak egin ziren.

XVIII. mendean ere elizgizonen ardura zen hezkuntza. 1768ko uztailaren 28an zegoen irakasle hutsunea betetzeko, sei urterako hitzarmena izenpetu zuen Udalak, Simon Antonio Arrondo Arzelus apaiz jaunarekin. Soldata, 70 dukat ordainduko zitzaion, etxebizitza San Martingo plaza inguruan kokatuta egon behar zuen, baina bere kontura izango zen alokatzearen ordainketa eta

<sup>4</sup> AUA: 001-01

<sup>5</sup> AUA: 001-01

<sup>6</sup> AUA: 001-01

aurretik egondako maisuak bezala, Astigarraga auzoko Etxagora etxeke eskolan jarraitu zuen. Irakurtzen, idazten, kontatzen eta kristau ikasbidea, *erromantzean eta euskaraz* irakatsi behar zuen. Eskolako ordutegia goizez, zortzietatik hamaikak arte eta arratsaldez, ordubetetik lauretara izan behar zuen.<sup>7</sup>

Gerora, San Martin auzoko eskola, Eliz ganbara deitzen zen etxean kokatu zen. Etxe hau, San Martin elizako kalostra gainean edo gaur egun OARGI-Troskaeta elkarte dagoen lekuan zegoen eta gela hauetan jarraitu zuten auzo honetako neska eta mutilen “eskola nazionalak”, 1971 urtean desagertu arte.



San Martingo eskola nazionalak, Eleizganbara etxean.

Simon Antonio Arrondo Arzelus apaiz jaunak 1773an eskola emateari utzi zionean, bi hautagai eskaini ziren hutsunea betetzeko, Juan Antonio Apalategi Urrestarazu (Zaindegi etxekoa, 1744-01-16) eta Juan Antonio Ibarrolaburu Aldasoro (1736-11-25 Astigarragako Luzinea etxekoa) jaunak.

1773ko urriaren 4an, lehenago Ataunen Notario egondakoa eta Lazkaoko alkate zen Migel Etxarri jaunak, bi hautagaiei azterketa bat egin ondoren, Apalategi jauna trebeagoa zela eta bera izendatu zuen Udalak, Astigarraga auzoko eskolarako.

<sup>7</sup>AGG- GAO: PT.1926-85 or.

Ituna oraingoan ere, sei urterako izenpetu zuten, urtean 70 dukaten truke eta bere egitekoa irakurtzen, idazten, zenbatzen eta kristau ikasbidea erromantzean eta euskaraz irakastea zen.<sup>8</sup>

Baina batzuetan maisuak beste lan batzuk ere egin behar izaten zituen. Esate baterako, 1783an, 100 dukateko soldata eskainiz, organo-jole baten bila zebilen Ataungo Udala eta aldi berean, organo-jole honek gai izan behar zuen maisutarako ere.<sup>9</sup>

XVIII. mendean ordea, borbondarrak estatua geroz eta zentralizatuagoa izaten saiatu ziren eta euren ilustrazio filosofiari jarraituz hezkuntza baliabide interesgarria bilakatu zen. Honela uler-tzen da 1790eko maiatzaren 6an, Madrilgo erregearen aginduz, alkate jaunari eskatu zitzaion jakinarazteko :

- Herrian eskola beharrik zegoen.
- Irakasteko arauak egokiak ziren edo hobetu behar ziren.
- Herrian erretorerik zegoen, bere eredu eta dotrinarekin lagundu zezan helburuak lortzen.<sup>10</sup>

Ezin da ahaztu Ilustrazioak hezkuntzari eman zion garrantzia. Ilustrazioa XVIII. mendeko kultur mugimendu arrazionalista izan zen eta sistema politiko ekonomiko eta soziala berritzea nahi izan zuen zeregin honetan hezkuntza arrazionalista, pragmatikoa eta zientifikoa garatu nahi izan zuelarik. Euskal Herrian ere izan ziren filosofia berri honen jarraitzaileak: Euskal Herriko Adiskideen Errege Elkarteak sortu zutenak hain zuten ere. Hemendik sortu zen 1776an Bergarako Errege Mintegia euskal kulturaren berrikuntza saiakera garrantzitsua izan zena. Hala ere, asmo hauek ez zuten jarraipenik izan eta ezta hedapenik ere, ahalegin distiratsuan geratu ziren. Monarkia ilustratua, Despotismo Ilustratua, hezkuntzaren garrantziaz jabeturik, bere boterearen baliabideetat erabiltzen saiatu zen.

Gurera itzuliz San Gregorio auzoko eskolari buruzko lehenengo aipamena, 1796koa da, lehen eskola ireki berria zegoeneko. Maisutarako Astigarraga auzoko Txatañenean bizi zen Pablo Antonio Arrese Etxeberria (1774-01-15) jauna hartu zuten.<sup>11</sup> Garai hartan herrian zeuden haurrak eskolaratzea ez zen nahitaezkoa eta gehienak eskola gabe gelditzen ziren. Eskolaratuak kontatuak ziren eta herriko jabedun edo handizkien ondorengoak izaten ziren gehienak.

Aipatutako egoera hau ziurtatzeko nahikoa da honako datu hauek kontuan izatea: 1796an herrian zeuden bi eskolatan, 85 ikasle bakarrik zebiltzan. Hauetatik 75 mutilak ziren eta 10 neskak.<sup>12</sup> Kontuan eduki behar dugu, garai honetan Ataungo herrian erroldatutakoak, gaur egun baino bi bider gehiago zirela eta familia bakoitzak berriz, zortzi edo hamar haur izaten zituela.

<sup>8</sup> AGG-GAO: PT.1929-211. or.

<sup>9</sup> AUA: 202-19

<sup>10</sup> AUA: 202-20

<sup>11</sup> AUA: 002-02

<sup>12</sup> AUA: 002-02



San Gregorio auzoko Arrate buru etxea (gaur egun San Gregorio txiki deiturarekin ezagutzen dena). 1796ean, bertan hartu zituen haurrak lehen maisuak 1862ra arte.

Herritar gehienak eskola gabeak ziren eta hori egiaztatzeko nahikoa da garaiko Udaletxeko akta batzuk ikustea edo Notario jaunaren protokolo liburuetan, itun, eskritura, testamentu eta beste zenbait dokumentu aztertzea. Agiri hauetan, izenpetzerakoan, herritar asko ziren aitortzen zutenak ez zekitela ez irakurtzen eta ezta idazten ere.

Eskola hau nolakoa zen jakiteko oro har esan daiteke dotrina euskaraz transmititzera mugatu zela irakaskuntza eta eskolan gaztelera hezkuntzaren hedapena ezarri zela. Lehen hezkuntzako eskolak ugaritzen hasi zirenean, irakaskuntzari funtzio berri bat erantsi zioten, hau da, euskal hiztunak erdalduntzea.

Hasiera batean eskola gutxi zeudenez, herri txiki eta baserri girokoetan eragin mugatua izan zuten erdal eskolek. Hona Kardaberaz jaunak esaten zuena: *“Gure baserrietan gende prestuac dirauten artean, euscarac iraungo du”*, baina beste zerbait agertu nahi zuen Espainiako errege zen Karlos III.ak 1768ko ekainaren 13an :

*“Finalmente mando, que la enseñanza de Primeras Letras, Latinidad, Retórica, se haga en lengua castellana generalmente, donde quiera que se practique, cuidando de su cumplimiento las Audiencias y Justicias respectivas, recomendándose también por mi Consejo a los Diocesanos, Universidades, y Superiores Regulares para su exacta observancia, y diligencia en extender el idioma general de la Nación para su mayor armonía y enlace reciproco”*.<sup>13</sup>

Hasiera batean erretolika hutsa zirudien, baina poliki-poliki lege hauek eragin sakona izan zuten Udal desberdinak plazaratzen zituzten aginduetan. Hona hemen, 1784ko azaroaren 27an, Aia herriko eskritura batzuetan zehazten dena:

*“Dará orden estrecha de que nunca hablen entre sí el vascuence, sino el castellano. Y para puntual observancia de esta orden se valdrá del medio común o sortija, tomando cada sábado razón de su paradero y reprendiendo, apercibiendo y castigando directamente al que se hallare con él”*.<sup>14</sup>

Ezin da ahaztu Udal bakoitzak ahalmen handia zuela irakaskuntzan eta maisu-maistrek zigorra ezartzerakoan herriko agintarien onespena zeukatela. Elgoibarko Udalak, 1787ko martxoaren 18an, Gregorio Landibar maisu jaunari eginiko kontratuak, honela azpimarratzen zuen :

*“Que no permita a los niños que hablen dentro ni fuera de la escuela otro idioma que el castellano; y entreguen el anillo para que vaya circulando entre ellos en la falta en que incurrieren; y al último que llevare tal anillo a la escuela le aplique la pena de azotes o palmada con suavidad...”*<sup>15</sup>

<sup>13</sup> GARMENDIA LARRAÑAGA, J.: Azkoitiko bailaretako eskola, 1824-1977. Utrisque Vasconiae, Donostia 2006. 30. or.

<sup>14</sup> GARMENDIA LARRAÑAGA, J.: *Op. cit.* 31. or.

<sup>15</sup> GARMENDIA LARRAÑAGA, J.: *Op. cit.* 31. or.



### 3.- XIX. MENDEA

XIX. mendeak liberalismoa ekarri zuen eta honekin iraultza burgesa bere eraldaketa politiko, ekonomiko eta sozial guztiekin ezarri zen. Erregimen Zaharra hautsi eta estatu liberala eraiki zen, iraultza industrialia gauzatu eta gizarte klasista sortuz. Iraultza hau guztia ordea oso modu korapilatsuan eta zailtasun handiekin eman zen espainiar estatuan. Borroka ugari izan ziren eta gurean estatu liberalak zekarren zentralizazio eta uniformizazioak talka egin zuen bertako Foru Sistema zaharrarekin. Gerra Karlistak amaitzean ordea, foruak erabat desagertu ziren.

Hezkuntzari dagokionean, ordura arte Foru Diputazioak eta Udalak izandako ahalmenak galdu ziren eta Madrilek arautegi eta kontrol gero eta zorrotzagoa ezarri zuen arlo honetan.

Estatu liberala eraikitzen hasi zen une beretik ekin zitzaion prozesu honi. 1812ko Cadizko Konstituzioak hezkuntzari berebiziko garrantzia eman zion eta hemen abiatu zen espainiar hezkuntza sistema. Baina sistema hau ez zen espero bezain erraz jazarri. Lehenengo, Espainiak bizi zuen gerra egoerak eta, ondoren, ezegonkortasun politikoak eta Lehen Gerra Karlista lehertzeak hezkuntza aparatu berria abiaraztea eta ezartzea mende horretako 40ko hamarkada arte atzeratu zuten ia. 1820-1823 bitartean garatu zen Hirurteko Liberaletik aurrera, Espainiako agintariak maisu titulua eskatzen hasi ziren irakaskuntzarako, baina baldintza hau ere lege bihurtzea, mende bat baino gehiago kosta zen.

Nolanahi ere, irakaskuntza titulatuaren eskuetan jarri zenean, gizarte onespének gorantz egin zuen eta neurri batean kalitatea hobetu zen, baina maisu titulatu hauek soldata eskasak zituzteenez, beste lan batzuetan ere jardun behar izaten bizibide bat lortzeko (barberu, erlojugile, sakristau, organo-jole eta abar).

1826ko maiatzaren 12an, Ataungo herriko *Junta Local de Enseñanza* honako hauek osatzen zuten: Alkate, Erretore eta Sindiko jaunak. Data hartan gainera eta irakaskuntza egokiago bat eskaintzeko asmoarekin, Arrondo auzoan, herriaren erdian aurkitzen zenez, eskola berri bat irekitzeko proposamena onartu zuen Udalak.<sup>16</sup>

Eskola honetara, Bonea etxetik Bazterrika baserrira bitarteko haurrak joango ziren, baina gero egiaztatuz zenez, hasierako asmoak eta erabakiak ez ziren guztiz gauzatu. 1827an, neskak eta

---

<sup>16</sup> AUA: 300-15 (1826-05-12)

mutilak gela berean egotea galarazita zegoela gogoratzen du Ataungo Eskolako Batzordeak.<sup>17</sup> 1829an, San Martin auzoko eskolan, 62 haur zeuden eta San Gregorio auzoan berriz, 35 haur; guztira 97 haur.<sup>18</sup>

Ordura arte, eskolarako maisuak aukeratzeko ahalmena Udalaren gain egon bazen ere, 1840tik aurrera, gauzak aldatu ziren. Cadizko konstituzioan gaiari buruz araututakoa ontzat eman zutenean, irakaskuntzarako legedi berri bat onartu zuten Estatuko agintariek.<sup>19</sup>

Legedi honen ondorioz:

- a) Lekuko hizkuntzak baztertuz, gaztelera ezarriko zen berriro.
- b) *“El Plan General de la Enseñanza será uniforme en todo el Reino”* agintzen zen.
- d) Estatuak izango zuen, irakaskuntza kontrolpean edukitzeko ahalmena.

Legea onartu zuten, baina Estatuaren ahulezia nabarmena zenez, zama guztia Udalaren gain zegoen.

Eskolara joateko derrigortasuna ezarriagatik, motibaziorik ez zegoenez, oso haur gutxi joaten zen eskolara eta ikasgelen egoera penagarria zen. San Martin auzoko eskola bakarra, Eliz ganbara deitzen zitzaion etxean irekita zegoen (aurrez esan bezala, Kalostra handi gainean) eta 1843an bertan bigarren gela ireki zutenean, neska eta mutilak bananduta jarri zituzten.<sup>20</sup>

Bigarren hezkuntza *modernoak* XIX. mendeko estatu liberalarekin duen lotura estuak ez du esan nahi Erregimen Zaharlean lehen hezkuntzaren ondorenerako hezkuntza zentrorik ez zegoenik. 1845ean Pidal Plana argitaratu arte eta bigarren hezkuntza *berriaren* zentro uniformatzaile gisa katean Probintzia Institutuak ezarri arte, lehen letretako eskolen eta Unibertsitatearen arteko zubi lana egiten zuten hezkuntza zentroen aniztasunak hezkuntza sare zabala adierazten zuen eta izaera profesional sendoa zuten zentroekin batera (-nautika eskolak, marrazki eskolak edota merkataritza eskolak) maila unibertsitarioan sartzeko behar zen latina irakasten zuten katedrak eta ikastetxeak zeuden (-orientabide klasikoagoa eta humanistikoagoa zuten eskola hauen curriculumek-)

Gurean, bigarren irakaskuntzako hezkuntza errealitateak Espainiako lurraldeen antzeko ibilbidea izango du, denboraren ikuspegitik atzeraxeago joango dena batez ere Euskal Herrian lehen Gerra Karlistak izan zuen gogortasunaren ondorioz, eta horrekin batera, aldaketa prozesu batean sartuta zegoen gizartearen ezaugarrietara moldatuko zen, modernizazio industrialaren bidean hezkuntza maila honi arreta egokia eskatuko baitzion.

1857an, Madrilgo Fomentoko Ministro zen Claudio Moyano Samaniego (1809-1890) jaunak, Espainiako irakaskuntzaren sistema eta marko berria ezarri zuen. Moyano legea alfabetatze eta

<sup>17</sup> AUA: 300-21 (1827-05-22)

<sup>18</sup> AUA: 300-21(1830-03-19)

<sup>19</sup> AUA: 497-02 (1940)

<sup>20</sup> AUA: 497-02 (1843)

eskolatzearen lehenengo formalizazio eta sistematizazio ahalegina izan zen. Espainiar estatuak, estatu frantziarrak eraiki zuen eskola eta hezkuntza sistema ereduari jarraiki, lege zentralista eta homogeneizatzailea agindu zuen, ordura arteko tokiz tokiko funtzionamendu autonomo osoa (gehien bat Udaletxe eta Aldundiari zegokiena) ezabatuz. Lege honek estatu espainoleko hezkuntza administrazioa antolatzeko eta finkatzeko izan zituen garrantzia eta eraginkortasuna oso nabariak izan ziren.

Lau ziren elementu nagusiak:

- Bateraketa: irakaskuntza Madriletik zuzenduko zen.
- Berdintasuna; ikasketa planak berdinak izango ziren Estatu osoan.
- Estatuak bere gain hartzen zuen kontrola eta zerbitzua.
- Irakaskuntzaren askatasuna eta ikastetxe pribatuak sortzeko ahalmena eskaintzen zen.

Honez gain, irakasleen izendapenarekin batera, eskolaren kontrol ideologikoa hertsiki lotu zuen beste osagai bat azpimarratu behar da: inspektzioaren kontrol funtzioa. Zentzu honetan, politika liberalak eskoletan gazteleraren erabilera ziurtatzeko eta normaltzeko erabili izan zituen inspektoreak, 1859.etik 1876.era Gipuzkoa eta Arabako inspektorea izan zen Joan Maria Egurenen jarraera euskararen kontrako neurri administratiboaren beste adibide adierazgarri bat izan zelarik.

1857an Moyano legea martxan jarri eta 1876an Foruen indargabetzea etorri arte egon zen tartean, II. Gerra Karlistan zehar Bizkaia eta Gipuzkoan euskararen aldeko eta hezkuntza politika propioa gauzatzeko ahaleginak aipagarriak izan ziren arren, politika liberala eta lehenengo urrats eraginkorrak ematen hasi ziren. Era honetara, legeari egiten zitzaizkion kritikak urte batzuen buruan ikusi ziren eskoletan. “Eskola bakarra” egiteko Moyano legearen bidezko saiokak ondorio lazarriak izan zituen lurralde euskaldunetan; estatu mailako izendapen horrek sarritan maisuarentzat guztiz ezezaguna zen inguru batera joan beharra suposatzen zuen, oso eskasak ziren soldata batzuen truke.

Ikasleentzat ere egoera ez zen hobea: hizkuntzagatik elkar ulertzearen ezintasuna izugarria zen. Ikasleak euskaldun elebakarrak ziren, irakasleak berriz gazteleradunak eta tartean hizkuntza biren harreman gatazkatsua nabari da.

Ikasle euskaldunei gazteleraz hitz egin arazteko zigor kasuak ugariak ziren; agian, ezagunena “eratzuna” izenekoa, Europako herri desberdinetan (batez ere hizkuntza borroka ematen zen tokietan) eta Euskal Herrian XVIII. menderako jadanik erabilitakoa. Iparraldean ere praktikatzen omen zen.<sup>21</sup>

Wilhelm Humboldt, filologo, idazle, politikoa eta estatista aleman ospetsuak zionez, herri baten garapen intelektual bat lortzeko, zalantza gabe egitura linguistiko bat beharrezkoa da. Berak ere jaso zuen euskararen zapalketaren berri eta honela mintzatu zen:

<sup>21</sup> FERNANDEZ, I: *Oroimenaren hitza. Ikastolen historia 1960-1975*. UEU. Bilbo, 1994. 14-15. orr.

*“Se persigue el vasco en las escuelas. El maestro da al principio de la semana a un niño el anillo. Este niño se llama “el rey”. Presta atención a quien habla una palabra en vascuence fuera o dentro de la escuela con otro escolar y le da el anillo.*

*Éste a su vez presta atención a lo mismo y da el anillo, y así sucesivamente. Al fin de semana pregunta el maestro por el anillo e inquiera en serie a todos los niños que han recibido unos de otros. Estos se han de poner luego con los brazos en alto, en cruz, levantar por detrás la camisa y se les castiga.*

*Si uno de ellos quiere decir algo al otro, lo dice al árbol, a la estrella y el otro contesta así, o a un transeunte, pero no el uno al otro.*

*Lo mejor es que se ven realmente obligados a ello, por lo que a menudo no saben las expresiones castellanas. Muchos de los caseros no envían a sus niños a la escuela. Hay pocos que sepan escribir en vascuence. Cartas en vascuence no se escriben.”<sup>22</sup>*

Madrialeko legediaren eta bertako foru ohituren artean, arazo ugari sortzen ziren eta estatuaren aginduak ez ziren bertako erakundetako agintarien gustukoak. Horrela, Moyano legea ez zuten begi onez ikusi Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako Aldundietako ordezkariak.

II. Gerra Karlistak iraun zuen bitartean, 1872tik 1876ra, Euskal Lurraldeetan sortutako hezkuntza politika baten garapena ahalbidetu zen, baina denbora gutxi iraun zuen.

Indar karlisten politika honen ezaugarriak honakoak izan ziren:

- Maisu-maistrak Udalek izendatzen zituzten eta euskara ezagutu eta menperatu behar zuten.
- Irakaskuntza edukiaz gain, erlijio kristauaren alde zegoen.
- Ikuskaritzan, elizgizonen presentzia nabarmena zen.<sup>23</sup>

Gipuzkoako Buletinean, honako agindua zabaldu zioten herri bakoitzeko Batzordeari:

*“Junta Provincial de Instrucción Primaria de la M.N.yM.L. Provincia de Guipúzcoa: Por el artículo 3º del Reglamento vigente de instrucción primaria, se prescribe que en todas las escuelas de la Provincia de Guipúzcoa, se dé la enseñanza de la lectura primero en lengua vascongada y después en la castellana.*

*En virtud de esta disposición y careciendo de una cartilla o arte de leer en vascuence, esta Junta ha encargado a persona competente, tan importante trabajo.*

*Terminado éste y habiéndose hecho una edición de dicha cartilla bajo el título de Iracurtzaren Asierac por el editor Pedro Gurruchaga, impresor y librero de esta villa, en cuya casa se halla de venta al precio de cuatro cuartos cada ejemplar y a cinco reales la docena, lo pongo en conocimiento de V.S., así como en el de los Sres. Profesores de todas las escuelas generales y particulares de esta Provincia, para que desde hoy la consideren como libro aprobado y obligatorio para la lectura en vascuence y principien a usarle en sus respectivas escuelas.*

<sup>22</sup> GARMENDIA LARRAÑAGA, J.: *Opus. Cit.* 31. or.

<sup>23</sup> AUA: 499-02 (1875-09-22)

*La Junta, que al propio tiempo remite a los maestros y maestras directamente la presente circular, espera de V.S. que como autoridad inspectora de esa localidad, vigile para que todos cumplan con este deber y que dé cuenta así de su recibo como de quedar en verificarlo.*

*Dios guarde a V.S. muchos años.*

*Tolosa, 22 de setiembre de 1875"* <sup>24</sup>

Lege berri honen ondorioz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku zeuden eskola guztiei (auzo txikieta-koak, mugatan zeudenak eta abar), irakurketa euskaraz eta ondoren gazteleraz egiteko agindua eman zitzaaien.

1876tik aurrera, Foruen indargabeztearen legeak, Diputazioen eta Udalen ekarpena baldintzatu zuen, irakaskuntzari dagokionez. Karlisten errebindikazioak isildu ondoren, liberalek berriro ere gogor ekin zioten beren hezkuntza-jarduera eta eredia inposatzeari.

Foruen galerak euskal gizartearen erantzun bat, urteetan zehar sendotzen zihoan erantzuna, ekarri zuen eta kulturaren alorrean nabarmenki sumatu zen mende bukaeran.

Euskal kulturaren defentsa pixkanaka-pixkanaka goraka hasi zen, berrindartzea etorriko zen arte. Kultur alorreko pizkunde honek, Aldundietan zeuden indar nazionalisten bultzada ere jaso zuen eta euskararen aldeko neurri ugari hartu ziren. Administraritzan arloan aldi batez, langileak kontratatzeko euskararen ezagupenaren baldintza jartzen hasi ziren: institutuetan eta eskoletan euskarazko katedrak sortzea bultzatu zen, besteak beste.



Ezkerretik eskuinera:

1879tik San Gregorioko maisu izan zen Manuel Antonio Arrese Imaz jauna, bere anaia Migel (apaiza) eta Antoniorekin.

<sup>24</sup> AGG-GAO: JD.IT.22 B-5

1885ean, Gipuzkoako Aldundia euskararen alde atera zen eta Instrukzio Publikoko lege berrian azaltzen zen euskararen erabileraren aurkako artikulua bertan behera uztea eskatuz. Ekarpenekin bat egin zuten Bizkaiko, Arabako eta Nafarroako Aldundiek ere.

Nolanahi ere eta ahaleginak ahalegin, Karlistadak eta 1876ko foru ezeztatzearen ondorioak, euskararen bazterketa ekarri zuten eta gutxitan izango du eskoletan sarrerarik 1960 arte.

Ataunen garai hauetan, eskolen egoera kaskarra antzematen da garaiko agiriak ikertuz. Honela, San Gregorio auzoan, eskolarako gelarik gabe zeudelako maisuak bere etxean hartzen zituen haurrak. 1861ean maisu honek salatzen zuenez, gela txikia zeukaten, haurrak ugaritzen ari ziren eta zailtasunak zituen ikasketarako beharrezko tresnak lortu ahal izateko. Honen aurrean, ikasketxe berria egiteko aurrekontu edo presupuestoa eskatzea erabaki zuen Udalak. 1862an, Tolosako Mariano Jose Laskurain injenieri jaunak, Udalak eskatutako lanaren argitasuna eta aurrekontuaren berri eman zuen.



San Gregorioko Elizondo etxea. 1863an, auzoko eskolatako bi gela prestatu ziren bertan.

Berak zioenez, eskola berria iparraldetik eta Elizari erantsita eraikitzekotan, 23.037 errealeko kostako zen (diru kopuru honetan kontuan eduki zituen 1.500 errealeko, ezustetarako) eta eskola berdina hego aldetik eraikitzekotan berriz, 17.170 errealeko. Iparraldetik eskola eraikita ordea eta beste solairu bat altxatuta, noiznahi maisuarentzat etxebizitza egin zitekeela jakinarazi zuen Laskurain jaunak. Udal ordezkariak azterketa sakona egin ondoren, azken aukera honi zegozkion aurrekontuak ateratzeko eskatu zioten Laskurain jaunari. Hala ere, mementoz, eraikuntza berriaren asmoak hutsean gelditu ziren eta auzoan eraiki berria zen Elizondo etxeari begira jarri ziren herriko agintariak.

Honela, Astigarraga auzoko Paskiñane etxean bizi zen Juan Jose Zubizarreta Agirre, Valladolideko *Bellas Artes* eskolako kide, lur-neurtzaile eta lan-maisuari (maestro de obras) eta Beasaingo peritu jakitun zen Juan Jose Zunzunegi jaunari, Elizondo etxearen lehen solairua eskolatarako egokia zen galdetu ondoren, eraikinari buruz euren iritzi edo txosten bat osatzeko eskatu zien Udalak.

Hauen oniritzia jaso ondoren, Udal ordezkariak etxe honen jabe zen Jose Inazio Garaialde Urkola jaunarengana jo zuten eta berehala alokatzeko adostasunera iritsi ziren. Urtean, 400 errealeko errenta ordaindu behar harko zuen Udalak.<sup>25</sup>

<sup>25</sup> AUA: 498-02 (1862-01-05)

Aurrerago aipatzen genuen, Udalak bazuela irakasleak izendatzeko ahalmena eta 1844tik aurrera Estatuak egin zela ardura honen jabe. 1868an, ordea, Ataunen irakasle berri baten aukeraketa zela eta, Udala berriro eskubide hartaz baliatu zen nahiz eta jokabide zuzena ote zen zalan-tzan jarri zuten zenbait herritarrek. Iritzi desberdineko horiek Udaletxean sesio eta liskar handia sortu zuten, baina tinko eutsi zioten Udal ordezkariak euren jokabideari, antzinatek zetorren eskubide eta ahalmena zela argudiatuz, horretarako urteetan zehar egindako izendapenen zerrenda luzea atera zuten ados ez zeudenei erakusteko.<sup>26</sup> Ikusten den bezala, foruak galtzen zihoazen arren, Ataunek bere ohitura eta ahalmenekin jarraitu nahi zuen, eta herriko agintariak ez zeuden irakasle aukeraketa Estatuaren eskuetan uzteko. Gauzak honela, 1879an, Heziketarako Herri Batzarra (*Junta Local de enseñanza*) osatzea erabaki zuten.<sup>27</sup>

Urteak igaro ahala, eskolaratzen ziren haurren kopurua nabarmen igo zen eta Ataungo irakasleek haurren materialetarako diru gehiago eskatu zioten Udalari.<sup>28</sup> 1885. urtean, Aia auzoko 56 auzotarrek, eskola bat irekitzeko eskaera zuzendu zioten Ataungo Udalari, baina 1896 arte ez zen ireki eskola hau.<sup>29</sup>



Bernardo Chantal Chantal, 1895ean San Martingo mutilen eskolako maisua.  
Goiko ilaran ezkerretik zazpigarrena (altuena): Pio Aiestaran Loinaz, Errotakoa.

<sup>26</sup> AUA: 499-01

<sup>27</sup> AUA: 500-01. *Junta Local de enseñanza* delakoaren eraketa.

<sup>28</sup> AUA: 500-02 (1880)

<sup>29</sup> AUA: 501-01(1879-11-16)

XIX. mendearen bukaeran hezkuntzak gero eta garrantzi handiagoa du herritarren eta agintarien artean. Gainera, estatuaren eta bertakoen artean desadostasun nabarmenak azalduko dira batez ere euskararen arloan eta hizkuntzarekiko kezka zabaldu ahala, eskolarekikoa ere piztu egin zen. Modu honetan, eskola berrikuntza saiakerak kultur pizkundearekin bat eginda ageri dira. Bide honetatik euskarazko heziketa eskolak azalduko dira Donostian 1884an Jose Gaspar de Oregiren eskutik eta beranduxeago, 1896an Bilbon, R.M. Azkueren ekimenari esker. Ondoren etorriko da, XX. mendearen hasieran, Migel Muñoaren esperientzia Donostian<sup>30</sup>.

---

<sup>30</sup> FERNANDEZ, I.: *Opus. cit.* 21.or.

## 4.- XX. MENDEA

XX. mendea garai konplexua eta zaila izan da eta aro politiko desberdinak bizi izan dira, bakoitza bere ezaugarriekin. Hauetan beste hainbat elementurekin batera garaian garaiko hezkuntza sistema antolatu da, helburu eta ezaugarri bereziak izanik. Gainera, gaurko eskolaren oinarri zuzenak mende honen azken laurdenean eraiki ziren. Ataunen, nola ez, mende honetan izan ziren eskolek ere, garai bakoitzaren nondik norakoa garbi isladatzen dute.

XIX. mendearen herentzia jasoz, XX. mendean ere eskola desberdinak egon ziren Ataunen eta auzo bakoitzak bere eskola izan zuen (aiatarren kasuan XIX. mendearen bukeran lortu zuten eurena). Baina hori nahikoa ez eta beste batzuk ere sortu ziren aurrerago ikusiko dugun bezala.



Maria Altolagirre Arrese, Miraballes etxekoa. 1903tik San Martingo nesken eskolako maistra izan zen jubilatuta arte.

Interesgarria da Joxe Migel Barandiaranek 1900 urteko San Gregorio auzoko eskolaz egiten duen hausnarketa. Bertan besteak beste maisu-maistrek borondate ona izan arren emaitza oso kaskarrak lortzen zirela dio. Honen arrazoia eskolak gazteleraz irakastea zela azaltzen du eta euskaraz hitz egitea galarazita zegoela, aurrez aipatutako eratzunaren kastigua garbi jasoz, eskola umeentzako sufrimendu iturri zela adieraziz. Gainera, familia oneko seme alaba gutxi batzuk bakarrik omen ziren ikasketetan aurrera jarraitzen zutenak.<sup>31</sup>

Artikuluak honela dio:

### ESCUELA.-

*“Dos escuelas –de niños y de niñas- funcionaban en San Gregorio el año 1900. Algunos niños aprendían en su casa a leer, mediante silabarios y bajo la dirección de sus padres o hermanos mayores, antes de la edad escolar. El rendimiento de las escuelas era mediocre a pesar de la buena voluntad de los maestros, porque la enseñanza era impartida en lengua castellana, que era ignorada totalmente por los niños. Estos tenían que aprender de memoria el epitome de la gramática castellana, la aritmética, la historia sagrada, la historia de España, la geografía, etc. Sólo el catecismo de la doctrina cristiana era enseñado en vascuence, pues así lo exigía la Iglesia. Estaba prohibido hablar*

<sup>31</sup> BARANDIARAN AIERBE, J.M.: “Aspectos de la transición en San Gregorio de Ataun” in II Congreso Nacional de Costumbres Populares. Córdoba, 1971. Obras Completas de Jose Miguel de Barandiaran, VI. liburukia, Ikuska 4º, 414 y 415 orr.

*en vascuence en la escuela y aún en el recreo fuera de ella. Quien se descuidara en soltar una palabra vasca, se cargaba con un anillo de latón colgado de una cuerda, maldita insignia cuyo portador era luego castigado a palos en la escuela por el maestro. Los niños, como era natural, apenas hablábamos y procurábamos huir del desgraciado compañero sobre quien había caído el vitando arete metálico. Así la escuela era considerada por nosotros como un lugar de prisión y de suplicio. Otra era la suerte de dos niños que nacidos y criados hasta sus ocho y diez años en un pueblo castellano, llegaron a Ataun y acudían a nuestra escuela. Tal era la discriminación y tal el inhumano y antipedagógico sistema al que estábamos sometidos los niños vascos.*

*Eran raros los niños que continuaran sus estudios más allá de la tan deficiente primera enseñanza. Solo uno estudiaba el bachillerato en aquel tiempo, otro hacia el magisterio y cuatro la carrera eclesiástica. En esto influía también naturalmente, la situación económica de las familias.*

*Se leía poco; algunos devocionarios y vidas de santos escritas en vascuence y versos populares que muchos aprendían de memoria y cantaban frecuentemente. Los relatos tradicionales –leyendas, fábulas y cuentos maravillosos– eran repetidos en las cocinas durante las veladas invernales, en las reuniones de hilanderas, en diversas ocasiones de trabajos para los que se reunían los vecinos, etc.*

*Se leían periódicos solo en tres o cuatro familias”.*

*Joxemiel Barandiaran*

Aia auzoan 1904an, eskola mistoa zuten eta 64 haur zebiltzan hauetatik 41 mutilak, eta 23 neskak. Urte horretako ikasurte bukaeran egindako azterketetan nabarmendu ziren haurrak hauek ditugu: Aritmetikatan, Franzisko Maria Begiristain Aierbe (1894-03-29, Orrolaza Haundia); Irakurketan, berriz, Franzisko Barandiaran; Mikaela Antonia Begiristain Begiristain (1896-11-02 Aiarrea) eta Elias Ezkurdia Apalategi (1895-04-18 Ezkurdiategi).<sup>32</sup>

1904tik San Gregorioko maisu izan zen Juan Tomas Arrese Imaz jauna, bere emaztearekin.



<sup>32</sup> AUA: 503-01

Hezkuntza, alfabetizazioa, gero eta garrantzi handiagoa hartzen joan zen eta aginte erakundeen, eta bereziki Udalaren interesa eta kontrola are eta nabarmenagoa egin zen. Honela auzo bakoitzeko eskolek garrantzia hartu zuten, baita ikasleen asistentziak ere. Hutsegiteak zehatz-mehatz begiratzen ziren eta gurasoei arreta deitzen zitzairen, haurrek etxean utziz gero. Honen harira, 1906ko ekainaren 19an, Ataungo alkate zen Elias Apalategi Beraza jaunak agindu bat zabaldu zuen herrian. Honela zion bandoak:

*“Queda ordenado a los padres o tutores que están en el deber de mandar a sus hijos entre 6 y 12 años constantemente a la escuela, a excepción de enfermedad que debe justificarse, bajo apercibimiento de ser multados desde 10 céntimos hasta 5 pesetas en caso contrario. La misma pena sufrirán los padres encargados o tutores de menores que debiendo estar en la escuela, se entretuviesen vagando por las calles o plazas en las horas de clase, a cuyo efecto serán vigilados por los funcionarios dependientes de este Municipio.”*<sup>33</sup>

Legeak hala agintzen bazuen ere, herritarrek askotan beste premia batzuk izaten zituzten.

“Eskola gutxi, zazpi urtekin asi eta beatzi urtekin ni artzai jun nintzen Lauztiakoa, negun osoakin, ta artaldekin Muskiaño ni bakarrik iotzen nintzen, beatzi urtekin. Ta eskolaa gutxi”. (Bibiana Munduate.)<sup>34</sup>

Haurrak eskolaratzea eta etorkizunerako prestaketa ez zen beharrezkotzat jotzen garaiko gurasoen artean, aldiz, etxeko zenbait lan askoz ere premiazkoagoak ziren. Ondorioz, piper egiteko erraztasun osoa zeukaten haurrek.

Irakaskuntzako Herri Batzarrak ikuspegi horiek zuzendu nahian, ahalegin guztiak egin zituen, eta hutsegiteak agertzen zireneko zerranda osatu eta Udaletxera bidaltzera behartu zituen irakasleak.

Kontua zera da, irakurtzen eta idazten zekiten pertsonen kopurua oso urria zela, ondorioz agintari desberdinek arazoa konpontzeko saiakerak egingo dituzte. Benetan kezkatuta agertzen dira eta 1913ko abenduaren 11n, Gipuzkoako Aldundian egindako bileran, Aginaga diputatu jaunak, honako datu hauek aurkeztu zituen :

*“De los 80 municipios a los que se extiende su administración y acción tutelar, son contadísimos aquellos en que baja de un 40% el número de analfabetos y que en cambio los hay y de ello dan ejemplo Oyarzun, Aia, Hernialde, Zaldibia y otros, en los que pasan de 76 y llegan al 85% dichos electos analfabetos; es decir, que de cada 100 guipuzcoanos mayores de 25 años, a quienes la Ley otorga capacidad ciudadana para hacer uso del sufragio, más de las dos terceras partes, no saben leer y por lo tanto ignoran los nombres impresos en la candidatura que se disponen a depositar”*<sup>35</sup>

<sup>33</sup> AJA: 517-01

<sup>34</sup> ELIAS,N., GOROSTIZU,A. : *Eta gera etorri zen*. XIII. Gerriko ikerlan-beka. Lazkao, 2008. 37. or.

<sup>35</sup> GARMENDIA LARRAÑAGA,J.: *Op. cit.* 69. or.

Gainera, agintari eta erakunde ezberdinen artean hezkuntzan nork agindu lehia gogorra zegoen eta berriro 1913ko apirilaren 5ean, Erregearen aginduz, irakaskuntzaren ardura eta egitekoak Estatuaren esku zeudela azpimarratu nahi izan zen.<sup>36</sup>

Baina Udala ikusten da askotan herritarren beharrei ahal zuen modura erantzuna ematen, gaintzeko agintarien erantzunaren zain egon gabe. Honela, 1914ko urtarrilaren 13an, Dormategiko Franzisko Dorronsoro Barandiaran jauna Ataungo alkate zela, Erregearen aginduari kasu egin gabe, maisu bat ordezkatu beharrean aurkitu zenean, maisuarekin hitzartu aurretik, ikasle bakoitza hilean 1,50 pezeta ordaintzera behartu zuen.<sup>37</sup>



Julio Ibañez Cuñado maisuarekin, 1911n San Martingo mutilak. Eskerretik eskubira, goiko ilaran 2. Hilario Munduate (Ainberri), 4. Segundo Auzmendi (Iztator berria), 7. Jose Ramon Goikoetxea (Aldakio), 9. Esteban Barandiaran (Amilleta). 2.ilaran: 4. Jose Kerejeta (organista), Jose Felipe Auzmendi (Larburu). 3.ilaran: Jose Kruz Barandiaran (Baindi Txiki), eskuin aldean. 4.ilaran: Jose Maria Auzmendi (Larrazea), eta 8.Ramon Goikoetxea (Barberonea). Lurrean: 1. Pedro Munduate (Zubiaurre), eta 3. Esteban Urrestarazu (Aiztondo).

<sup>36</sup> AGG GAO: JD.IT.1834

<sup>37</sup>AUA: 505-03

Bide beretik, 1915eko uztailaren 5ean Udalak hartutako erabaki baten ondorioz, Elias Apalategi Beraza igeltsero jaunak, Aia auzoan eraikitako eskola berriarekin ase ziren auzotarren egarriak. Eskola berri hau, 1825ean suak erre zuen Eliza zaharraren hondakinen gainean eraiki zen, Villafrankako Antonio Agirre arkitektoaren proiektuaren eskutik.<sup>38</sup> Hala ere Aiako eskolaren arazoak ez ziren hemen bukatu eta 60ko hamarkadan ikusiko dugu emaitza.

Herritarrek ere interesa azaltzen dute eta hainbat donazio eta filantropia ekintza ikus ditzakegu. Esate baterako, Arrondo auzoko Aranburu etxean jaio zen Dolores Munduate Muxika andereak, San Martin auzoko mutilen gelarako horma-erloju bat oparitu zuen eta 1922ko azaroaren 20an egindako batzarrean, jokabide txalogarri honegatik bere esker ona agertu zion andere honi Ataungo Udalak.



Domingo Arce Martinez (Donostia) maisuarekin, 1914ean San Martingo mutilak.  
 Ezkerretik eskuinera: Goian: 1. Sebastian Erauskin (Sastegi), 6. Bizente Goikoetxea (Arizkorretanea)  
 2.ilaran: 5. Bizente Goikoetxea (Bidebieta), azkena: Teodosio Korta (Hospital).  
 3.ilaran: Domingo Bikuña (Agarre).  
 4.ilaran: 5. Jesus Lasa (Sakristaua), 6. Blas Kerejeta (Graziña zarra), Isidro Barandiaran (Donjuananea).  
 5. ilaran: Juanito Galparsoro (Atallu).  
 Lurrean eserita: Jose Maria Erauskin (Sastegi), eta 3. Pedro Irastorza (Arrateta).

<sup>38</sup> AUA: 517-02

En mi vida encontré muchísima gente que me apreció, me ayudó y me trató con normalidad. Pero también me encontré con personas que recelaban de mi capacidad y me hacían sufrir.

Pues bien, en Aia de Ataun, nadie, nunca, me hizo alusión a mi defecto físico.

Se fiaban de mí en mi trabajo, cuando llevaba a los niños a exámenes de Inglés de Bachiller a Donosti o a exámenes para Becas a Eolosa. (Luego el Bachiller lo estudiaban en la Academia ludaneta de Ordizia).

Se fiaban de los planes que les proponía...

En fin, que me sentía muy valorado.

Y todo hecho con cariño y respeto.

Desde estas líneas y en esta ocasión tan inesperada para mí a esta edad, quiero agradecerles a todos los atarras aquella acogida que tuve y lo feliz que me hicieron.

También me alegra tener ocasión de agradecer al Ayuntamiento de Ataun su buena acogida y la respuesta que encontré en todo momento. Me ayudaron en todos mis problemas y necesidades escolares.

Mi recuerdo para el alcalde, Estanis Gorronoro, para el secretario Eustakio Frusta y para Jose Guarejita que temblaba cuando aparecía por el Ayuntamiento porque...

como él decía, siempre iba a pedir. (4)  
 No olvido a los concejales sobre todo a  
 Martín Aremendi y Bionte Urdangarín  
 del barrio de Aia y a Francisco Aguirre  
 concejal de S. Martín, siempre dispuesto  
 a solucionar los problemas.  
 Y un recuerdo también a Pedro José.

Cuando llegué a Aia me hospedé en  
 JUSTA-ENEA (el BAR y pensión del barrio)  
 Isabel Eskordia, Pío Imaz y su cuatro hijos:  
 Jere, Elias, Justato (q.e.p.d) y Triaki, también  
 fallecido, fueron mi familia durante  
 dos años. En este tiempo construyeron un  
 piso sobre lo que era la escuela, que a  
 mí me pareció una preciosidad. ¡Y lo era!  
 Allí viví los otros 7 años que pasé en el barrio,  
 sin olvidar lo ~~lo~~ bien que había estado  
 con la familia Imaz y agradeciéndoles  
 lo bien que se portaron conmigo durante  
 los otros más que estuve allí. Total 9 años.

Otra casa que me cobijó fue Kaxeta.  
 Los sábados en la "BERGARESA" (autobús  
 de Eibar a Pamplona y viceversa) me  
 trasladaba a Zumarraga para pasar  
 el Domingo con la familia. El Lunes  
 volvía de nuevo a Aia y por los horarios  
 del autobús no hacíamos clase por  
 la mañana de ese día sustituyéndola  
 el jueves por la tarde que en aquel entonces  
 se hacía fiesta. El cambio lo hice  
 con permiso de la Inspección.  
 Al llegar de vuelta el Lunes llegaba a  
 Kaxeta sobre las diez de la mañana y  
 me acogida por la familia Jaurigi-Abalategi

hasta que iniciaba el ascenso a pie (1 Km, 700 ms) al barrio. O me salían en coche o moto uno de los cuatro médicos que conocí allí, o el practicante, pero el que lo hacía casi siempre era Cayetano Gorroñero (el paradero de S. Gregorio) y también después su hijo Inarito. Entonces y muchos años después, como BAR, RESTAURANTE y PENSION que ha sido, conocí a arrieros y camioneros que paraban allí. También a viajeros que se detenían a comer o tomar algo. La parada en Kaxeta al subir y bajar al o del puerto de Lizarrusti va obligada. ¡Genial a Marcos, Adelita y sus seis hijos!

También fui acogida en muchos de los caseríos que pude visitar. Por mi problema físico que ya he citado, no pude llegar a todos.

No puedo dejar sin destacar la suerte que tuve con el Párrico que teníamos en Aia y que se hospedaba en Kaxeta. Todos estos años fue D. Luis Irigoien. Persona de un gran carisma. Me ayudó mucho a conocer y entender al barrio, a sus gentes y me dio ánimos en mis dificultades. Realizamos todas las actividades catequístico-escolares de perfecto acuerdo, con que me animó y fue en beneficio de la labor por la educación del barrio.

El nos dejó hace 25 años; se fue al Cielo.

¡Eso seguro!

Pero desde este libro los aitarras le damos un abrazo.

(5)  
 y no quiero dejar sin mandartes  
 más abrazos a todos aquellos que entonces  
 estuvieros con nosotros y también se fueron  
 al Cielo, entre ellos alumnos y alumnas:  
 Iratxe Irujo, Justa Irujo, Patxikito Juaristi  
 Conxite Agirre, Michel Auzmendi y  
 Juanxio Begiristain.

Para todos estos y los aitas-amas, aitoras  
 y amonas, osabas-isebas que se nos han  
 ido (y el niño de Lourdes y Miguel) muchos  
 muchos besos.

Quiero recordar también a los compañeros  
 y compañeras que tuve durante mi  
 vida en Ataun.

En S. Martín estaban al llegar yo:  
 M<sup>ra</sup> Carmen Lasiabarrera y Antonio Arteaga.  
 Más tarde los sustituyeron:  
 M<sup>ra</sup> Rosario Magurusa Fargita, Ana Euda  
 e Imael García.

En S. Martín Gregorio: Sabina Zurutza  
 y Martín Arratibel. Más tarde fue  
 Bayetano Martínez.

En Egoiena, al llegar yo, había una  
 maestra cuyo nombre no recuerdo y no tuve  
 ocasión de tratarla porque enfermé y fue  
 como sustituta suya Arantxa Magurusa Fargita  
 hermana de Rosario Magurusa, que he citado  
 como maestra de S. Martín. Luego  
 llegó Socorro del Barrio, conocida de la  
 Escuela de Magisterio, y también, como  
 he citado al comienzo, fue a Arondoa:  
 Conxita Iparraguirre  
 De todas tengo un gratísimo recuerdo.

y en S. Gregorio también estuvo S. Avelin Jurgón hermano de  
 S. B. Luis, Perico de Aia. Otro sábado.

Nuestra relación fue muy buena  
 y nos ayudamos y alertamos mutuamente  
 La distancia de carretera no eran  
 obstáculo para reunarnos cuando era  
 necesario. Varios se fueron también al Cielo.  
 Rosario ingresó Religiosa de la Caridad.  
 Reside en el Geriátrico de Arkoitia

Nos vimos el Lunes de Pasqua  
 Para todos y va mi cariño. (A la familia en el)  
 Conoci a muchos sacerdotes. Durante mi  
 estancia en Aia le hicimos un homenaje  
 a Ataun por ser el pueblo de Euzkadi que  
 mas vocaciones religiosas había dado.  
 Cuando llegue a Aia había un grupo  
 de seminaristas. ¡Epa Txikos!

Frontxo Auzmendi, Peio Aguirre, Manuel  
 de Arteste, Unai Gorronso y Lukas  
 Gorronso que acababa de ordenarse  
 sacerdote. Más tarde asisti a la Primera  
 Misa de S. Frontxo (A) en Salado para todos.  
 También conoci a S. J. Miquel Barandian.  
 En mis viajes en la "Borgalesa" coincidíamos.  
 El subía en S. Gregorio para ir a dar clases  
 a Pamplona, los Lunes. El Sábado al  
 volver de Pamplona volvíamos a veros.  
 Me parece un honor haberos conocido y  
 verlo tan activo.

En S. Gregorio estaba S. J. Domingo Arin a  
 quien yo conoci siendo niño en Zumarraga.  
 Recuerdo muy agradecida a los cuatro médicos  
 que conoci y me atendieron: S. J. Manuel,  
 S. Angel, S. Eusebio y S. Jesús, y al Padreante  
 S. Miquel

Seguía hablando de Ataun. Es un  
 pueblo al que quiero y aprecio mucho.  
 Para todos, saludos y mi agradecimiento

Oraxeli

AGRADECER ESTOS DATOS EN SU  
NÚMERO CORRESPONDIENTE

- ① Al hablar de mis compañeros y compañeras en Ataña, quiero recordar a las que me precedieron y siguieron en Aia.
- Muy recordada era Irene Arriagi que estuvo durante 16 años, unos cursos antes de llegar yo. También me hallaban de Eudora Correo, de Ma Luisa, de Conchita en los años 50 y 51. De M<sup>te</sup> Dolores Allida q quien conoció lo jovenite por sus visitas a Zumarraga, a casa de su primo: el sacerdote S. Anastasio Arinda, y yo llegué... a sustituir a Hermelinda Llamany, cuya huella me quedó muy próxima en los archivos y registros escolares y en el recuerdo de todos... la de Bernarda (cuyo apellido no recuerdo) que le hizo una sustitución a Hermelinda. Después de trasladarme a Zumarraga ejercieron allí:
- Rosa M<sup>te</sup> Zubero, la cual me imitó a su casa (que había sido la mía) e hicimos muy buena amistad.
- Siguieron: M<sup>te</sup> Dolores y Carmen y después Marisa Martínez, que pasó a trabajar en San Martín.

Este colocarlos después de la palabra...:  
 Análisis, ~~comité~~ con el ③

③ Además de los citados conocí en Aia a los sacerdotes:

D. Juan de Feixkovrea que ejercía en arona y falleció en un accidente

a D. Pedro Beguirain del caserío Iberrondo y fallecido hace dos años.

a Don J. Aguirre que ejercía en Lekio; un de Olatea.

En el caserío Erulea tenían dos hermanos de Lasalle.

Uno de ellos Holaris que falleció bien joven. y su tío, D. José Ignacio Zumutua, sacerdote en Ordizia.

Conoci, por el recuerdo que dejó en Aia, a Don Jesús Sorrosoro, al que tuve ocasión de saludar.

Cambiar dejó un gran recuerdo D. Luciano Aldabes a quien no conocí porque falleció en un accidente de moto el mismo verano que yo fui a Aia, y estando ejerciendo su sacerdocio fuera de este barrio.

Y desde Zumarraga le mandé un saludo a D. Juan Lekuona al que tuve ocasión de conocerle en mis sucesivas visitas a Aia, en la año que él ha estado allí, después de salir D. Luis.

Un recuerdo para Pedro José (de el TALLER de S. Martín) que también le conocí por sus visitas a Ataur.

Os añado estos apuntes para que los introduzcáis a continuación de la señal con números rojos

Me da pena fallar con algunos, pero vosotros decidiréis lo que os interesa poner.

Araxli

Para los amigos de la COMISION autora  
del LIBRO DE ATAUN

Me siento muy feliz de poder aportar  
datos sobre mi estancia en Aia de Ataun,  
para el libro que deseais editar sobre  
este pueblo. Me emociona poder hacerlo  
después de tantos años de mi "paso" por  
la sierra de Axalar y sobre todo a  
esta edad. Casi 79 años. Bani... no me  
pillais.

Lamento hasta el infinito no hacerlo en  
Euskera. En Aia me mentalicé con la  
necesidad y obligación de aprender nuestra  
Lengua y me metí de lleno en ello.  
Llégui a defenderme hablando. Pero no  
me siento capaz de escribir todo lo  
que quiero decir.

Sin embargo, espero que mi colaboración  
sea útil.

Me he volcado a decir todo lo que  
siento. Quizá preferís que di los datos  
a modo de estadística. Vosotros ponedlo  
como más os interese. Yo lo he escrito  
con toda la ilusión.

Muchas gracias por acordaros de mí

Dirazeli

2008 - María Ina Apineta

## LIZARRUSTIKO ESKOLA

Lizarrusti ingurua, gaur ez bezala, XX. mendearen erdi aldera familia ugari osatutako auzune bat zen, ume ugariarekin gainera. Izan ere bertako baso eta artzantza edota baserri jarduerari Quimica Forestal S.A. (QUIFOSA) lantegiak mugimendu handia sortu zuen inguruan eta langile auzo xume bat ere sortuz lantegiaren alboan. (Han daude oraindik ere fabrikaren aurriak errepide bazterrean).

Gauzak honela, 1941eko irailaren 11n, Nafarroako Irakaskuntzako Ikuskari jaunak, eskutitz bat zuzendu zion Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu nagusiari.

Idatzi honek zionez, eskola berri baten beharra ikusten zuen Lizarrusti gainean eta prest zegoen Nafar aldeko lur-zoruan eraikuntza berri bat egiteko. 40 haurrentzako gela eta irakaslearentzat etxe bizitza baten beharra aurreikusten zuen.

Eraikuntza berriaren balioa, 55/60.000 pezeta (360,60 euro) ingurukoa izango zen eta bere ustez, Nafarroako Foru Aldundiak, Gipuzkoakoak, Quimica Forestal lantegiak eta Etxarri Arantzeko Udalaren artean ordain zezaketen.<sup>51</sup>

Arrazoi desberdinengatik asmo hauek ez ziren aurrera eraman eta 1950ean, Lizarrustiko Mikelete eta Arbitrio etxean, bertako eta inguruko haurrak eskolaratzeko gela bat prestatu zuten.

Baldintzak ordea ez ziren hoberenak izango eta 1951n, Nafarroako mikelete zen, Franzisko Ijurko jauna, Lizarrustiko Batzordearen izenean, diru laguntza eske agertu zen Ataungo udaltxera. Gaiari buruz argitasun batzuk jaso ondoren, maistrak izendatuta zeukan soldataz gain, urtean 2.000 pezetako (12 euro) laguntza eskaini zuen Ataungo Udalak.

Gipuzkoako eta Nafarroako mikeleteen, QUIFOSA lantegikoen eta Bekola baserrira arteko haurrak etortzen ziren eskola honetara.

Hona hemen, 1954/55 ikasturtean eskola honetako ikasleen zerrenda:<sup>52</sup>

### **Ataungoak:**

Jose Ramón eta Migel Anjel Mintegi  
Juan Maria, Migel Maria eta Jesus Maria Ijurko  
Maria Josefa, Maria Teresa eta Ana Maria Auzmendi  
Maria Fernanda Martinez.

### **Etxarri Arantz:**

Maria Pilar, Juan José, Franzisko Xabier eta Maria Karmen Berastegi  
Maria Lourdes Pascual  
Maria Teresa eta Fermin Lakunza.

<sup>51</sup> AGG-GAO-JD.IT:1455/1987; AUA: 507-03

<sup>52</sup> AUA: 615-01

**Unanuakoak:**

Maria Pia, Jose Inazio eta Maravillas Navarro.

Eskola hau 60ko hamarkadaren bukaeran itxi zen.

**GABRIELENEA, GABILLENE**

1953an, gerora Ataunentzat eragin handia izango zuen aldaketa nagusi eta nabarmena gertatu zen. Aldaketa honen eragilea, Gabilleneko D. Juan Barandiaran Zeberio (1872-1953) apaiz jauna izan zen eta berak 1953ko apirilaren 30ean egindako testamentua. Agiri honetan, bere ondasun guztiak, Fundazioa sortu ondoren, Ataunen irakaskuntza katolikoa eratu ahal izateko utzi zituen.

**JUAN JOSE BARANDIARAN ZEBERIO**

**Don Juan José de Barandiarán y Ceberio**

**PRESBITERO**

**Coadjutor, Fundador, Veterano y Capellán de la Adoración  
Nocturna de San Martín de Ataun, Socio del Apostolado  
de la Oración, Rosario Perpetuo y de María Reparadora**

*Astigarraga auzoko Gabriel enea etxean jaio zen 1872ko abenduaren 28an. Bere gurasoak, Bedamako Francisco Antonio Barandiaran eta Lazkaoko Francisca Antonia Zeberio Mugarza ziren. Beste lau senide zituen: Antonio, Jose Kastor, Luis Antonio, María Dolores eta bera baino gazteagoa zen León Francisco.*

*Ikasketak Gasteizko Seminarioan egin zituen, 1898an presbitero ordenatu zen eta bi urtez Deban egon ondoren, 1900ean Ataungo San Martín Parrokiarako izendatu zuten.*

*Jaiotetxean biziz, 53 urtez apaizgintzako eginkizunak beteaz jarraitu zuen, 1953ko urriaren 30ean hil zen arte.*

*León Francisco izan ezik, gazterik hil zirenez beste senideak, anaia honekin eta bere emazte Franzika Apalategi Altolagirre anderearekin bizi izan zen.*

*Senar emazte hauek ez zuten ondorengorik eta Doña Franziska alargun gelditu zenean, bere kuinatu Don Juanekin jarraitu zuen bizitzen, Isabel Galparsoro Zeberio zerbitzariaren laguntzarekin.*

*Ondasun askoren jabea izanik D. Juan, bere testamentuan, jaiotetxea eta beste ondasun guztiak Ataungo herriarentzat utzi zituen.*

*Jokabide eskuzabal honen ondorioz, gure herriko irakaskuntza arloa, bide berri batzuk urratzen eta bideratzen hasi zen.*

*Inoiz ordainduko ez dugun jokabide hura, apal eta xume baldin bada ere eskertu nahi dugu hemen.*

*Ataungo herria Don Juan Barandiaranek izan zuen jokabidearekin betiko zorretan izango da.*

*“El testador impone la obligación de destinar la casa Gabriel enea y todos los bienes, en la Fundación de una casa de Enseñanza católica a los niños y niñas del pueblo de Ataun o de otros pueblos que quisieran acudir, facultando para que con excepción de la casa Gabriel enea, venda toda clase de bienes, cuyos importes continuarán adscritos como capital a los fines de la Fundación”* <sup>53</sup>

<sup>53</sup> Don Juan Barandiaran Zeberioaren testametu.

Hona hemen aipatutako apaiz jaunak, herriarentzat utzitako ondasunen zerrenda:

- Gabriel enea etxea bere lurrekin.
- Amuñain Garakoa baserria bere lurrekin.
- Urdarano baserria eta bere lurrak.
- Apalategi aurreko baserria eta lurrak, Lazkaon.
- 193 akzio Iberduero S.A. renak.
- 1.548.000 pta. (9.303,67 euro), Aurrezki Kutxa Probintzialean.
- 246.850 pta. (1.483,60 euro), Aurrezki Kutxa Munizipalean.
- Dirutan: 150.000 pta. ( 901,52 euro).

Amuñain garakoa, Migel Agirre Etxabe jaunari Merzedariak alokatu zioten, 21.013 pezetako (126,29 euro) urteko errentaren truke.



Gabil-enea etxea, 1956an Merzedariaren eskolotako eraberritua.

Urdarano baserria, berriz, aurretik Jose Imaz jaunari alokatuta zeukan D. Juanek eta urteko errenta 2.140 pezeta (12,86 euro) ordaintzen zuen. Lazkaoko Apalategi baserriak aurrean zituen 7.843,78 m<sup>2</sup> lur-sailak, bertako Udalari saldu zioten Merzedaria lekaimiek, 1.300.000 pezetatan (7.813,16 euro).<sup>54</sup>

<sup>54</sup> Ordainketa honela egin zen: 100.000 pezeta (601,01 euro), eskriturak izenpetzean, eta gainerakoa, hilerio 125.000 pezeta (751,27 euro), eta korrituak, % 5ean.

Sortu behar zen Fundazio horretaz arduratzeko, hiru lekaime kongregazio izendatu zituen:

- Jesusen alabak lekaimeak.
- Merzedariak lekaimeak eta
- Karmelitak lekaimeak.

Lehenengoa onartu ez eta orduan bigarrenei eskaini behar izan zitzairen. Hauek ontzat hartu zuten eskaintza eta prest agertu ziren Atauna etortzeko, gutxienez hiru lekaime tituludun izateko hitza emanez. Ondoren, Gabillene etxea, irakaskuntzarako prestatu beharra zegoen eta Udalak Jose Maria Bikuña Munduate jauna alkate zela, 1955eko maiatzaren 19an egin zuen Batzarrean, lanak bere gain hartzea erabaki zuen. Prestaketa lanak, Juan Migel Arruabarrena Etxeberria "Koai" eraikitzaileak egin zituen eta 250.000 pezeta (1.502,53 euro) kostatu zen.<sup>55</sup>

1956ko uztailaren 15ean, Gipuzkoako Gotzain jauna zen Jaime Font y Andreuk inauguratu zuen ikastetxe berria, Garicano Goñi Gobernadore Zibila ere bertan zelarik. 1956/57 ikasturtean ekin zioten Merzedaria lekaimeek euren jardunari, *Jesusen Bihotza* deiturarekin ezagutu zen ikastetxean. Horretarako gutxienez hiru tituludun bertan egoteko hitza emana zutenez, honako hauek etorri ziren lehenengo urtean:

- |                            |                            |
|----------------------------|----------------------------|
| - Sor Maria Elena Segurola | Asteasukoa                 |
| - Sor Zezilia Korta        | Ezkiogakoa                 |
| - Sor Josefa Anda          | Ejea de los Caballerosekoa |

Gero,

- |                               |               |
|-------------------------------|---------------|
| - Sor Benita Urrutia          | Eskoriatzakoa |
| - Sor Piedad Lopez Dicastillo | Mendazakoa    |
| - Sor Teresa Monreal          | Fustiñanakoa  |
| - Sor Maria Rita Zubeltzu     | Ibarrakoa     |
| - Sor Maria Rosa Letona       | Arrasatekoa   |

Harrera ona izan zuten eta segidan herriko haur gehienak eskola honetan matrikulatu ziren (110 haur inguru). Eskola hau zazpi urtera arte, parbulorioan mistoa bazen ere, handik aurrera neskontzat bakarrik zen. Berehala konturatu ziren lekaimeak, leku falta zutela eta kongregazioko buru zenarekin hartu-emanak izan ondoren, 1958an Udalera agertu zituzten eraikuntza berria egiteko proiektua eta asmoak. Ez ziren ordea asmoak gauzatu.

<sup>55</sup> D. Juan Barandiaran jauna bere koinata Franziska Apalategi Altolagirre (León Barandiaran Zeberio jaunaren alarguna) andrearekin bizi zen, eta honi hil bitartean hilean 2.000 pezeta (12 euro) ordaintzeko konpromisoa hartu zuen Udalak. Hauen zerbitzari izan zen Isabel Galparsoro Zeberio andereari, berriz, eguneko 15 pezeta (0,09 euro) ordainduko zitzaion bizi zen bitartean.



1957an. Gabillenen Merzedaria lekaimaekin.

Ezkerretik eskuinera, goiko ilaran: Mercedes Vitores (Iturralde), Arantxa Aizpurua (Lizarmuntegi), Maria Jesus Munduate (Ubarri), Lourdes Etxeberria (Barberoetxezar), Maria Luisa Barandiaran (Tabla), Montserrat Mujika (Arzuloa), Begoña Munduate (Taberna etxe berri), Arantxa Zurutuza (Juanikonea), Txarito Irusta (Ubarri), Mari Kontxi Auzmendi (Graziña zarra), Maria Dorronsoro (Hiru bideSG), Kontxita Bikuña (Agarre), Arantxa Erasusin (Etxe alai), Pepita Goikoetxea (Arizkorretanea), Rosario Urdangarin (Bonea) eta Teresita Larrea (Angulonea).

2.ilaran: Luisa Zurutuza (Anbunea), Maria Jesus Auzmendi (Arresenea), Maria Jose Imaz (Kotxera), Maria Isabel Lizarazu (Arrizabalaga), Maria Rosario Auzmendi (Etxe txikia), Iñasita Dorronsoro( ...), Maria Luisa Urrestarazu (Arresenea), Julita Insausti (Goikoetxea enea), Feli Goikoetxea (Dornarinea), Josefa Urdangarin (Urdangarin gkoa), Jesusa Bikuña (Agarre), Arantxa Dorronsoro (S.Gregorio txikia), Maria Eujenia Dorronsoro (HirubideSG), Maria Luisa Gomez (Iturriza berria), Koro Dorronsoro (Arresenea), Pilar Goikoetxea (Dornarinea), Dolores Sukia (Aralegi) eta Pili Barandiaran (Saletxeberria).

3.ilaran: Maria Dolores Agirre (Kerejeta lantegiak), Maria Asun Bikuña (Okaraiziti), Maria Asun Goikoetxea (Dornarinea), Mikaela Sukia (Aralegi), Ana Maria Barandiaran (Aiezio), Ana Maria Urdangarin (Bonea), Maria Isabel Auzmendi (Graziña zarra), Maria Teresa Auzmendi (Graziña zarra), Maria Karmen Apalategi (Imaz berria), Arantxa Goikoetxea (Ermentaria), Maria Anjeles Garziandia (Bidarte aundia), Maria Jesus Apalategi (Munduate), Alizia Mujika (Anbunea), Maria Karmen Urdangarin (Bide gain), Mari Sol Galparsoro (Elormendietxe) eta Arantxa Barriola (Bidarte).

4. ilaran: Josefa Ramos (Santiago txikia), ezezaguna (Etxe alai), Pepita Calvo (Dupalea), Maria Karmen Goikoetxea (Dornarinea), Remedios Urdangarin (Bonea), Juanita Mujika (Arzuloa), ezezaguna; Maria Anjeles Zurutuza (Juanikonea), Nekane Urdangarin (Olaluzeaga), Dionisia Mujika (Anbunea), Maria Rosario Auzmendi (Goikoetxea enea), Belen Urrestarazu (Barberonea), Maria Karmen Auzmendi (Arresenea), Esperanza Barandiaran (Donjuanenea), Konsuelo Barandiaran (Aiezio), Josefina Oiarbide (Iturralde), Izaskun Munduate (Taberna etxe berri), Jesusa Urdangarin (Aldarreta gkoa), Maria Ines Arruabarrena (Anbunea) eta Juanita Urdangarin (Olaluzeaga).

Lurrean eserita: Maria Nieves Goñi (Iturralde), Margarita Urdangarin (Aldarreta azpikoa) ezezaguna, Korona Fernandez (Santiago txikia), Maria Anjeles Garmendia (Iturralde), Maria Luisa Mentxaka (Taberna etxe berri), Juan Goikoetxea (Dornarinea), ezezaguna, Jon Etxeberria (Barberoetxe zarra), Rufino Larrea (Angulonea), Jesus Aizpurua (Zaindegia), Maria Jesus Mendizabal (Anbunea), Jose Luis Martin (Dupalea), Juan Jose Urdangarin (Santiago), Jose Urdangarin (Bide gain), Jose Maria Mendizabal (Anbunea) eta Ebaristo Mujika (Urkuola).

## GABILLENKO MOJAK

Oso ume ginen garai haien oroimenak ez dira inoiz burutik erabat joaten. Gelditzen diren arrastoak, batzuk onak dira, beste batzuk txarrak. Onen artean mojen jantziak ziren, dena zuria zen, goitik beheraino (zapata beltzak eramaten zituzten, hori bai), guk ere bagenun gurea, mantal zuria, "Sagrado Corazón" eskudotxo batekin, ezker aldean. Eskola polita zen, handia, miradore polit bat zuen eta patio handi bat jolasteko. Gelatan mahai handi batzuk zeuden, bereziak, irekitzen zen estali batekin, bere txulotxoarekin, tinteroak sartzeko?. Ume asko elkartzen ginen ordun, lagun asko egin genituen, betirako lagunak. Ikasi ere zerbait ikasiko genuen. Batzuk gehiago beste batzuk baino, noski. Baina aukera ona izan zen mojak Atauna etortzea, 3 urtetatik hasita, urtez urte, hezten joan ginelako. Nire ahizpak esaten dit bera oroitzen dela maila guztietan entziklopedi berdina erabiltzen zela, Enciclopedia Álvarez. Erdaraz ere ikasi genuen, zer erremedio. Guk Astiarran, lagunaren artean erdaraz hitz egiten bukatu genuen urte haie-tan. Nire amak, gogoratzen naiz nola esan zidan egun baten, zuri umea euskaraz hitz egiten ahaztuko zaizu. Oroimen txarrak ere asko dira, nireak edo beste batzuenak. Oso gogorrak ziren, zumaikarekin eskuan ematen zizuen edo belarritik tira egin zintzilik jarri arte. Nere anaia igande arratsaldean zinera joan beharrean eskolan egonda dago zigortuta. Gela ilun bat zegoen, "El cuarto de los ratones" esaten zioten.

*Matxus Auzmendi Muxika (Ikaslea)*

## SAN GREGORIOKO ESKOLA

Auzo honetan auzoguneko eskola Elizondo etxean kokatua zegoen. Baina XX. mendearen erdian leku eta baliabide egokiagoak behar zituzten. 1961ko azaroaren 11an, Ataungo Udalak, hiru gelako eskola berria eta irakasleentzat beste hainbat etxebizitza San Gregorio auzoan eraikitzeke enkantea egin zuen eta Juan Migel Arruabarrena Etxeberria Koa eraikitzaileak hartu zuen, 731.571,14 pezetatan (4.396,83 eurotan).

Eraikuntzaren arkitekto zuzendaria Joakin Irizar jauna izan zen. Aparejadore lanetan, berriz, Beasaingo Gonzalo Arizmendi jauna aritu zen. Lan guztiak bukatu ondorengo likidazioak, 1.148.096,34 pezeta (6.900 euro) suposatu zuen. 1963an, inauguratu ziren eskola berri hauek, eta egoitza zaharrean eskolaratuta zeuden haurrak, berehala pasa zituzten eskola berrietara.

Eskola hau 1980 urtean itxi zen, ikasleei Lazkaoko eskolan jarraitzeke proposamena eginez.



1963an, San Gregorioko eskola nazional berriak.

## SAN GREGORIOKO ESKOLA

*5 urterekin hasi eta 12 urtera bitarte San Gregorioko eskolan ibili nintzen, 1955etik 1962ra. Garai hartan, eskolaratzeko adina zuten neska guztiak Elizondo etxeko lehen so-lairuan genuen gure gela, mutilak berriz behekoan.*

*Gure maistra Sabina izan zen. Ez dakit zenbat ikasle egongo ginen gela hartan baina gogoan dut txikiak aurrean egoten zirela. Tapa altxatzen zitzaaien pupitreak zeuden, tinta edukitzeko ontzia zuloan eta beste erreten txiki bat bezalako arkatzak edukitzeko. Ikasle batzuk oso urrutitik etortzen ziren. Bazkaria etxetik ekartzen zuten eta hainbat fa-miliarteko edo familiaren lagunen etxeetan bazkaltzen zuten.*

*Erdaraz egin beharra izaten genuen. Bi marraren artean idatziz, kaligrafiak ohikoak ziren. Diktaketak ere, erdaraz izanik, askotan gehiegi ulertu gabe, ugariak ziren eta mais-*

*trak zuzendutakoan akats bakoitza 10 edo 20 aldiz kopiatu beharra izaten zen koadernoan. Garai hartan ikasitako preposizioak, oraindik ere gogoan ditut. Erdi abestuz ikasitako taulak oraindik ere biderketak egiteko balio didate.*

*Denboraldi batean hautsarekin egindako esnea ematen ziguten edateko eta beste bolada batean kolore horia zuen gazta ere bai.*

*Errekreoak aidean pasatzen zitzaizkigun. Ordu hortan, gehien bat, poteketan ibiltzen ginen. Karreteran ere txingoan majina bat aldiz ibilitakoak gara. Hauxe gain, kromotan, arbolaketan, kaniketan, tabatan, intxaur garaian punttuan eta plottean; frontoian pilotan ibiltzen ere zaleak ginen. Egia esan ez genuen aspertzeko betarik.*

*Ikasturte bukaeran gustura joaten ginen txango, gehienetan kosta aldera: Donostiara, Loiolara, Zumaiaara. Guretzako egun oso berezia izaten zen izan ere garai hartan ez ginen gurasoekin oporretara eta egun pasa joaten.*

*Eskolatik ateratakoan zuzenean elizara, dotrinara. Batzuk kalustran eta besteak elizan.*

*Komunio txikirako ez bazen komunio handirako prestatzen.*

*Tere Dorronsoro (Ikaslea)*

## SAN MARTINGO ESKOLA

San Martingo auzoan aurrez Astigarragan eskolak izan baziren ere XX. mendeko 50eko hamarkadan Arrondo eta San Martingoak ziharduten. 60ko hamarkadan jaiotza tasa erabat igotzeaz gain etorkin ugari etorri zen gure herrira. Honela ulertzen da 1964an Guraso Elkarteak egindako txostena. Bertan San Martin auzo osoan 6tik 13 urte bitarteko 266 ume batzen zirela dio. Honen aurrean 7 irakasleren beharra ikusten zuten. Kontuan izan behar da urte haietan Parbulario bat eta neskentzako gela bat eta beste bat mutilentzako bakarrik zutela eskola nazionaletan.<sup>56</sup> Aurreikuspenak oparoak ziren, baina gauzak aldatu egin ziren nonbait eta 1968an Parbularioa edo Eskolaurrea kendu egin zuten eta oso ikasle gutxi gelditzen ziren, 15-20 ikasle inguru zituzten beste gelek. 1971. urtean bi gela hauek euren irakasleekin Patronatora pasa ziren.

<sup>56</sup> PATRONATO SAGRADO CORAZON-eko ARTXIBOA. Estudio efectuado por la Asociación de Padres de Familia sobre la necesidad existente en aulas y profesorado para la enseñanza primaria de Ataun. (1964ko abenduaren 5a)

*Orain dela 41 urte Ataungo San Martinera iritsi nintzen (Santa Marinaran 2 ikasturte eta Zumarragan ikasturte bat lanean aritu ondoren).*

*Eskola, eliza ondoan kokatua zegoen, 2 irakasle besterik ez ginen, Demetrio mutilekin eta ni neu neskekin. Ez naiz ondo gogoratzen zenbat mutil ziren, baina neskek bai 14 edo 15 bakarrik, monjeetan gehiago baitzeuden, adin ezberdinetakoak ziren haur hezkuntzatik 14 urte arte hain zuzen ere.*

*Mediorik ez geneukan, bakarrik arbela, klariona, mapak, testu liburuak (nahiko erakargarriak) eta irakurtzeko liburu batzuk, baina nahia bai eta lanean aritzen ginen gogoz eta ilusioz.*

*Funtzionamendua "Unitariak" delakoena zen. Txikiek asko ikasten zuten zaharrenekoei, egiten zutena, entzuten eta ikusten eta besteek txikiei erakusten.*

*Giro polita geneukan neska eta mutilen artean, nahiz banatuta egon atsedenaldi askotan elkartzeko ziren eta futboleko, sokasaltoan, eta abar jolasten zuten elkarrekin.*

*Monjek 1970-71 ikasturteko bukaeran erabaki zuten Ataundik alde egitea. Une horretan sortu zen Patronatoa, bertan elkartu ginen Ikastola eta San Martingo hiru gelak.*

*Antolamendua erabat ezberdina izan zen, niri tokatu zitzaidan 3. mailako 31 ikasleko talde zoragarri bat, oso txintxoak eta langileak.*

*Medio gehiago ere bageneukan. Gogoan daukat oraindik ere "Multikopista" ospetsu hura, eskuz betetzen genituen kalkoak arkatz puntadun batekin eta gero kopiak ateratzen genituen eskuz bultzatuz.*

*Irakasleok lan handia egiten genuen zeren testu libururik ez zuten ikasleek erabiltzen, eta fitxak berriz ondo prestatuak. Horretarako testu liburu desberdinak genituen eta ondo aztertu eta antolatu ondoren, martxan jartzen genuen fitxa delakoa. Horrela egiten genuen bai matematikan, gizartean, hizkuntzan, gartzelarian etab.*

*Nahiz klaseak gartzelaniaz eman, ikasleak euskara lantzen hasi ziren gelan sartzen zen beste irakasle batekin, garai hartan nik eta beste biek euskara ez genekielako. (Gu geu ere euskara ikasten hasi ginen ordutegiz kanpor Maria Karmenekin),*

*Asko gogoratzen naiz marrazketa orduan zein lan politik egiten genituen nik behintzat musika jartzen nien eta entzuten zutenarekin sentitzen zutena margotzen zuten eta benetan marrazki zoragarriak egiten zituzten. Eskulanetako orduan ere material ugari erabiltzen ziren.*

*Esperientzi aberatsa izan da niretzat Ataunen bizi izandakoa, bai eskolan, baita Patronatoan ere. Askotan gogoratzen naiz Ataungo ikasle eta irakasleetaz. Neska batzuek gainera Gabonetan gutuna bidaltzen jarraitu zuten.*

***Maria Carmen Yeboles Martinez (Irakaslea)***

## ESCUELA NACIONAL

1967 eta 1971 artean, lau ikasturte, San Martingo elizako kalostira gainean zen Eskola "nacionaletan" eman nituen, 6 urtetik 10 urte bitartera. Horren fede ematen duen "Libro de Escolaridad de Enseñanza Primaria", ikaslearen liburuan bertan, abizenak behar diren bezala idazten ere ez zuten asmatu ustez gu hezteko zeudenek eta "Begueristain Aizpurúa" bezala birbataiatu ninduten liburua azalean, eta gerora, urtez urteko irakasle desberdinek bere erara idatzita ditu nire izen-abizenak, liburuan zehar. Baina garai hartako nire esperientziaren bitxikeria bat baizik ez dut kontatuko hemen: Gabillenen, mojen eskolak jaso ondoren 6 urterekin aipatutako Eskolan hasi eta lehenengo kurtsoan, eskolara joan nahi ezta gertatu omen nintzen behin, gure amak kontatzen didanez:

"Ze pasatzen zitzaizun galdetu eta tabla ikasi eta segituan atzekoz aurrera esateko eskatu omen zizun maisuak. Logroñokoa zen, erdalduna, eta nik eskutik hartu eta behartuta eramant zintudan, ikaratuta zeunden eta. Maisuak galdetu zidan, ea zer pasatzen zen eta esan nion; erantzun zidan, erdaraz oso gaziki hitz egiten zenuela. Nik esan nion, gu euskaldunak ginela eta nola nahi zuen zuk erdaraz hitz egitea. Harrez gero bakean etortzen zinen".

Francisco Ruiz Nobajas zen gizona eta handik gerokoak amak kontatu beharrik gabe ditut ondo gogoan.

*Joxe Begiristain (Ikaslea)*



1961ean, San Martingo eskola nazionaletakoa ikasleak.

Ezkerretik eskuinera, goiko ilaran: Jose Antonio Garate (Juanikonea), Jose Luis Eskisabel (Andietxea), Maria Karmen Goikoetxea (Goikoetxea enea), Jose Begiristain (Dornarinea), Txema Rodriguez (Hirubide) Bixente Goikoetxea (Goikoetxea enea), .....Aizpurua (Lizarmuntegi), ezezaguna, Martin Sukia (Zubikoeta), Juan Migel Arruabarrena (Bordatxo) eta Ana Maria Fernandez (Santiagone txikia).

Beheko ilaran: Maria Luz Fernandez (Santiagone txikia), .....Moran, Jose Maria Begiristain (Andietxea), Niko Begiristain (Dornarinea), Maria Lourdes Goikoetxea (Goikoetxea enea), Jesus Maria Goikoetxea (Goikoetxea enea), Jose Martin Araneta (Donjuanene txikia) eta ezezaguna.



1969an, San Martingo eskola nazionalako neskak.

Ezkerretik eskuinera: Juana Mateo (Arzubia), Isabel Mateo (Arzubia), Dolores Mateo, ezezaguna, Raket Bilbao (Andietxea), Lourdes Herrero, Nekane Barandiaran (Zaindegi berri), Maria Carmen Yeboles (maistra) eta ezezagunak.

*Ataungo herrian, Arrondo deritzaion auzoan, hain zuzen ere 1957-1963 bitartean irakasle egon nintzen, 6 urtetan eskola publikoan klaseak ematen.*

*Nere egonaldia 1957 tik 1963ra arte da. Orduan San Gregorioko auzoan maisu-maestra D. Antonio Arteaga eta Maria Karmen Sasiambarrena zeuden. San Gregorion berriz, Sabina Zurutuza, Ergoienan Socorro del Caño eta azkenik Aian Araceli García.*

*Gogoan dut gela nahiko estua zela eta beraz, ikasleentzat zegoen tokia ez zen oso handia. Orduan, berogailua egurrez egindako suarekin zen eta horrekin berotzen genuen gure ikasgela.*

*Arrondoko gurasoak oso ondo portatzen ziren, Eskolako gibelean, hau da, atzeko partean enbor zatituak pilatzen zituzten bere haurrek hotzik pasa ez zezaten. Ondoa komuna zegoen, hau ere, gela bezela luzea zen.*

*Oraintxe gogoratu dut pasadizo bat Fidel Castrori buruzkoa. Urte haietan Fidel Castron Kubako askatasuna lortu zuen. Hemen eta Espainian oro har, jende askok alde egin behar izan zuen bere etxetik kanpora dena utzita. Hemen Euskalerrian batez ere, egoera oso latza izan zen*

*Ba egoera hau zela eta egun batean, hezkuntza-ikuskatzailea etorri zen. Bere izena Ana Maria zen, hurrei galdera batzuk egin zizkien, eta hauek erantzunak oso onak eman zizkien.*

*Galderen artean bat zegoen Fidel Castrori buruzkoa, ea ezagutzen zuten nor zen gizon hura. Ikuskatzaileak erantzuna berehala jaso zuen. Lehen esan dudan bezela, erantzun ona eta azalpen zabala eman zion mutil batek. Ez dut oso ondo gogoratzen, baina Oiarbide abizeneko mutil bat izan zela uste dut.*

*Hezkuntza-ikuskatzaileak hainbeste neska-mutil gelan ikusita eta gainera, hauek ikasteko eta gauzak jakiteko interes handia zutela ikusita, esan zidan gela hori ez zela egokia klaseak emateko. Hurrek beste gela bat merezi zutela eta berehala proposatuko zuela beste eskola bat eraikitzea.*

*Arrondoko oroitzapenak oso onak dira, gustoko lana izan nuen.*

**Kontxita Iparragirre Lasa (Irakaslea)**



1961ean, Arrondo auzoko eskolako ikasleak.

- Ezkerretik eskuinera, Goiko ilaran: Ramon Urdangarin (Auzmendi), Juan Urdangarin (Olaluzeaga), Jesus Gurrutxaga (Arin barbetxea), Josefina Oiarbide (Iturralde), Maria Anjeles Zurutuza (Juanikonea), Alizia Mujika (Anbunea), bi ezezagun eta Kontxita Iparragirre Lasa (maistra).
2. ilaran: Jose Migel Galparsoro (Urezandi), Pedro Maria Galparsoro (Urezandi), Lorenzo Aierbe (Eskisabel), Dionisio Galparsoro (Bonea), Benanzio Sanzol (Anbunea), Iñigo Agirre (Zapataria), Jose Luis Vitores (Iturralde), Luis Urdangarin (Olaluzeaga), Bizente Auzmendi (Etxe txikia) eta Jose Maria Auzmendi (Etxe txikia).
3. ilaran: Jose Maria Aierbe (Kamioa), ezezaguna, Juan Jose Aierbe (Eskisabel), Mila Ioldi (Zapataria), eta sei ezezagun.
- Lurrean eserita: Javier Vitores (Iturralde), Julian Gurrutxaga (Arin barbetxea), ezezaguna, Xabier Ioldi (Zapataria), Juan Maria Sanzol (Anbunea), Jose Urdangarin (Olaluzeaga), Pedro Galparsoro (Bonea) eta Iñaki Eskisabe (Espilla).



1965ean, Arrondon Kamio etxeko eskolako ikasleak.

Ezkerretik eskuunera,

Goiko ilaran: Pello Zeberio (Erreka ondo), Esteban Maiza (Lizarburu), Franzisko ..., (Santiago txikia), Jose Maria Aierbe (Kamioa), Jose Antonio Luazes (Iturralde), Juan Aizpurua (Lizarmuntegi), Maria Anjeles Angulo Goikolea (maistra), Jesus Maria Munduate (Erzillegi), Juan Maria Mujika (Kantxillu), Joanito Martin (Andietxea), Manuel Martinez (Etxe txikia), Anjelito (Iturralde), Jose Garmendia (Zubimusu), Paskual ... eta Jose Goikoetxea (Arzuloa).

2. ilaran: Juan Mendizabal (Anbunea), ezezaguna, Saturnina Martin (Etxe txikia), Anjelita Martin (Etxe txikia), ezezaguna, Juan Jose Aierbe (Eskisabel) eta Felix Etxeberria (Dornarinea).

Beheko ilaran: Iñaki Arratibel (Anbunea), Juan Migel Arruabarrena (Bordatxo), Joseba Etxeberria (Bazterrika), Mikel Maiza (Lizarburu), ezezaguna, Jose Maria Begiristain (Andietxea), Tomas Urdangarin (Lopetxea), ezezaguna, Jose Antonio Rodriguez (Anbunea), Jose Maria Barandiaran (Aiezio), Jose Luis Eskisabel (Andietxea), Fermin Aierbe (Kamioa) eta Luzio Goikoetxea (Iturtxo).

#### **4.4 Frankismoaren azken hamarkadak**

60 eta 70eko hamarkadak erabakigarriak izan ziren Ataunen. Industrializazioak eztanda egin zuen gure lurraldean eta ekonomian, gizartean eta politikan aldaketa sakonak izan ziren: etorkinak ugaltu ziren, emakumea industri munduan lanean hasi zen gizartea eraldatuz eta politikan frankismoari aurre eginez talde eta mugimendu berriak indartsu azalduko dira. Eta nola ez eskolak ere hau guztia biziko du.

60ko hamarkadan aurrerago aztertuko dugun bezala goian aipatutako eskola nazional horiei (San Martingoa, San Gregoriokoa, Aiakoa, Ergoienakoa eta Arrondokoa) eta Gabillenekojen ikastola gehitu zitzaizkien, San Martingoa lehenengo eta San Gregoriokoa ondoren. Panorama erabat anitza zen.

Gauzak horrela, 1970ean Madrilgo agintariek, irakaskuntzako asmo berriaren egitasmoa onartu zuten Enseñanza General Básica ( Oinarrizko Hezkuntza Orokorra, O.H.O.) sortuz. Legedia aldatu zen, neska eta mutilek mailaka banatuko ziren eta eskola batze planak aurrera eramateko asmoak zituen Hezkuntza Ministerioak.

Horren ondorioz, pixkanaka ixten joan ziren hemengo zenbait eskola (Arrondo, Ergoiena eta Aia) eta lege berri horretan aurreikusita zegoen egitasmoaren arabera, Ataungo haur guztiak Lazkaora bidali behar ziren.

1970/71 ikasturterako Merzedariak joateak, Ikastola sortuta egoteak eta Irakaskuntzarako Patronatoa sortzeak, ekarri zuen gerora aldaketa nagusia.

#### 4.4.1 - Ikastolen mugimenduaren sorrera

60ko hamarkadan Euskal Herrian jaiotzen den eskola gertakizun berria ulertzeko, gizartean jaso ziren koordenada politikoak eta kulturalak derrigorrean aintzat hartu behar dira. Garai honetan, Ikastola<sup>57</sup> izena barneratu zuen euskal eskola saio hau gizarte dinamikan guztiz txertatu zela esan liteke, euskalduntasunaren eraldaketa modernizatzailaren aldagai garrantzitsu horietako bat bilakatuz. Ikastolak bere baitan, ideologi ezberdinetako jendea bildu zuen eta euskararen aldeko defentsa eta berreskuraketa prozesu orokorrako batera murgildu zuen, erresistentzi mugimendua deitu ohi den horretara. Ikastola, nortasun osoko talde eragile bezala azaltzen zaigu euskal gizartean: dinamikoa, dinamizatzaile eta berritzailea den hezkuntza saiakera.

Sortzen den ikastola gainera, gerra ondorengo etxe eskola ez bezala, proiektu koordinatu gisa eratuko da. Ikastolek inongo planifikaziori erantzuten ez dioten arren, elkarren artean komunikatzeko eta koordinatzeko joera goiztiarra azaltzen dute, eta elkarlan honen bitartez izaera amankomun eta bateratua eskuratzen dute.

Biziraupena bera ziurtatzen duen elkarlan honek, denborarekin egitura formalagoaren itxura hartzen duen neurrian, gizartean bloke moduan agertzea suposatzen du, beste dinamikek aberasturik eta era berean beste dinamika sozial batzuk bultzatzen dituen blokea. Ildo honetan, gau eskolen sorrerarekin izan zuen lotura estua ezaguna da, euskal kantagintza berriaren bultzada edota euskal liburugintzaren sustapena. Ikastolen mugimenduz hitz egiterakoan, herri bakoitzak autonomia osoa duela funtzionamenduan esan nahi da, maila nazionalean batasunez agertzen den fenomenoak izanik, euskarazko heziketa gorpuzten duen mugimendu alternatiboa.

<sup>57</sup> FERNANDEZ, I.: *Op cit.* 101.or.: "(...)60.ko hamarkadako euskal eskola mota hau sortu arte, "ikastola" hitz hau esanahi desberdinekin erabili izan da, gehien bat euskarazko ikas-saioak izendatzeko edo, euskaraz mintzatzen ari denean "kolegio" hitza adierazteko. Garai honetako euskal eskola saio honek hitzaren esanahia murriztu egingo du eta orain aztertuko dugun eskola beroni emango zaio soilik. Era honetara errealitate eskolarra izendatzeko hitz espezifiko eta zehatzen erabilera: eskola, ikastetxea... finkatzen da, ikastola hitza hemen aztertuko dugun fenomenoari bakarrik ezartzen zaiolarik.(...)"

XIX. mendean jada sortu ziren euskarazko hezkuntzaren inguruko lehenengo kezka eta iritziak. Honen adibide Agustin Iturriaga hernaniarraren idatziak ditugu. Honek 1830ean, Arrasaten bildurik zegoen Batzar Nagusiei igorritako salaketa batean, Gipuzkoako irakaskuntzaren egoera saminki deskribatu zuen eta euskara irakasteko beharrez ohartarazi zituen batzarkideak.

Kezka horrek bultzatuta, *“Arte de aprender la lengua castellana para el uso de las escuelas de las primeras letras de Guipuzcoa”* idatzi zuen 1841ean, eta hurrengo urtean *“Diálogos vasco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipuzcoa”*.

Urte batzuk beranduago, aurrez aipatu bezala, 1896/97 ikasturtean, Resurrección Maria de Azkue jaunak, Bilbon mutilek euskara ikasi eta garatu zezaten, lehen hizkuntza zentroa sortu zuen. Bi urte bakarrik iraun zuen ekimenak, baina Azkuek tinko jarraitu zuen irakaskuntza eskalduntzeko ahaleaginean.

1905 eta 1914an, bi ikastetxe inauguratu zituzten Bilbon eta azken urte hau, garrantzitsua izan zen ikastolen historian. Urte honetan, Migel Muñoa jaunak sortu zuen Koruko Andre Mariaren Akademi-ikastetxea deitutakoa, bera bizi zen Donostiako Kanpanario kaleko 2an.

Halako arrakasta izan zuenez, 1916an gela kopurua handitu behar izan zuen eta Eusko Ikaskuntzak 1918an Oñatin egin zuen lehen batzarrean, Muñoa jaunaren lana goratu zuten partaideek.

Luis de Elizalde, Eduardo de Landeta, Leonzio Urabayen eta Adelina Mendez de Torrek, eskaini zuten batzar hartan irakaskuntzaren inguruko mintzaldia eta beraiek izan ziren egoera linguistikoari aipamen berezia egin ziotenak.

Elizalde jaunak, herritarrek euskarazko eskolak sortzeko ideia eman zuen, txekiarrek *“Matitse Skolska”* eskoletan egin zuten bezela.

Ezin ahaztu XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran euskal kulturak bizi izan zuen Pizkundea eta pixkanaka, euskal ikastetxe gehiago sortu ziren Euskal Herrian zehar, Tolosa (1921), Errenteria (1928), Soraluze (1932), Bergara (1932), Iruñea (1932), Lizarra (1932), Gazteiz (1933), Elizondo (1935). Hamarkada berean, Oñatik, Segurak, Irurak eta Andoainek ere, bere ikastola propioak inauguratu zituzten.

1932an, Bilbon, Eusko Ikastola Batza sortu zuen EAJren emakumeen sailak, eta 1936an, Euskal Herrian ikastolak zabaltzen ari zirenean, Gerra Zibila eta ondorengo diktadurak, euskarazko irakaskuntzaren garapena guztiz eten zuen.

Pedagogian adituak eta irakasle ugari, erbestera joatea behartuta aurkitu ziren, eta asko ez ziren sekula itzuli. Beste horrenbeste gertatu zitzaion Muñoa jaunari, bera eta bere pentsakera ezagutzen zutelarik, 1936ko irailaren 12an, polizia etxea mihatzera etorri zitzaionean, bere sendiarekin ihes egin behar izan zuen. 1938ko urriaren 25ean, etxe hura ikusi zuten poliziaiek, *“El prestigio moral de estos señores, es bueno”* egiaztatu zuen, baina hurrengo egunean, Gobernadore jaunak hura ixteko agindua eman zuen eta Beasain, Eibar, Elgoibar, Hondarribia, Hernani, Irún, Lezo, Orío, Pasaia, Errenteri, Donostia, Zarautz, Zumarraga eta Zumaiako eskoletan, zuzendariak aldatu zituzten, mugimenduaren aldekoak ipiniz.

Gerra Zibila bukatuta, euskal eskolen mugimenduan, zutari garrantzitsua izan zen, Elbira Zipitria anderea. Muñoa ikastolako andereño izandako irakasle hau, Sarako erbestertzetik Donostiara itzuli eta 1943an berak eta guraso talde batek, euskarazko irakaskuntzari berriro ekitea erabaki zuten, Donostiako Alde Zaharreko Fermin Kalbeton kaleko etxe batean, ikastola txiki bat antolatuz.

Guraso hauen artean, Donostian bizi zen baina San Gregorioko Arratibel-azpiko etxekoa zen, Florenzio Garaialde Altolagirre sendagile jauna ere tarteko zen.

Hain zen txikia ikastola hura (hamar haur inguru), ez zuen inongo susmorik eragin eta klandestinitatean egin zuen bere lana. Ikasgaiak, lau alorretan banatzen ziren, euskara, matematika, erlijio eta esperientziak. Erlijio formakuntzari garrantzi handia ematen zion Zipitria andereak arreta berezia jarritz

Baina Etxe Eskolen esperientzia hedatu nahiak Zipitriaren funtzionaketa ereduari beste aldaketa batzuk ekarriko lizkioke (batez ere euskal hezkuntzaren esperientzia herrietara zabaldu beharra sortu zenetik aurrera) eta 60ko hamarkadako egoera politikoan ari ziren gorabeherekin batera, etxe eskoletan zeuden Zipitria eta emakumeen sarea batetik, eta gazteak bestetik, gero eta bereziago azaltzen ziren. Apurketa ere etorri zen. 60ko hamarkadan gizarte zein politikan aldaketa nabarmenak bizi izan ziren. Politikoki nazionalismo tradizionalaren baitan, EAJren baitan EKINeko istiluetatik ETA sortu zen; emakumearen papera erabat aldatzen hasi zen eta industrializazio eta hiritartze porzesua zela eta, gizarte berri honek hezkuntza egitura berriak eskatu eta sortuko ditu.

1959. urterako Donostiako Etxe Eskolen esperientziak nolabaiteko gorputza hartu zuen, zazpi ziren orduan zeuden Etxe Eskolak, baina euskal hezkuntzaren inguruko kezka ez zen horretara bakarrik mugatu. Euskal eskola formalaren itxura hartu gabe, ume euskaldunen egoera eta apendizaiari buruzko ardura adierazten duten bi ekimen aipatu behar dira: Nafarroatik bultzatutako *Umeen Deia* eta Baiona IKAS erakundea sortuko zuten jardunaldi pedagogikoak.

*Umeen Deia* Nafarroan argitaratzen hasi zen umeentzako aldizkaritxoia izan zen. 1957ko abendutik aurrera Nafarroako Foru Aldundiak *Institucion Principe de Viana* delakoaren barruan Euskararen aldeko Saila antolatu eta Nafarroan zegoen euskararen egoera aztertzeke eta bultzatzeko ekintza batzuk antolatzen hasi ziren. Era honetara euskal jaiak, bertsolari txapelketak eta umeen artean euskara erabiltzeko sariketak eratu ziren herri desberdinetan.

Bada Ataungo umerik *Umeen Deia* aldizkari horretan idatzi zuenik:

### **ATAUN**

(228)

*ATAUN-dik. – Ni Ataundarra naiz, eta 8 urte dauzkat. Nere lagunak erakutsi dit orrealditxo ori, eta nik naidet eta ume oyen laguna izan nahi det.*

CELESTINO AIZPURUA

(229)

*ATAUN-goia naiz, beatzi urte dauzkat, eta Gaintze'n nago egun batzuek pasatzen. Emengo Apaizak erakutsi dit ojatxo au, eta asko gustatu zait; eta nik ere umetxo oien laguna izatera nai*

*det. Orregatik gustatuko litzaidake nere Errico apaizari bialtzera ojatxo oiek. Gero nik eta nere lagunak eskribituko ditugu kontu geyo. Nere izena da*  
**JOSE RAMON MUNDUATE**

Esperientzia alfabetizatze honek hedapen berezia izan zuen Nafarroan eta Gipuzkoan eta herri herriko ikastaldi eta aldizkariaren lanaz aparte, umeei euskarazko azterketak egitea eta saritzea zekarren. Bide horretatik eta funtsezko eredu berdinarekin jarraitu zuen geroko *Kili-Kili* kanpainak.

60ko hamarkadan, etxe eskolatik gero eta bereziago agertzen zaigun euskal hezkuntzaren zabalduerako joerak, gaur egun ikastola kontzeptuaren azpian ezagutzen duguna eragin du, euskal kultura eta politikoaren maila guztietan garatzen ari zen modernizatzeko eta hiritartzeko joerarekin batera.

60ko hamarkadako ikastolen mugimenduak, hezkuntzaren kontserbatze funtzio horretatik berreskuratze funtzio batera eramango zuen eskola; euskaldunak eta gaztelaradunak euskaraz alfabetatzera abiatuko zen, hezkuntzaren erreibindikazio soziala diskurtso osoaren ardatza bihurtuz. Ikastolen bitartez ume erdaldunen euskalduntzea bultzatzen hasi zenean, oso eragin desberdinak izan zituen zabalkunde lana suposatu zuen.

Andereño gazteek, Zipitriaren ereduaz euskal hezkuntzaren abenturan sartzeko baliatu ziren arren, beste eredu baten eraikuntzari ekin zioten, mugimendu sozialtzat jo daitezkeen irizpideetan barrena. Euskal eskolaren inguruko aldaketa batzuk ematen hasten direnean, Donostiako etxe eskolen eremu murriztua gainditzeko asmo nabaria ikusten da, Zipitriaren eskolaren azpiegitura ziren familia eta emakume sare estu hura gainditzeko beharra proiektio zabalago bati begira. Gogo hauek errealitatean zenbat eta gehiago gauzatzen joan, etxe eskolak bere baitan hainbat eta sartuago gertatu ziren, nolabaiteko joera endogamikoa hartuz.

Zipitriarekiko eta azken finean berak ordezkatzeko gerraurreko ideologiarekiko ezadostasunak, maila desberdinetan gauzatzen direla esan genezake, maila politikoan, hezkuntza ideologia mailan eta antolakuntzan hain juxtu.

Zipitriaren hezkuntza ideologia aztertzerakoan, nazionalismo tradizionalaren ildoak ageri zaigu. Euskal eskola nazionalismoaren zutabeak ziren erlijiosotasuna eta naziotasuna birsortzeko mekanismoetatik hartuta, hezkuntza funtzioaren betekizunak emakumeari ezartzen zitzaizkion, familia mailako lehenengo sozializazioaz gain bigarrenengo arduratzea ere zegokiolarik. Helburu eta mekanismo hauek eskola eta hezkuntza formala familiaren luzapena bihurtu zituzten Baina gerraosteko egoerak emakumearen papera eraberritu zuen eta industrializazio eta hiritartzeko prozesuek orokortu edo itzulezinezko bilakatu ziren neurrian, hezkuntza mekanismoak ere aldatu beharra agertu zen jeneroaren baitan.

Gurera etorri, hamarkada honetan, ikastolak herri askotan zabaldu ziren eta Goierrri bailaran guraso irakasle eta beste hainbat pertsona ibili ziren buru belarri ekimen desberdinak burutzen. Beste batzuen artean, Jazinto Fernandez Setien (garai hartan Lazkaon apaiz zegoen) jaunak, lan handia egin zuen, bai ikastolak sortzen, materiala euskaratzen, pedagogia metodoak berri-berri eta abar.

## San Martingo Ikastola

Irakaskuntzari buruz, Goierrin sortutako mugimendua 1965 inguruan iritsi zen gure herrira, beste batzuen artean, Eulojio Aldasoro, Biktor Eskisabel eta Antton Kerejeta, Lazkaoko Jazinto Fdez. Setien eta Aitor Muruamendiaraz jaunarekin hartu emanetan jarri zirenean.

Hau dena, Euskal Herria jasaten ari zen egoera sozio-politikoaren ondorioa izan zen. Frankismoaren giza eskubide zapaltzaile jarduerak bazuen Euskal Herriarekiko bereziki planifikatutako ekimen lazgarria. Horretarako oinarrizko zutabeak kolpatuz: euskara instituzioetatik, komunikatibetatik, eta irakaskuntzatik baztertuz,... arlo desberdinetako ekimen herrikoiak eragotziz. Irakaskuntzari buruz, gurasoek haurrekiko zituzten eskubideak zapalduta zeuden, eta haur heziketa osoa Estatu eta agintarien ardurapean aurkitzen zen. 1960/70 hamarkadan, aipatutako zapalkuntza zela eta egoera deseroso eta larri baten azpian zegoen Euskal Herria, hil ala biziko unea zen orduko hura.

Ondorioz gizarte mugimenduak sortu ziren nolabait herriaren herioa eta bizi nahia agertzeko, eta hauen artean *Guraso Elkarte*a, *Herri gaztedia*, Etxebizitza kooperatibak eta beste hainbat herri-talde agertu ziren euren helburuak eta eskubideak garatzeko bideak irekiz. Bide honetatik, kultura arloan artista desberdinek taldeak sortu zituzten, artista plastikoek *Gaur* taldea antolatu zuten Gipuzkoan, beste euskal lurraldeetan antzekoak azalduz, *Ez dok Amairu* kantagintzan... Guztiek esparru desberdinetatik helburu berarekin, Euskal Herriaren izaera nabarmendu nahian eta bere eskubideen defentsan jardun zuten gainera herria jasaten ari zen zapalketa salatuz. Izan ere, Estatuak jarrita zituen erakundeetako kide izanez, giza eskubideak lortu eta babestu nahi izan zituztenak, nolabait Estatuaren egitura desegin eta gizartearen parte-hartzea bultzatuz.

Instituzio mailan ere zerbait egin beharra zegoen, diktadurapean ez zen ordea lan erraza. 60ko hamarkadan "irekitze" txiki bat izan zen diktaduraren baitan eta sistemak jarrita zituen bi-deetaz baliatuz eta zeuden zirrikituak (*tercioak*) erabiliz egin zen lanak bere uzta eman zuten. Lantegietan, udaletan, elkarteetan frankismoko egituretan herritarrek sartzen hasi ziren barnetik estatuaren sistema hautsi nahian eta eskubideak lortzeko bidea jorratzen hasi ziren. Beste lortu batzuen ondoan, Ataungo Guraso Elkarteak antolatutako hauteskuden ondorioz, 1967ko otsailean, herriak aukeratutako alkate eta zinegotziak lortu ziren.

Bitartean, lehen aipatu ditugun guraso horiek, herriko irakaskuntzaren egoera ikusi ondoren, beste guraso batzuekin batera, (hauen artean, Joxe Bikuña, Biktoriano Zaldua, Migel Arratibel, Luzio Goikoetxea, Domingo Barandiaran eta beste hainbat emakume eta gizonezko), eraketa berri baten beharra nabaritu zuten.

Ordurako bailarako beste herri batzuetan ere ekin zioten prestaketa lanari eta Ataunen ere ikastola sortzeko leku bila hasi ziren. Leku bat edo beste ikusi ondoren, San Martin auzoko Bikuña enea etxearen alboan Jose Maria Imaz Bernedo jaunak oilategia eduki zuten eraikina hartu zuten, hileko 700 pezetako errenta ordaintzeko baldintzarekin.

Lokala, egoera tamalgarrian aurkitzen zen, simaur eta hegazti ustelez beteta zegoen, bere kokalekua ez zen egokiena, sarrera errepide gainean baitzuen, baina besterik ezean, hartu beharrean gertatu ziren.

Gela haiek garbitu, egurrezko lur-zoru berria jarri, leiho berriak atera, argi-ingar instalazioa egin, margotu eta abar. Hau guztia burutzeko lan saio ugari egin behar izan zuten auzolanean herriko guraso eta laguntzaileek. Atarian ere jolas tokia prestatu zen Oriotik ekarritako hondarra erabiz, jolaserako hainbat ekipamendu ere jarri ziren.

Lan horiek egiteko beharrezko zen baimena ere eskatu zitzaion Udalari eta hona hemen Juan Auzmendi Galparsoro alkate zegoela, 1966ko azaroaren 2an, hartutako erabakia.

*“Se acuerda prestar conformidad al informe favorable de la Presidencia a la concesión de licencia para obras que un grupo de vecinos representados por Víctor Esquisabel Beguiristain desean realizar en el edificio denominado “Granja” así como ampliar y mejorar el acceso a la misma, con el fin de habilitar para Albergue de Párvulos a cuyo frente estará una señorita de la localidad”.*<sup>58</sup>

Errepide ertzean aurkitzen zen erabili nahi zen eraikina eta bertara igotzeko bidea berri behar zegoenez, Foru Aldundiari baimena eskatu zitzaion eta Bittor Eskisabelen ahalegin batzuen ondorioz, Rene Petit ingeniariak baimena eman zuen.

Hasieratik borondate guztiarekin mugitutako guraso taldeak, hainbat lan egin behar izan zuten ondoren ere, alde guztietatik sortzen baitziren gaitardutako beharrezko oztupoak.

Kontuan izan behar dugu, frankismoaren zapalketaren ondorioz beldur handia bizi zela, hala ere ausardiak jokatu zuten mugimendu honek, eta honako ezaugarri eta baldintzen arabera aurrera egin zuten:

- Irakaskuntza euskaraz.
- Legez-tatu gabeko eskola izanik, Eskolaritate liburua lortzeko eragozpenak sortuko ziren.
- Hala beharrez, titulorik gabekoak izango ziren lehen irakasleak
- Irakasteko metodo berriak (aurrerakoiagoak) urratu nahi ziren.
- Lanerako materiala prestatu behar zen.
- Estatuaren diru laguntzarik gabekoa izango zen, nahiz eta doan izatea lortu nahi zen.
- Eta beste hainbat lorpen amesten ziren.

Nolanahi ere, zailtasunak gainditzeko kementa eta indarra izanik, 1966/67 ikasturtean, ireki zen *Xabi ergo San Franzisko* izenarekin ezagutu zen Ataungo lehen ikastola, irakasle lanetarako Begoña Munduate Aierdi andereñoa izendatuz. Horretarako, aurretik, guraso talde batek ardurari hartzeko proposamena egin zioten; horrela, hezkuntza beharretan jarduteko prestatzen hasi zen andereñoa, eskualdean ordurako jada abian ziren beste ikastola batzuetan praktikak eta prestakuntza saioak eginez. Aldi berean, gurasoak zein beste herritar batzuk auzolanean ziharduten ikastola izango zena prestatzen. Eta horrela, lehen adierazi bezala, 1966/67 ikasturtean ireki zen ikastola adin desberdinetako 12-14 ikaslerekin.

Lehen aipatu den bezala, herri mailako hauteskundeen ondorioz, 1967ko otsailean Udal ordezkarien aldaketa egin berria zen. Esan dezakegu, herritarrek aukeratutako lehen alkatea izen zela Juan Auzmendi Galparsoro.

<sup>58</sup> AUA: 512-03



San Martingo Ikastolako lehen haurra batzuk, 1966/67 ikasturtea.

Ezkerretik eskuinera, goiko ilaran:  
Miren Garbiñe Eskisabel, Tomas Erauskin,  
Josune Arruabarrena, Gurutz Barandiaran  
eta Arantxa Arregi

2. ilaran:  
Aitor Zeberio, Nekane Eskisabel,  
Begoña Munduate (Andereinoa), Josune Zaldua  
eta Jose Maria Bikuña.

3. ilaran:  
Gurutz Bikuña, Imanole Barandiaran, Bixente Kerejeta,  
Ana José Zeberio eta Fermin Arratibel.  
Lurrean: Jesus Maria Goikoetxea, Piedad Barandiaran,  
Jose Inazio Barandiaran eta Anselmo Barandiaran.

Ikastolak bere asmoak aurrera eramateko, beste arazo askoren artean diru behar handia zuen eta legez tatu gabea izanik, nolabaiteko onespena jaso nahi zuen Udaletik eta diru laguntza eske zuzendu zen berarengana.

Hona hemen 1967ko apirilaren 5ean, Udal batzarrak hartutako erabakia:

*“Leída la solicitud de ayuda económica formulada ante este Ayuntamiento, así como los antecedentes del caso, en relación con el centro de Enseñanza Primaria denominada “Ikastola” tras amplio cambio de impresiones sobre el particular expuesto, se acuerda que el grupo de vecinos solicitantes de la ayuda económica informen tanto en lo que respecta a necesidades como en lo referente al funcionamiento y ayudas municipales que reciben las “Ikastolas” abiertas en otras localidades.”<sup>59</sup>*

Udalak bere erabakiarekin, laguntzarako joera bat agertu zuen, baina ez zegoen “esperientzia edo jurisprudentziari” eta arazo berdinarekin Ikastola asko zirenez, beste herri batzuen erantzuna ezagutu nahi zuen.

Berriro ere, Ikastolak bere eskabideak luzatzen jarraitzen zuen eta 1967ko ekainaren 7an, honako erabaki txalogarri hau hartu zuen Udal Batzarrak :

*“El Sr. Alcalde-Presidente dice que habiendo llegado a esta Corporación Municipal, el cual tiene el honor de presidir, una carta-solicitud remitida por la Junta Directiva de la Ikastola, debe manifestar lo siguiente:*

<sup>59</sup> AUA: 513-05

*La Corporación Municipal ha estudiado con toda atención dicha solicitud. En ella se aborda el problema instructivo-educacional de la niñez en Ataun: se habla de una educación humana e integral, fundamentando esta labor en el clima natural de la sociedad concreta donde ha nacido y va a desenvolverse el niño; se adopta como elemento básico e inicial el “euskera”, todo ello dentro de una orientación pedagógica moderna.*

*Pláceme comunicarle que esta Corporación, cuya razón de ser reside en y para el servicio del pueblo, ha aceptado unánimemente el contenido de la carta, se ha identificado con la exposición doctrinal que en ella se contempla, acordando en consecuencia ofrecer la ayuda pertinente, teniendo en cuenta para ello porcentajes reglamentarios para subvenciones que exige la Ley Municipal en vigor, y llevándose a cabo la correspondiente suplementación de Crédito a este fin.*

*Asimismo en relación con el mismo asunto y teniendo en cuenta que las obras de instalación de la “Ikastola”, mobiliario y parque de juegos infantiles, aparte de los donativos recibidos de los particulares y Caja de Ahorros Provincial, tienen un déficit de 48.000 pesetas (288,49 euros) el acuerdo presente abarcará dicha cantidad, pero sin rebasar en ningún momento los porcentajes presupuestarios aludidos.*

*Acuerda la Corporación que los “bandos” que se dicten por la Alcaldía de Ataun, se publiquen también en “euskera” dado el carácter eminentemente euskaldún de esta localidad”.<sup>60</sup>*

Zalantzarik gabe, bere edukiak euskarari eta heziketari ematen zion garrantzia kontuan izanda, akordio miresgarria, eta beste Ikastola batzuei ere jarraibide eta laguntza eman zezakeena.

Urte honetako abenduaren 29an, Ikastolan ur-edangarria doan jartzeko erabakia ere hartu zuen Udalak.

Honako hauek izan ziren lehen ikasturte hartan hasi ziren eskolaurreko haur batzuk<sup>61</sup>:

- |                                    |                   |
|------------------------------------|-------------------|
| - Tomas Erauskin Barandiaran       | Sastegi           |
| - Jose Maria Bikuña Barandiaran    | Bikuña enea       |
| - Miren Garbiñe Eskisabel Munduate | Hiru Bide         |
| - Nekane Eskisabel Munduate        | Hiru Bide         |
| - Bixente Kerejeta Goena           | Kerejeta enea     |
| - Kruzito Barandiaran Arratibel    | Barandiaran Berri |
| - Anselmo Barandiaran Arratibel    | Barandiaran Berri |
| - Jesus Maria Goikoetxea Aiestaran | Goikoetxea enea   |

<sup>60</sup> AUA: 515-01

<sup>61</sup> Litekeena da zerrenda honetan dauden haur hauen artean beste baten bat ere izatea edota hauetakoren bat beranduago hasi izana.

- |                                      |                           |
|--------------------------------------|---------------------------|
| - Aitor Zeberio Arruabarrena         | Estrada berri             |
| - Fermin Arratibel Bikuña            | Urreta                    |
| - Josune Arruabarrena Arruabarrena   | Ubarri                    |
| - Josune Zaldúa Goena                | Txomiñonea                |
| - Imanole Barandiaran Agirre         | Upategi                   |
| - Jose Inazio Barandiaran Etxeberria | Donjuanene Andia          |
| - Piedad Barandiaran Etxeberria      | Donjuanene Aundia         |
| - Arantxa Arregi Auzmendi            | Berrarain                 |
| - Ana Jose Zeberio Mercero           | Agirre berri (Asentxione) |
| - Gurutz Bikuña Barandiaran          | Bikuña enea               |



1970ean, San Martingo ikastolako haurrak gaur egun Antzokia dagoen zelaian. Ezkerretik eskuinera, zutik: Bixente Kerejeta, Gurutz Bikuña eta Fermin Arratibel. Makurtuta: Aitor Zeberio, Tomas Erauskin eta Jose Maria Bikuña.

Haur kopurua igotzen ari zelarik, andereño berriak izendatu behar izan ziren:

1967/68 ikasturtean, Arantxa Galparsoro Barandiaran, San Gregorioko Perunezar baserrikoari Ikastolako juntakoak joan zitzaizkion lan proposamenarekin. Baiezkoa eman eta prestakuntzari ekin zion. Hernanira joaten zen hilabete batzuetan praktikak egitera, Urumea ikastolara. Gure ikastolan 5 urte egin zituen, 1972. urtera bitartean.

1968/69 ikasturtean, Juana Maria Karasatorre Bidaurre, Etxarri Aranazkoa.

Jada ibilbide bat egina bagenuen ere, titulurik ez genuen ez Arantxa Galparsorok eta ez Be-goña Munduatek. Aitzitik, ikastolak aurrera jarraitzekotan legeztatu beharra zegoen eta horreta-

rako irakasle tituludunak izatea eskatzen zuen legeak. Hutsune hori betetzeko, juntako kide batzuk Juana Mari Carasatorre irakaslearengana joan ziren.

Juana Marik, jatorriz Etxarri Aranazkoa, Lizarrustiko *escuela de temporada* izaera zuen eskolan ziharduen irakasle lanetan 1966. urtean hasita. Izaera honetako eskolak Nafarroako Foru Aldundiaren ekimenez sortu ziren, landa ingurune isolatuetako familien seme-alabei urtean zehar aldi jakin batzuetan eskola emateko helburuz. Lizarrustiren kasuan, Gipuzkoako Aldunditik ere jasotzen omen zuten diru laguntza urtean behin. Bera irakasle tituluduna zen. Honakoa proposatu zitzaion: praktikak egin gabe zituenez, Beasainen praktikak egiteko aukera eskaini zitzaion; horren trukean, ikastolari “utziko” zion titulua. Horrela urte bete egin zuen.

1969/70 ikasturtean M<sup>a</sup> Josefa Lasa Iturrioz, Legorretakoa, iritsi zen. Batzordeko guraso batzuk Donostiako Irakasleen Erresidentzian zegoela bila joan zitzaion, Joana Marik utzitako hutsunea betetzeko beste tituludun irakasle bat behar baitzen. Hemen egon zen bitartean talde bat izan zuen bere ardurapean.

Halaber, Goierriko ikastolek eskualderako koordinatzailea izendatu zuten, unean–unean sortzen ziren beharrei erantzuteko ikastolaz ikastola ibiltzen zena, Feli Etxeberria Sagastume, amezketarra.

Beste aldetik, euskal materialgintzan sortzen ari ziren etengabeko beharrei erantzuteko Gordailu sortu zen Donostian, Arantza Allur, Feli Etxeberria eta Jazinto F. Setien izan ziren sortzaile-etako batzuk. Helburu nagusia hezkuntzarako euskarazko materiala sortzea zuten. Honez gain, Haurride ere sortu zen, material didaktikoan espezializatutako denda. Garai beretsuan sortu zen Gipuzkoako Ikastolen Elkarte (GIE) ere.

Bailarako andereñoak, euren ordutegia Ikastolan eman ondoren, ikastaldiak egiteko Beasainen elkartzen ziren. Oporraldian berriz, ikastaro trinkoagoak prestatu ziren urte batzuetan, Donostiako Seminarioan, Getarin, Zornotzan eta Loiolan.

Gerora, 1980an, Euskal Gobernu eta Irakaskuntzako Delegazioaren eskutik, Bergarako UNED-ek antolatutako hiru urteko ikasketen ondorioz, laguntzaileek tituludun izatea lortu zuten.

Erakusteko moduak aldatu, pedagogi berri eta aurrerakoiagoak landu nahi zirenez, irakaskuntzan aditu talde bat arduratu zen Europan zehar zeuden sistema berriak jasotzeaz.

Ikastolak eta ikastolen inguruko mugimendua gaur egungo euskal hezkuntza sistemaren oinarrietako bat dira, inondik ere. Gaur egungo gizartean eta irakaskuntzan ere normalizat jotzen ditugun hainbat alderdi, garai haietan Ikastolen inguruan lan egindako gurasoek, andereñoek, hezitzaileek, kultur taldeek, Elizak..., elkarlanean egindako ekarpenei zor baitzaie. Ikastolak herri ekimenaren emaitza dira, azken finean. Frankismo garaiko *Escuela Nacional*-ari kontrajarriaz, Euskal Herrian bizi ziren haurrak euskalduntzeko eta euskal kulturaren hezteko helburuz sortu ziren.

Euren sorreran klandestinitatean antolatutako ikastolek eredu berriztatzaile batean oinarritutako pedagogia izan zuten ardatz, garaian eta egun ere, pedagogo aurrerakoitzat eta berriztatzaile-

tzat jotzen direnen eruedetan oinarritu baitzen Ikastolen hezkuntza erueda, hau da, Freinet, Montessori-ren hezkuntza eruedetan, zenbait aipatzearen.

Horiekin batera, Kataluniarren laguntza ere aipagarria da, Rosa Sensat pedagogoa edota Marta Matarena esaterako; eta geurera etorrira, ezin ahaztu Elbira Zipitria edota Kar-mele Esnal, bereziki.

Bestalde, diru eta material eskasiak hala behartuta, irudimena, borondatea eta amaigabeko orduetako lana ere Ikastolen berariazko ezaugarriak ziren, hasiera haietan behintzat. Eta horretan, gurasoen laguntza eta inplikazioa goraipagarria da benetan.

Horiez gain, ezin aipatu gabe utzi euren borondatez hilero edo noizean behin, diru laguntza ematen ziguten herritarrak; edota kanpoko andereñoi astean zehar ostatu ematen zieten herriko familiak; herriko elkarteak, apaizak...

Laburbilduz, hauek genituzke Ikastolen mugimenduaren lau ardatz nagusiak; horien gainean eraiki ziren Ikastolak: irakaskuntza euskaraz izatea, pedagogi berritzailea garatzea, herrian txertatua egotea eta gurasoen parte hartzea sustatzea.

Gaur egun oso aurrerakoitzat jotzen diren alderdiak, orduan jada, lantzen ziren ikastoletan. Alderdi guztietatik ere apustu garrantzitsua izan zen:

Haurrak hiru urterekin eskolatzen hasi ziren.  
Lehendabizikoz koheziketa (neskak eta mutilak elkarrekin) planteatzen zen.  
Gurasoen parte hartzea ezinbestekoa zen.

Irakaskuntza bizia, aktiboa zen, haurrari zuzendua, ingurune errealitate abiatzen zen (kalean, etxean ikusitakotik, euren esperientzietatik...), gero alderdi orokorrak lantzeko.

Ikastola ez zen gela bakarrik, kalea eta ingurua ere bazen. Irteera asko egiten ziren kalera, mendira, inguruko baserrietara... eta bertan biltzen zirenak (loreak, hostoak, fruituak, haurriak...) material didaktiko gisa erabiltzen ziren bai matematika bai ingurunea lantzeko, eskulak egiteko, hizkuntza lantzeko...

Sormena eta lan librea ere asko lantzen zen: irteeretan bildutako edota etxetik ekarritako gauzeekin, baita txotx, buztin zein plastilinarekin... ere. Lurrean lan asko egiten zen baita arbelean ere. Mahaiak marrazketarako eta erabiltzen ziren. Materialari dagokionez, garaiko egoera soziala eta politikoaren ondorioz, ez zegoen euskarazko materialik, hasiera hartan behintzat. Euskaraz argitaratutako material urriaren artean, *Xabierto*, *Martin txilibitu*, *Martintxo* edo *Giza Soina* dira aipatzekoak; horiek irakurketarako erabiltzen ziren.

Jolasa zen egunerokoan ardatz nagusia. Horrekin batera, abestu ere asko abesten zen, sarrreran eta baita irteterakoan ere. Abestien bidez euskal kulturaren ondarea transmititzen zitzaien. Antzerkia ere maiz egiten zen; ikasturte amaieran edo opor aurretik jaialdiak ere egin ohi gez.



San Martingo ikastolako haur batzuk atariko jolaslekuan:  
Ezkerretik eskuinera: Gurutz Barandiaran (Baindiberri), Eba Imaz (Arresenea),  
Nekane Eskisabel (Hiru bide), Josune Arruabarrena (Ubarri), Garbiñe Eskisabel (Hiru bide),  
Piedad Barandiaran (Donjuanenea), Imanole Barandarian (Upategi zarra), Anselmo Barandiaran (Baindiberri)  
eta Gurutz Bikuña, kolumpioan (Bikuña enea).



San Martingo Ikastolako haurrak jolasean.

Bestalde, gurasoen inplikazioa eta parte hartzea oinarrizkoa ez ezik, ezinbestekoa izan zen Ikastola sortu eta aurrera egin zezan. Eta sarreran esan bezala, Ikastolen mugimenduaren bereizgarrietako bat horixe genuke: gurasoen ekimena ikastolaren eraikuntzan. Gurasoek oso lotura estua zuten, bai ikastolarekin bai andereñoekin ere, lankidetzan, auzolanean jarduten zuten Ikastola aurrera atera eta ikasleak euskaraz hezi zitezten bermatzeko helburuarekin. Alabaina, gurasoak diogunean herritarrak eta herriko eragile sozialak, Eliza eta beste hainbat ere hor sartzen ditugu. Guztien elkarlanaren emaitzari esker atera baitzen ikastolaren egitasmoa aurrera.

1970/71 ikasturtean, Begoña Azpiroz Larretxea, Lazkaokoa etorri zen.

### ATAUN 1970 – 1977

*Idatzi hau egiteko eskatu zenidatenean, beste ezer baino lehen, ia berrogei urte pasa direla bururatu zitzaidan eta horrekin batera, garai hartako oroitzapen asko etorri zitzaizkidan, gehienak onak.*

*Besteak beste, garai hartan gaztetxo edo nerabe bat nintzela, nolako erantzukizuna hartu nuen edota nolako erantzukizuna eman zidaten, lehenengo ikasturtean nire esku utzi zetuzten hamazazpi ikasle haien heziketan parte hartu nuenean. Benetan esker mila nigan sinestu zenutenei.*

*Zinez diot, Ataungo egonaldi hura oso aberasgarria izan zela nire bizitza profesionalaren eta pertsonalaren garapenean.*

*Nola ahaztu amaierarik ez zuten orduko andereñoen bilerak? Ikasgelan erabili behar zen material guztia geuk sortu behar genuenez orduak ematen genituen elkarrekin, bai herrian, baita bailara mailan elkarrengandik iritziak eta ideiak jasoz.*

*Eta gero, Ataunen bakarrik geneukan alkoholezko multikopista batean fitxen kopiak egitea. (Inguruetako aurreratuenak ginen teknologia mailan).*

*Nola ahaztu herriko haur asko hartu eta D. Javierren “bi zaldiko”n beheko Ikastolatik Gabillenera eramaten genitueneko hura?, gero “bi zaldiko”an sartzen ez zirenez, oinez. Gainera bidean, jantokirako ogiak Julian enean hartuz...*

*Ze poza hartzen genuen lehenengo urteetan ikastolako diru zainak bere 0074eko leihotik deitzen zigunean, atzeratutako hilabeteetako soldata jasotzeko dirua bazogela esanez!*

*Baina zerbait azpimarratzekotan, ikastetxearen proiektorekin zegoen inplikazioa eta konpromisoa aipatu nahi nituzke.*

*Inplikazioa, gurasoen aldetik, irakasleen aldetik eta herriko eragilen aldetik. Lehen aipatu ditudan nire bizitza profesional eta pertsonalean eragin handia izan duen inplikazioa, benetan, honetaz asko ikasi nuen Ataunen.*

*Zailtasuna zailtasun, beti aurrera egiteko prest eta denok elkarrekin; batean auzolanean eraikuntzak eta inguruak egokitzen, bestean administrazioak ikasleak 5. maila egitera Lazkaora bidali nahi zituela eta inposaketa horri aurre eginez, gurasoen erabakiz, Ataunen bertan nola edo hala eskolak antolatuz..., zerbait aipatzearen beste milaka istorioren artean.*

*Guzti honek lan giro ezin hobea sortzen zuela esan behar, eta lan egiteaz gain bestelakoak ere izaten zirela aipatu behar... afariak, txangoak....*

*Gaur egun ere poz handia hartzen dut ikasle edo guraso izandako ataudarren batek ezagutzen nauenean eta galdetu: Zu Azpiroz zea ala?. Azko poztan nau orduko ikasleren baten berri izan eta orain daraman bizimoduaz jakiteak.*

*Atzerantz begira jarrita, gauza asko datozkit burura, baina beste askok hitza izango dutenez liburu honetan eta historia bere beste atal batzutan azalduko denez, amaitzera noa, berriro ere, bai urte haietan eta bai orain, zuen lankide, irakasle eta ikasle izaten uzteagatik, zuengandik asko ikasi baitut.*

*Mila esker.*

**Begoña Azpiroz Larretxea (Irakaslea)**

## GURE IKASTOLA

*Urte batzuk pasatu badira ere, oso ondo gogoratzen ditugu ikastolako lehen urteak. Oso garai polita izan zen hura; gutxi ginen eta familian sentitzen ginen. Gustura eta pozik joaten ginen eskolara.*

*Lagun artean oso giro ona genuen eta irakasleekin berriz, oso gertuko harremana.*

*Gogoratzen ditugu hainbat anekdota:*

*Txoriren bat hilda agertzen zenean teilatutik erorita edo, behar bezalako entierroa egiten genion eta ondoren lur azpian sartzen genuen.*

*Begoña Azpiroz irakaslearen etxera joaten gineneko egunak ere buruan ditugu. Bertan jaten genituen madalena goxoak ere bai, noski.*

*Ez zaigu sekula ahaztuko txerri-muturra deitzen genion autobusean Aiara eskutsiora zeinen pozik joaten ginen. Hartu bokadiloak eta urduri eta pozik Ataundik ez dakigu zenbat kilometrotara joango bagina bezala sartzen ginen autobusera.*

*Benetan urte oso politak izan ziren. Giro lasaia eta atsegina aurkitu genuen ikastolan.*

*Mari Jose eta Jaione Munduate Muxika (Ikasleak).*

Nortasun juridiko eta legeztatu gabekoak ziren Ikastolak, baina eskola nazionaletako haur kopurua jaisten ari zen neurrian, Ikastoletakoak berriz igotzen ari ziren. Honetaz ohartu ziren Estatu agintariak eta desosegu edo egon ezina nabaria zen.

Susmo haien aurrean Ikastolak aurrera egin zezan eta sortu zitezkeen oztopoak gainditzeko legeztatu beharra zegoenez, Elizaren babesa lortzea erabaki zen.

San Martinen, esku zabal hartu zuten eskaera, bai D. Franzisko Ezkurdia Irizar erretoreak eta berdin Jabier Zubizarreta apaizak. Honek, Majisterio titulua lortu zuen eta buru-belarri sartu zen mugimendu honetan.

Gipuzkoan Ikastola kopuru handia bildu zenez Elizaren babesean, Gipuzkoako Eliz Barrutiak Eujenio Arregi izendatu zuen koordinazioaren arduradun eta beranduago Jose Lasa Apalategi ataundar kanonigoak bete zuen egiteko hau.

Ikastolaren mundua indartzen ari zen neurrian, koordinazio baten beharra sumatzen zen eta beharri erantzuteko asmoarekin sortu zen, G.I.E. ( Gipuzkoako Ikastolen Elkarte ).

Pedagogi prestaketa, programazio eratze, liburu sortze, lege babesa, istituzioekin harremanak eta abar izango ziren bere egitekoak. Erakunde honen gastuak, Ikastola guztien artean ordaintzen ziren, haur kopuruaren arabera.



Begoña Munduate (andereñoa).

Ezkerretik eskuinera, goiko ilaran, Izaskun Munduate, Maite Goikoetxea, Ainhoa Zurutuza, Nekane Munduate, Loreto Caballero, Maitane Aizpurua eta Josune Aldabe.

2.ilaran: Aitor Sukia, Pello Barandiaran, Ainhoa Irastorza, Aloña Auzmendi, Amaia Oiarbide, Izaskun Eiguren, eta Aritz Etxeberria.

Lurrean, Mikel Galparsoro, Jose Luis Goikoetxea, Itziar Osoro, Josune Barriola, Eider Bereziartua, Joseba Gorostidi eta Aitor Goikoetxea.

## San Gregorio Ikastola

1968an, guraso eta gazte talde bat hasi ziren elkartzen auzoan Ikastola sortu nahian, euren seme-alabek heziketa egokiagoa eta euskalduna izan zezaten, San Martinen eta beste hainbat herritan egin zutenaren antzera.

1969an ireki zen Ikastola, Elizaren babesean, Etxeberri eliz etxeko "Saloiari", gurasoek auzolanean egokitu eta osatutako gela batean bere zerbitzuekin osatuta, D. Manuel Etxeberria erreto-re jaunaren laguntzarekin.

Arantxa Aierdi izan zen lehen andereñoa, berak guraso batzordearekin, kudeatzen zuen Ikastola.



1977ko Eguberrietako argazkia.

Ezkerretik eskuinera, goiko ilaran: Elena Apalategi (Etxe berri), Elisabet Arrese (Olalde), eta Idoia Beloki (Ugalde).

2. ilaran: Iñaki Aierbe (Olalde), Julen Munduate (Olalde), Eli Auzmendi (Olalde), Maria Jose Bazterrika (Olalde), Amaia Bikuña (Sorozabal), Amaia Aierbe (Olalde), Carlos Perez, Mikel Goikoetxea (Artilako), Silbia Dorronsoro (Olalde), Anartz Zurutuza (Olalde), eta Asier Auzmendi (Olalde).

3. ilaran: Didaka Albisu (Olalde), Joseba Arin (Bordatxo), eta Jon Arin (Bordatxo).

Eserita: Eli Cid (Sutegi), Edurne Munduate (Olalde), Aritz Cid (Sutegi), Maider Aierbe (Olalde), ezezaguna, Iñigo Dorronsoro (Olalde), Zorion Bazterrika (Olalde), Agurtzane Munduate (Olalde), Ana Perez, eta Larraitx Zurutuza (Olalde).

Honako sei haur hauekin ekin zioten:

- |                                  |                    |
|----------------------------------|--------------------|
| - Amaia Arrese Arratibel         | Olalde             |
| - Ana Mintegi Dorronsoro         | Sutegi             |
| - Joxe Migel Galparsoro Aldasoro | Olalde             |
| - Xanti Aierdi Zurutuza          | Lauztiberri        |
| - Elena Dorronsoro Munduate      | San Gregorio Txiki |
| - Juan Mari Bazterrika Mujika    | Arbotoneta         |

Berehala beste haur hauek ere batu zitzaizkien:

- Aintzane Arrese Arratibel	Olalde
- Elisabet Arrese Arratibel	Olalde
- Elena Apalategi Apalategi	Olalde
- Jose Ramon Lizarraga Goikoetxea	Olalde
- Nekane Galparsoro Barandiaran	Etsetxo berri
- Jose Antonio Sánchez	Ettxeberri
- Andoni Arin Bazterrika	Telerdi
- Jon Aitor Ettxeberria Begiristain	Estanko
- Alberto Azpiazu Altolagirre	Etsetxo

San Gregorion bi eskola nazional zeuden, bata mutilentzat eta bestea neskentzat, bakoitza bere maisu-maistrarekin, hauek ikastola sortu zenean haur gutxirekin gelditu ziren. Berehala hasi ziren arazoak: kalitatea, metodoa, erlijioa, titulu eza, politika... argudio hartuta apaizak ikastolatik pixkana pixkana urruntzen joan ziren eta maisu-maistrek elkarturik gogor ekin zioten ikastolaren aurka. Auzoan zehar salaketa faltsu eta iraingarriak zabaldu zituzten, politika eta erlijio gaietan gurasoak eta aldi berean herritarrak beldurtuz. Batzar bat egitera ere iritsi ziren, apaiz eta maixu-maistrek auzo batzarrera deitu zituzten guraso eta auzokide guztiak. Jende asko elkartu omen zen eta tentsio handiko unea bizi izan omen ziren, bertan salaketa gogor eta poizintsuak entzunez ikastolaren aurka.



San Gregorioko Ikastolako haurrak dantzan, mediku etxearen aurrean.

Karmelee Aierbe (andereñoa), bere ezkerrean Elena Dorronsoro (Artilazpikoa), Amaia Arrese (Olalde), ezezaguna, Alberto Azpiazu (Etsetxo), Elisabet Arrese (Olalde), Aintzane Arrese (Olalde), Nekane Galparsoro (Etsetxo berri), ezezaguna eta Josune Begiristain (Lasa enea).

Egoera larrian geratu zen Ikastola eta auzoko Batzordeak ikastola mugimenduko Joxe Antonio Zaldua eta Joxe Muruarengana jo zuen. Hauek bideratuta, D.Franzisko Ezkurdia Irizar, San Martingo erretorea, D. Eujenio Arregi eta D. Jose Lasa Apalategi, Obispaduko ordezkariak ikastolatan, bildu ziren behin eta berriro arazoa aztertu eta irtendiberen bat eman nahian. Elkarrizketa haien ondoren, San Gregorion berehala baretu zen egoera, auzoko apaizak isildu eta aldentu ziren Ikastolatik<sup>62</sup> eta bertako maixu-maistrak ere isildu ziren.

Hurrengo ikasturtean, haur gehiago etorri zen Ikastolara eta hor ere ikusi zen herritarren nahia eta aukera.



San Gregorioko ikastolako haurrak jolasean.

Karmele Aierbe, andereinoa, bere ezkerretik, ezezaguna, Alberto Azpiazu, Nekane Galparsoro, Amaia Arrese, ezezaguna, Aintzane Arrese, Elena Dorronsoro, Ana Mintegi eta Elisabet Arrese.

1970/71 ikasturtea bukatu zenean, ordura arte irakasle izan zen Arantxa Aierdi andereñoa Donostiako Ikastola batera joan zen. San Gregorioko ikastolak bere lanarengatik eta igarotako garai zail haietan tinko eta zintzo jarraitu zuelako bere lekuan, esker ona azaldu zion.

1971/72 ikasturtean, Karmele Aierbe hasi zen andereño lanetan eta hurrengo urtean ere, haur kopurua hazitzen joan zen. Horrela, 1979an Ikastolan, 23 haur zeuden andereño batekin eta nazionaletan bederatzi bi maixu-maistrakin.

<sup>62</sup> Ikastolan eta erretoretzan zeuden agiri guztiak ezkutatu egin zituzten, eta hurrena erretoreari eskatu zitzaizkionean, denak sutan erre zirenen erantzuna jaso zen.

Ekonomi aldetik erakundeen laguntzarik gabe, ikastoletan arazoak zeuden, bai San Gregorio-koan eta baita San Martingoan ere, baina gurasoek zentzuzko neurrian hileroko ordainketa euren gain hartzen zuten.

Hala ere gurasoetatik biltzen zen dirua ez zen nahikoa zeuden beharrak osatzeko. Besterik ezean hainbat bide urratu beharrean gertatu ziren.

- Guraso bakoitza gogozko kuota bat izendatzea gonbidatu zen.
- Herritar guztiei diru laguntza eskatu zitzaaien, ikastolako bazkide izendatuz.
- Ekintza bitartez dirua lortzea bultzatu zuten (zozketak, festetan tabernak, gabon kantak, tonbola eta abar)

Honela igaro ziren lehen urteak, baina nolabait ere diru larritasun handiak igaro behar izan ziren, askotan soldatak ordaintzeko dirua bildu ezinean, irakasleek zenbait hilabetetan lan-saririk jaso gabe gelditu behar izaten zuten. Hauek sufritu zuten gehienbat egoera hura.

Ataungo Udalak bestalde, bere asmo batzuen artean, euskararen erabilpena eta Irakaskuntza zituen ardura nagusienetakoak eta Ikastola erakunde bezala egiten ari zen lana goraipatzen zuen, bere laguntza eskainiz.

Hona hemen, 1968ko otsailaren 7an, Udal Batzar Nagusiak hartutako akordioa:

*“Según acuerdo adoptado en el Pleno de fecha 29-12-1967, se celebró en esta localidad en los días 3, 4 y 5 de enero, una Asamblea informativa para exponer la situación y problemas actuales.*

*El día 3 de enero a las 7,30 de la tarde en el Salón Parroquial de San Martín, el Sr. Alcalde tras su salutación y bienvenida dio abierta la Asamblea, y a continuación expuso las razones por las que la Corporación se veía obligado a organizar esta Asamblea.*

*Los temas desarrollados en la misma durante los tres días a cargo de las distintas delegaciones informativas municipales, fueron las siguientes:*

*Situación escolar y posibles soluciones.*

*Nuevos planes para los aprovechamientos forestales.*

*Exposición de las obras de primera necesidad y de máxima urgencia.*

*Actual situación económica de la Corporación, nuevos impuestos y tasas.*

*En esta Asamblea se vio la necesidad de una mayor participación de vecinos en los problemas municipales. Para ello, se acordó elegir libremente dos comisiones, una para el estudio del problema escolar, y otra para el estudio del Plan General de Ordenación Urbana. Estas comisiones serían un complemento de las existentes de Cultura y Obras.*

*Con la asistencia de unas 500 personas correspondió caballerosamente Ataún a su Asamblea.*

*Ante estos pequeños pasos hacia la toma de conciencia municipal, la Corporación acuerda por unanimidad constar en Acta así como incorporar al expediente correspondiente, los informes emitidos por las distintas comisiones municipales que han tomado parte en dicha Asamblea.*

*Se viene observando últimamente el auge que está adquiriendo nuestra lengua vernácula “el*

*euskera” lo que esta Corporación admira y ve con verdadero cariño, y a fin de proseguir en esta labor con el mayor interés posible, se acuerda que tanto las solicitudes, instancias u otra clase de escritos que se dirijan a este Ayuntamiento, se admitan en bilingüe, o sea, en euskera y castellano, así como el que la Corporación en sus comunicaciones, bandos, circulares, ordenes, etc., siga el mismo procedimiento.<sup>63</sup>*

Alkatearen jokabideak ez ziren nonbait gustukoak Gobernadore Zibila zen Oltra Molto jaunarentzat, eta 1968ko abuztuaren 27an, kargua uzteko agindu zion herriko Alkate jaunari.

Zinegotziek horren berri jakin zutenean, irailaren 9an Batzar berezia antolatu zuten eta bertan adostasun osoz Gobernadore jaunarengana zuzentzea erabaki zen honako iritziz hauek argudiatuz:

*Juan Auzmendi Galparsoro fué elegido candidato para ocupar el puesto de esta Alcaldía a petición de una mayoría de vecinos de esta Villa.*

*Ante este deseo unánime, el Gobernador Civil D. Manuel Valencia Remon, accedió a su nombramiento en febrero de 1.967.*

*Desde que tomó posesión de dicho cargo ha puesto todo su interés en conocer la realidad de la situación y problemas de nuestra Villa, invitando a todos los vecinos a tomar parte y a contribuir activamente en la solución de nuestros vitales problemas. Su lema ha sido siempre hacer Ataun grande en la toma de conciencia municipal y colaboración de todos los ataundarras.*

*La Corporación ha visto siempre en él, un hombre responsable, serio e incansable, modelo de verdadero Alcalde.*

*En breves palabras así consideramos a nuestro Alcalde, y creemos que este es también el sentir de todo el pueblo.*

*Ataun que ha gozado de tranquilidad y orden, aún en estos últimos meses, vemos que empieza a desasosegarse ante la inesperada noticia y fracaso de sus anhelos.*

*Ante esta profundas exposiciones, la Corporación por unanimidad acuerda rogar al Gobernador Civil que reconsidere su decisión para que todavía unos años preste Juan Auzmendi su valiosa entrega como Alcalde, al pueblo de Ataun, remitiéndole a tal efecto copia certificada del presente acuerdo.<sup>64</sup>*

Mementoz ezerezean gelditu zen Gobernadorearen asmoa.

<sup>63</sup> AUA: 515-01

<sup>64</sup> AUA: 515-01

## Beasaingo Alkartasuna Lizeoa

Goierrin ikastolak 1964tik aurrera sortu ziren, lehenengoa Lazkaon eta ondoren bailarako beste herrietan.

Herri bakoitzak bere Ikastola eduki arren, eskualdeko guztien artean harreman estua zegoen eta urteak aurrera egin ahala, sortu ziren beharrari erantzuteko nolabaiteko batasun bat beharrezko suertatu zen.

Estatuan eratuta zegoen Irakaskuntza Planari erantzuteko, ikastolak 12 urtetik aurrerako haurrentzat jarraipen bidea antolatu behar zuen eta hori herri edo ikastola bakoitzak bakarka egiteko ahalmenik ez zuen.

Horrela, Beasaindik karmelita lekaimeak joan ondoren, euren ikastetxea libre geratu zen eta Ikastola mugimenduak eraikin berri baten beharrea aurkitzen zenez, erostea erabaki zuen.

Horretarako, Aranealde S.A. izenekoak sortu zen, Inazio Arrizabalaga jauna lehendakari zuela eta berehala Alkartasuna Lizeoa jarri zen martxan bailarako beste herrietako haurrak (hasi Legorretatik eta Zegamara artekoak) ere bertan jarraitzen zuten bigarren zikloko ikasketekin.

Eraikuntza honen finantziario eta antolaketarako, makina bat lan, buruauste eta arazo gairak behar izan zuten garaiko guraso eta laguntzaileek. Orduan sortu ziren bazkide bonoak. Bailarako zenbait lantegiren laguntza, gurasoen aportazio, laguntzaileen eskeintzak eta beste zenbait ekintzari esker (tombola, taberna, zozketa, Kilometroak eta abar...) burutu zen zorra ordaintzea.

Diru iturri garrantzitsu bat aipatzekotan ezin ahaztu aseguru etxe baten ekarpena; enpresa honek eskualdean egiten ziren poliza bakoitzeko komisio bat ordaintzen zion mugimendu honi. Gurasoek egindako jesterioari esker, poliza ugari lortu zen.

Irakasleen ahalegin itzela ere aipatzekoa izan zen. Bestela izango zituzten hainbat eskubideri uko egin eta ikastolaren mesedarako, soldata apalagoak jasotzen zituzten, Gizarte Segurantzak kotizatu gabe egon ziren hainbat urtetan.

SOCIEDAD COOPERATIVA DE PADRES DE ALUMNOS	
<b>"ALKARTASUNA"</b>	
BEASAIN	N: 438
<b>APORTACIONES</b>	
Socio nº 366	
<i>Este resguardo justifica la aportación efectuada a esta</i>	
<i>Sociedad Cooperativa en la fecha abajo señalada por valor de Ptas.//10.000.-//</i>	
<i>(<del>DIEZ MIL</del> pesetas) y realizada por:</i>	
<b>D. VICTOR ESQUISABEL BEGUIRISTAIN</b>	
Casa Iru Bide	Beasain, 26 <sup>da</sup> Enero de 1977
<b>ATAUN SAN MARTIN</b>	El Presidente.
ALKARTASUNA, S. Coop. - BEASAIN	

Lizeo Alkartasuna ikastetxea erosi zenean, guraso batek egindako diru aportazioa.

## Andereñoen erresidentzia

Ikastolen hasierako urteetan, irakasleen formakuntzan Anadereñoen Erresidentziak betebeharrantz garrantzitsua izan zuen. Ikastolatako andereño ugari bertatik pasatu ziren. Hona hemen han prestaketak jaso ondoren gure herrian lan egin zuen andereño baten esperientzia.

*1965. urtea zen, udazkenean ikasturte hasieran Lazkaoetik Donostiara joan nintzen magisteritza ikasketak egitera. Ordurako ikasketetan aurretik emandako pausoak, batxilergo-egitea hain zuzen, gerora ikastolan lan egiteko asmoarekin bideratu nituen. Guzti honetan Lazkaon apaiz zegoen Jaxinto F. Setienek izan zuen eragina, honek bultzatu baikintuen lagun taldetxo bat, ni tartean, ikasketak egitera, ikastolak behar gintuela eta...*

*Horrela, Groseko Zabaleta kaleko 47.ean zegoen etxebizitza batean jarri nintzen bizitzen beste lagun batzukin. Honen antolaketa ikastola inguruko jendea zebilen, arduradun bezala Pakita Arregi.*

*Adin desberdinetako neska geunden bertan, batzuk ikasketak bukatuta zituzten eta zenbait ikasletoetan praktikak egiten ari ziren, beste batzuk, berriz, magisterioko ikasketak egiten ari ginen maila desberdinetan. Baziren ere titulurik gabe praktikak egiten ari zirenak.*

*Gure arteko harremanak oso onak eta bide batez oso aberatsak ziren. Gogoan dut iritsi berritan zein harrera beroa jaso nuen. Elkarri laguntzeko beti prest, bai ikasketetan zein beste arlo batzutan. Hori estimatzekoa zen, batez ere artean esperientzia txikia genuenon aldetik.*

*Astea ematen genuen han, jai egunetan eta aste buruetan etxera etortzen ginen. Hau ez zen horrela besterik gabe egiten, aholku garbia jaso genuen honi buruz, ez genuen gure herria alboratu behar, ez eta ere bertan genituen harremanak eten. Garrantzitsua zen herri mailan ondo txertatuak egotea. Guzti honegatik ezin ginen gelditu erresidentzian jai egunetan, nola eta ez zen arrazoi bereziren batengatik emandako baimena zela eta. Honen harira gogoan dut detaile txikiak ere zaintzen genituela, garai hartan eskuko "bolsoak" eramatea ez zen ohikoa herrietan, Donostian, aldiz, eskolara joateko jada erabiltzen genituen, bada aste buruetan han utzita etortzen ginen, ez genuen nonbait egokia ikusten "pijo" itxura ematea.*

*Ez zen bizitoki arrunta, bertan "Escuela Normal de Magisterio"n ikasten ez genituen hainbat arlo aztertu eta sakontzeko aukera izan genuen. Irakaskuntzako ikasketa paraleloak egin genituela esan dezakegu.*

*Euskal Literatura irakastera Juan Mari Lekuona etortzen zitzaigun, ordura bitarte ez genuen ezagutzarik gai honen inguruan. Klaseak bukatutakoan sari bezala, kitarra hartu eta bere poemak musikatuta kantatzen zizkigun, guretzat arratsalde haiek magikoak izaten ziren.*

*Euskal gramatika Kontxita Beitiak ematen zigun, andereño hau Elvira Zipitriarekin ikasitakoa zen. Euskal deklinabidea Lazkaoko Joxe Mari Aranbururekin landu genuen, hau bertako Beneditarretan euskara lantzen zebilen taldeko partaidea zen.*

*Horrela arratsaldero gai desberdinak jorratzeko aukera izan genuen, irakasle bezala unen-uneko gaiari zegokiona izaten zelarik.*

*Ikastolak zabaltzen zihoazen heinean, beharrak ere handitzen eta espazio handiago baten premian erresidentzia tokiz aldatu zen, Grosetik Antiguoko auzora joan ginen, Matia kalera.*

*Antiguoko auzoa, herri txiki bat zen Donostia barruan eta erraz sartu ginen bertako kultura mugimenduan. Bestalde, ekintza handiko urteak ziren haiek, eta ikastolako erresidentzia erreferente bilakatu zen. Euskal kulturean mugitzen zen jendearen joan-etorria handia zen, idazleak, abeslariak, erlijiosoak, artistak... noiz nahi izaten genituen hauekin mahai inguru informalak edo solasaldiak.*

*Egonaldia ordaindu ere egin behar zen eta horretarako diru pixka bat irabazi ahal izateko klase batzuk ematen, itzulpenak egiten eta beste zenbait lanetan saiatzen ginen. Batzutan honetarako oztopoak ere izaten genituen, zaila baitzen barruan genituen ikasketak eta kanpoko lanak uztartzea.*

*Beranduago Aldapetako Villa Leria-ra aldatu zen erresidentzia. Ateak irekita zeuden bertan bizi ez ziren gure lagunentzat ere, honek harreman zabalak garatzeko aukera ematen zigun guztioi, jende asko eta era guztietakoak ezagutu ahal izan genituen. Esperientzia eta informazioa trukatzeko giro aproposa genuen.*

*Guztira bost ikasturte eman nituen erresidentzian, aipatutako hiru toki desberdinetan. Oso urte politak bezala ditut gogoan, asko ikasi nuen eta lagun handiak egin nituen.*

**Mari Karmen Iztueta Jauregi (Irakaslea)**



1981 ean, Patronatoko haurrak Bermeen.

Ezkerretik eskuinera: Maria Eujenia Goikoetxea, Izaskun Kerejeta, Ane Agirre, Lourdes Rezola, Lourdes Altuna, eta Juan Inazio Bikuña. Makurtuta: Maria Karmen Iztueta (maistra) eta Joseba Andoni Barandiaran.

#### 4.4.2.-Patronatoa

1970ko maiatzaren 13an, Zumarragako Merzedaria lekaimegoen buruak jakinarazi zuen ikasurte bukaeran utziko zutela Ataunen zeukaten ikastetxea, baita berari zegozkion ondasunak, erabaki hori gerora Notario jaunaren aurrean egiaztatuko zutela zioten.

Momentu hartan Juan Jose Barandiaran Zeberio apaiz jaunaren testamentuak berriro garrantzi berezia hartu zuen eta bere nahia zen bezala, testamentuan hirugarren tokian izendatzen zituen Karitateko Karmelita lekaimeei eskaini zitzaizen egiteko hau, baina hauek ezetza eman zuten.

Bestalde, apaiz honen testamentua zela eta, Hezkuntzako Ordezkaritzan eta Gobernadore Zibil jaunarekin jestioak egiten hasi zen herriko Eskola Batzordea.

Gabillene etxea bere ondasunekin Ataungo benefizentzi edo ospital bihurtzea nahi zuen Gobernu Zibilak. Gobernadore Zibilak jakinarazi zuenez, irakaskuntzako benefizentzia bezala onartzeko ez zuen eragozpenik ikusten, baina ulertu ezina edo interpretazio desberdinak nabarmen ziren agerian. Irakaskuntzarako bideratzen bazen, Fundazio bat sortu behar zen eta Ministerio de Educación delakoari zegokion arautze lana; aldiz, Benefizentzi- ospital bihurtzen bazen, Ministerio del Interior arduratuko zen honen arautze lanaz.

Merzedariak joateak, epe motzean konpondu beharreko arazo bat sortu zuen, aurrera egiteko asmoarekin eta arazoari irtenbidea aurkitu nahian, herrian zeuden elkarteei deitu zien Udalak.



Behoko Ikastolatik Gabillenera ondoren, gela portatiletan zeudenak.

Andereñoa, Begoña Munduate, ezkerretik eskuinera, goiko ilaran, Mirian Galparsoro, Unai Sukia, Argoitz Galparsoro, Aimar Lizarazu, ezezaguna, Oihana Mendizabal, Idoia Rodriguez, eta Jose Maria.

Eserita: Maria Tato, Eneko Imaz, Arantxa Barandiaran, Gorane Urdangarin, Haritz Urrestarazu, Jaione Gereñu, Garikoitz Mendizabal, eta Ander Gorostizu.

Guraso Elkarte eta Ikastolako batzordeak, kementsu heldu zioten egiteko honi, irtenbideak urratzeko asmoz Udalaren laguntzarekin eta behin-behineko Batzordea osatu zuten. Batzorde hau Ataungo Guraso Elkarteko, Udaleko eta Elizako ordezkariak osatzen zuten. Hauen helburua Ataungo hezkuntza antolatzea zen. Momentu hartan, mojek Gabillene uztear zeuden gai honek berealdiko garrantzia hartu zuen. Eta euren asmoak gauzatzeko bidea ikusi zuten. Batzordeak berehala ikusi zuen herri osorako irakaskuntzaren planifikazioa egitea beharrezkoa zela:

- Eskola Nazionalak, batik bat San Martinen, ez zioten erantzuten auzoaren eskaerari.
- Eskola unitarioen ordez, mixto eta graduatuak sortu behar ziren.
- Irakaskuntza doan izan behar zuen.
- Erabiltzen zen pedagogia egokitu eta berritu behar zen.
- Euskara bermatu behar zen eskolan.
- Irakaslegoaren egonkortasuna lortu behar zen.

Kezka horiek denak aztertu ondoren, Estatuan aurreikusita zeuden eskola motak aztertu ziren, nazionalak, pribatuak eta patronatoak.

Beste batzuen artean, bi arrazoi nagusi hauengatik, Patronato sistemakoak egokienak zirela iritzi zion Batzorde honek: irakasleak aukeratzeko eskubidea ematen zitzaion eta hauen soldataren ordainketa, Estatuak bermatzen zuen.

Bailaran Hezkuntzako Ikuskari zen Tomás Villar Hidalgo jaunari ere agertu zitzaizkion asmoak, nahiz eta Patronato sistemarekin ez bat etorri aurrera jarraitu zuen ekimenak.

Osatu berria zen Batzordeak hamar orriko formulario ofizial baten bitartez, eskatzen ziren argibide eta araudiak bete eta prestatu ondoren, Donostiako Hezkuntzako Ordezkaritzara bidali zituen segidan ageri denak, onartuak izan zitezten. 1970ko azaroaren 6an, Hezkuntza Sailak Patronato Sagrado Corazón deituriko erakundea onartu zuen.

Berehala, 1970/71 ikasturtea eratzeko irakasleak aurkitu eta beste prestaketa lan berezi batzuk moldatu behar izan zituen. Aurreko urteetan lekaimerekin eta Nazionaletan ibilitako haurrak (120/130 inguru) honako irakasle berri hauen eskuetan gelditu ziren.

- Maria Karmen Aranburu Arakama
- Maria Karmen Iztueta Jauregi
- Elisa Bustillo Gonzalez, andereñoak.

*1970. urtea zen, ni alargundu berria nintzen eta nire bizimodu berria antolatzen hasia nengoen. Nire senarra zen Aitorrek lan egiten zuen Euskadiko Kutxoakoek bertan lan egiteko aukera eman zidaten.*

*Hartan, maiatza aldera, Ataundik jaso nuen deiak, bilera batera eraman ninduen, Udaleko ordezkari ziren Juan Auzmendi, Euljio Aldasoro, Jose Bikuña..., eta agian beste norbait ere etorri ziren Lazkaora. Gabilleneko monjak bazijoazela eta, Ataungo herriari begira irakaskuntzan zituzten asmo eta proiektuen berri eman zidaten. Bidean bi aukera nituen, ez zen erraza hautua egitea.*

*Honetan nenbillela, senarraren familikoen oso etxekoa zen On Segundo Dorronsororen hitz egiteko aukera izan nuen. Nire egoeraren berri eman nionean, hura ere ataun-*

darra zenez, haren iritziak Ataun aldera bideratu ninduen. Garrantzitsua ikusten zuen irakaskuntzan egin nezakeen lana eta oso beharrezkoa une harretan sortzen ari zen irakaskuntza giroa. Bide batez Gabilleneko On Juan Barandiaranen nahia betetzen lagunduko nuen.

Etxekoak ere gehiago bultzatu ninduten irakaskuntza bidea har nezan, hori baitzen azkenik nire bokazioa eta ilusioa. Erabaki hau hartu ondoren, laguntza behar nuela ikusita, lankide izango zirenen bila hasi nintzen. Segituan bururatu zitzaidan betiko ezaguna nuen irakaslea zen Maria Karmen Iztueta. Euskara irakasten zuen Donostiako EUTGen, baina bere asmoa ikastolarako lana egitea zenez, bat egin zuen Ataungo proiektuarekin.

Bere laguntza ezin hobea izan zen. Taldeko hirugarrena Elisa Bustillo izan genuen, hau Madrilgo eskola "pilotu" batetik zetorren eta aberasgarriak izan ziren bere ekarpen pedagogikoak.

Hasiera haiek oso gogongarriak izan ziren, esku bete lan genuen, baina ilusioa eta saioia ere gainezka. Makina bat lan egin zen garai hartan auzo-lanean. Ezin ahaztu Larratzeko Ramonita, lanak bukatzerako beti prestatzen zigun "tranpala" eta armoni ederean ematen genion bukaera lan saioari, guraso, laguntzaile, eta irakasleok. Horrela saiitzen ginen gure "Gabillene zaharra" txoko atsegina eta alaia izan zedin.

Denok sinesten genuen esku artean genuen proiektu harretan eta denok, guraso, laguntzaile, irakasle, eta ikasleak atera genuen aurrera garai haietan hain zaila zen asmo hura.

Izan genituen gure artean maisu-maistra erdaldunak, orduko "nazionaletakoak", beti saiatu ginen hauekin harreman onak izaten, batik bat gure lana oztopa ez zezaten. Anekdotak bezala, Avilatik etorritako maistra batena azalduko dizuet, gaztea zen eta ondo txertatu zen herriko gazte koadrilletan. Ikasturte bukaeran aitortzen zigun Inspeziotik "egiteko" agindu bat zekarrela, gure lana behatzea eta beste irakasleak nola hartzen genituen jakinaraztea.

Herrian ere giroa nahaste aldera, igande batean meza nagusitik irteterakoan, "papel-txoak" bota zituzten, titulu gabeko andereñoak ginela esanez eta gure lana gutxietsiz. Ez dakit zer eragin izango zuen, guk geurean, aurrera jarraitu genuen.

Guardia Zibilen "bixita" ere izan genuen behin, herrian miaketa zabala egiten ari ziren eta gure eskolara ere etorri ziren. Eguardiko ordua hartu zuten horretarako, haurrak etxean zirela, gaitzerdi ! Idatziak, liburuak, materiala saiatu zuten, zer izango eta arbelean idatzita zegoen testu bat ere zuten: "...eta...eta" hitzak zer egiten zuen hor galdezka gogor ekin zioten, nik lokarri bat zela eta gramatikako azalpenak eman behar izan nizkien.

Gure lanak sinesgarritasuna hartu zuen heinean, Administrazio aldetik hainbat oztopo izan bagenituen ere, bertako pertsona batzuen laguntza ere jaso genuen. Hara nola Carmen Arberas, Sara Martinez... Hauek Ataungo Udalean egin zen bilera batean, irakasle euskaldunak behar genituela egin zitzaien eskaerari idatziz ezin zutela baiezkota agindu esan bazuten ere, egitez hori betetzen saiatu ziren. Behin Granadako maisu bat

*izendatu zuten Ataungo eskolarako, eta hau azaldu zitzaigun bere ohiko egurrezko maletarekin... guk Delegazioara deitu eta lehen... Ataun orde z maisu honi Hondarribi eskeini zioten, bera gustora eta gu zer esanik ez !*

*Gure ibilbidean aipatu nahi nuke Ipar aldeko ikastolen hasieran, gure eskolak izan zuen harremana. Bertako andereño-irakasle prestaketarako gure eskolako ateari ireki zitzaizkien. Gure artean izan genituen, duela gutxi telebistan ikusi dugun Ana Mari terapeuta, Mugerreko Maria Luisa, Baigorriko Maddalen, Philipp eta Jean Leon, Itsasuko Maddalen, Irisarriko Ivette, Hendaiaiko Eusebi... ez ditut gogoan haien abizenak, eta agian beste norbait ere izango zen.*

*Horrela urteak aurrera zihoazen, gure lana ere aldatzen eta irakaskuntza eguneratzen saiatu ginen. Eskola berri bat izatearen ametsa eta premia gauzatzeko pausoak ematen ari ziren. Guztion ahaleginaren ondorioz lortu genuen azkenik gaur dugun "Joxemi Barandiaran" eskola. Honekin ez da bukatu ordea, hasierako asmo hura: "Ataunen irakaskuntza euskaraz", lanak aurrera jarraitzen du. Gure lana alferrikakoa izan ez dela-koan nago, denon artean egindakoak eman du bere uzta.*

**Maria Karmen Aranburu Arakama (Irakaslea)**



1981ean, Gabillenen Patronato eskolako ikasleak.

Ezkerretik eskuinera, goiko ilaran: Maria Karmen Aranburu (maistra), Madalena Aierbe (Olatza txikia), Ane Miren Agirre (Sariarte), Araitz Rezola (Alzanipe), Junkal Martin (Alzanipe), Elisabet Auzmendi (Olalde), Elena Goikoetxea (Mantxintxu), Amaia Bikuña (Sorozabal), Jone Galparsoro (Zubiondo), Biktor Manuel Martin (Antonione azpikoa) eta Iñaki Galparsoro (Sabiaga).

Beheko ilaran: Iñaki Munduate (Alzanipe), Jose Bizente Goena (Taberna berria), Iñigo Aldasoro (Upategi), Iñaki Intxausti (Dornarinea), Mikel Munduate (Arkaitzpe), Juan Manuel Etxeberria (Agarre txikia), Jon Etxeberria (Barberoetxe zarra), Biktor Oroz (Auzmendi enea), Xabier Eskisabel (Espilla) eta Iñigo Erauskin (Toki alai).

*1970ean, Ataunen zegoen eskola erdalduna zenez, herriko arduradun batzuek Eskola Euskaldun bat sortzeko ekimena bultzatu zuten. Gauzak horrela, 1970eko Irailerako prestakuntzak burutuak ziren.*

*Halaber, halako ekimen horri Ataungo herritarrek harrera ezin hobea egin zioten.*

*Horretarako, Ataungo arduradunek, bideragarria izan zitekeen forma administratibo bat sortu zuten, herriko Euskal Eskola Patronatu gisa eraikitzea erabaki zutenean.*

*Halare, Patronatua martxan jarri zenetik sei hilabetera, otsailean hain zuzen, Hezkuntzako Delegazioarekin izandako harremanen ondorioz, Patronato izatetik, Euskal Eskola Publikoa izatera onartu zuten.*

*Lehenbiziko ikasturte hartan hiru ikasgela bideratu eta gauzatu ahal izan ziren. Hasiera hasieratik, kalitatezko irakaskuntza eskaintzea izan zen irakasleen asmoa.*

*Garia hartan aurrerakoitzat jotzen zen metodo pedagogikoa, "Irakaskuntza Programatua" alegia, erabiltzea erabaki zen.*

*Ikasturte hartan Delegazioko Ikuskaria etorri eta eskolako nondik norakoak zehazki aztertu zituen.*

*Eta hara non, kanpotik jakin ahal izan genuenez, Ikuskariak gure eskolako irakaskuntzari buruz, oso iritzi ona hartu eta itzuli zen Donostiara.*

*Anekdotaxo gisa zera aipatu genezake, On Jose Migel Barandiaranek, eskola eta Gabillenea ezagutzeko gogoia handia agertu zuen eta bisita egin zigun.*

*Halako pertsonaiaren bisita eta ikusmina, eskolako arduradunek ohore bezala hartu zuten.*

***Elisa Bustillo Gonzalez (Irakaslea)***

Haur hauek gaztelerazko irakaskuntza eta sistema pedagogiko tradizionaletik heldu ziren. Gazteleraz jarraitu bazuten ere, euskarara poliki-poliki hurbiltzen joan ziren, pedagogi bide berriak ere urratuz. Lehengo ikasle hauek horrela jarraitu zuten bukaera arte, ikasle berriak, beheko mailatakoak, ikastolako irakaskuntza eran murgildu ziren. Urte hauetan bereziki zailtasun handiak pairatu zituzten material eskasiagatik, irakasle falta gaitik e.a.

Elisa Bustillo andereñoak urtebete egin zuen eta hurrengo ikasturtean bera ordezkatzeko, Kristina Rubio Mendiluze andereñoa etorri zen.

*Ataungo Patronatorako irakasle bat behar zuten hurrengo ikasturterako, euskalduna eta oposizioduna izan behar zuen. Ni orduntxe oposaketak egin berria nintzen, oraindik praktikak egin gabe eta galdetu zidaten ea Atauna irakasle joan nahi nuen euskarazko ikasteko konpromezua hartzen banuen behintzat, hasiak baitzeuden Eskolaurrean klaseak euskaraz ematen. Nik ez nekien euskeraz baina ikasteko asmoa bai eta uda hartan bertan hilabetez ikastaro trinko bat egin nuen.*

*Gero Ataunen, lehenengo ikasturtean Maria Karmen Iztuetak ematen zizkidan klaseak eta hurrengoan Lazkaora joaten hasi nintzan alfabetatzeko klaseetara. Esan daiteke Ataunen eta "belarri" eginez ikasi nuela euskera.*

*Garai hartan Maria Karmen Aranburu eta biok ginen oposiziodunak eta Patronatoak bere irakasleak aukeratzeko eskubidea zuenez, eta bere helburuetako bat herrian eskola bakarra eta euskalduna osatzea zenez, eskola nazionalerako plazak konkursora atera zirenean eskatu ziguten guk bi plaza haiek hartzeko. Baina ministeriotik "plazas de difícil provisión"tzat jotzen zituzten eta sei urterako hartu behar genituen.*

*Mari Karmenek konkurtsatu eta plaza hartu zuen, neri berriz, sei urte gehiegi iruditu zitzaidan eta ez nuen hartu; gero sei urte eta gehiago ere eman nituen Ataunen baina.*

*Lehenengo urteetan ez zegoen eskolarako materialik edo euskerazko testu-libururik, baina guk prestazen genuen behar genuena, gelan sortutako ipuinez eta bestelako testuez osatzen genuen gelako liburutegia.*

*Beasainen astero elkartzen ginen Goiherriko ikastoletako irakasleekin, taldean irakurri eta aztertzen genituen zenbait pedagogi-berritzaileen inguruko testuak eta liburuak gero gure lanean eragina izango zutenak.*

*Oso eskola bizia zen, herrian inplikaturik, dedikazio handia zegoen bai gurasoen aldetik, Patronatoko Juntaren aldetik, irakasleen aldetik,...*

*Lehenengo urteetan Begoña Azpiroz eta biok hartu genuen jantokiaren ardura; han ibiltzen ginen janaria nondik merkeago aterako. Irakasleen guraso asko CAFen lan egiten zuten eskatu genuen hango Ekonomatoko kartila, askoz ere merkeago bait zen han erostea, baina ukatu egin ziguten eta Anita Dorronsororen kartilarekin erosten genuen.*

*Anitak ere bere aldetik bazituen bere hornitzaileak: Arbizuko bati patatak erosten zitzaion, Silbestreari arrautzak...*

*Ministeriotik, ikasleko hainbeste ematen zuten eta horretaz gain bazkaritarako zenbait jenero edo jaki bidaltzen ziguten, batzuk oso arraroak ziren guretzat kontutan izanik bazkarian emateko zirela: latak sardinak, saltxitxak, frankfurt-ak...*

*Hasi ginen saltxitxak patata frijituekin ematen bigarren platerean... eta hura desastrea bazkaltzen bukatzean zolua saltxitxaz betea zegoen! Ez zitzaizkien gustatzen, haurrak ez zeuden ohituta horrelako saltxitxak jaten, baina latak pilatzen ari ziren.*

*Halako batean norbaitek izan zuen ideia, ez dakit Anita ez ote zen izan: gutxi batzuri gustatzen zitzaizkien saltxitxa haiek, eta hasi ginen aukeran ematen, nahi zuenak txistorra patata frijituekin noski.*

*Besteek gustora jaten zutela ikusita, aldiro-aldiro, haur gehiago animatzen ziren saltxitxak eskatzera, azkenerako ia denek jaten zituzten saltxitxak.*



Ezkerretik eskuinera: Goiko ilaran: Eider Bereziartua, Rosa Maria Fernandez, Josune Aldabe, Aloña Auzmendi, Kristina Rubio (andereñoa), Maria Jose Bazterrik, eta Amaia Oiarbide.

2. ilaran, Maite Goikoetxea, Maitane Aizpurua, Ainhoa Zurutuza, Amaia Begiristain, Nekane Munduate, Aitor Sukia, Anartz Zurutuza, eta Izaskun Egiguren.

3. ilaran, Itziar Osoro, Maite Galparsoro, Arantxa Dorronsoro, Araitx Etxeberria, Izaskun Munduate, Josune Barriola, Pello Barandiaran eta Ainhoa Irastorza.

Lurrean eserita: Jose Luis Goikoetxea, Mikel Goikoetxea, Asier Auzmendi, Jon Arin, Aitor Goikoetxea, Mikel Galparsoro, Jose Munduate eta Amaia Aierbe.

Ikastolak berriz bere geletan jarraitzen zuten, baina elkarrekin (Patronato eta Ikastola ) lotura osoa zeukaten. Egitasmo eta beste jokabide guztietan adostasun handia zegoenez, 1971/72 ikasturtearen bigarren hiru hilekoan batu ziren, nahiz-eta bakoitzak bere taldeetan jarraitu. Bi eskola hauen artean zegoen giroa ezin hobea zen eta bestalde Udal ordezkariak, Guraso Elkar-tea, guraso eta laguntzaileak, beti prest agertzen ziren edozein lanetarako.

Patronatoa sortu zenetik aginduta zegoen bezala, batzorde bat osatu behar izan zen, eta hauek ziren ordezkariak:

- Hiru auzoetako erretoreak
- Alkate jauna eta Kulturako zinegotzia
- Gurasoen ordezkariak.
- Irakasleen ordezkariak
- Bazkide eta laguntzaileen ordezkariak eta idazkari lanetarako, Jabier Zubizarreta apaiza.

Batzorde honek bere lehen egitekoa bete ondoren, hau da eskola antolatu eta martxan jartzea, Juan Jose Barandiaran Zeberio apaiz jaunaren testamentuaz arduratze lanari ekin zion. Lehen-dik ere ezagutzen zen testamentu honen muina, bertan agertzen zen apaiz jaunaren nahia betetzeko, Ordizian egon ondoren Donostiara joanda zegoen Ruiz Camara notario jaunari eskatu zion goera berri hau legeztatzeko beharrezko izango zen ibilbideari ekiteko.

Testamentuan aipatzen ziren hiru lekaimagoek uko egin zuten eta ondorioz, D. Juanen ondasunak Ataungo irakaskuntza-benefikora pasatzeko eskatu zen.

1972ko otsailaren 29an, Junta Provincial de Beneficencia erakundeari eman zitzaion egoeraren berri, Patronatoak berme osoa izan zezan “Beneficencia y Hospital” izatetik, irakaskuntzako Fundazio bat izatera aldatzeko legezko urratsak emateko eskaera egin zitzaion. Honela zion testamentuak:

*“Si ninguna de estas tres órdenes religiosas aceptare o lo abandonare, se destinará la casa Gabriel enea y los bienes de la Fundación, a Casa de Beneficencia y Hospital del pueblo de Ataun, bajo la advocación de Sagrado Corazón de Jesús”.*

Ibilbide honetan, garrantzi handiko aldaketa bat gertatu zen. Juan Auzmendi Galparsoro jaunak alkatetza utzi ondoren, Gobernadore Zibilak Ataunerako alkate berria izendatu zuen, 1978ko martxoan. Aldaketa honen eragina berehala somatu zen.

Testamentua bideratze-lanak atzeratzen eta luzatzen zihoazela konturatu zen Patronatoko Batzordea eta Notario jauna behartu zutenean, herriko alkateak lan horiek gelditzeko agindua eman ziola aitortu zuen honek. Esandakoa jaso eta berehala, gertatutakoaz zer zioen galdetu zitzaionean alkateari, erantzuna honako izan zen: *“Karmelitek Ataunera etorri nahi zutela entzun zuela eta horregatik geldiarazi zuela tramitazioa”.* Gertaera honen ondoren, Patronatoko Batzordeak eta zinegotziak hartutako erabaki guztiak oztopatzen saiatuko zen Alkatea, goi agintarien laguntzarekin. Jarrera honekin garbi ikusi zen agintarien azpijokoa.

Honen aurrean arazoa bideratzeko asmoz, Eskola Batzordea ohartu zen Notario jaunari agindutako lanak mozteaz gain, eskolako beharretako erabiltzen ziren ondasunen etekinak (errenta eta korrituak) ere, blokeatuta jarri zutela, baita Patronatoak bere ondasunetatik at libretan zituen bere diruak ere blokeatu zituztela. Herentziarekin zer ikusirik ez zuela ikusi zenean gauzak aldatu ziren eta askatu zuten aipatutako libreta. Jokabide hauen ondorioz eta testamentuak zionaren interpretazioa behingoz argitzeko, gaia auzitara eraman zen.

Gobernu Zibilaren ikuspegia eta Batzordearena erabat aurkakoak ziren eta Patronatoaren uste-tan, Karmeliten baietza lortzea zen arazoaren bukaera, Gobernadorearen eskutan ezer utzi gabe.

Patronatoko Batzordea mugitu eta Gipuzkoako Gotzain-laguntzaile zen Setien jaunarengana joan zen gertaera osoaren berri emateko. Bilera hartan, Setien jauna gelditu zen lekaima karmelitekin hitz egiteko. Testamentua argitzeak sortzen zituen iskanbilaz gain, aurrerantzean Elizaren iritzia ere kontuan hartu beharrekoa izango zela adierazi zuen. Gotzain jaunaren iritzi-z, D. Juan Barandiaran jaunaren nahia bermatu zezakeen elkarte bakarra Eliza zen eta hori defendatuko zuen.

Bere kudeaketak fruitua eman zuen, eta lekaimeei arazoa agertu ondoren, hauek baietza eman zioten testamentuan jartzen zuen bezala eurak hartzeko, horretarako baldintza bakarra eskatu zuten: *“Testamentuak Gabilleneko ondasunei buruz, izendatzen zituen eginkizunak betetzeko ardua, Donostiako Gotzaitegiak bere gain hartu behar zuen”.*

Gotzaitegiak, Karmeliten eskariari baietza berehala eman zion.

Gobernu Zibila eta Gotzaitegiak ikuspuntu desberdinak zituztenez, auzitara joan ziren, eta azkenean epaiak Gotzaitegiaren iritzitari arazoia eman zion eta karmelitek testamentua onartu zuten.

1973ko abuztuaren 9an, San Martingo erretore zen D. Franzisko Ezkurdia Irizar apaiz jaunari, D. Juan Barandiaran jaunak utzitako ondasunak "Fundación del Sagrado Corazón de Jesús" erakundearen izenean "Registro de la Propiedad" bulegoetan erregistratzeko agindua eman zioten Gotzaitegitik.

**OBISPADO DE SAN SEBASTIAN**

VICARIA GENERAL PASTORAL

EL QUE SUSCRIBE, EMETERIO ISASTI AIZPURU, VICARIO GENERAL DE LA DIOCESIS DE SAN SEBASTIAN

AUTORIZA al Evdo. Párroco de San Martín de Atun, D. José Francisco Ezcurdia e Irizar a INSCRIBIR en el Registro de la Propiedad, los bienes pertenecientes a la Fundación Piadosa que lleva por título el de "Fundación del Sagrado Corazón de Jesús", bienes dejados a su fallecimiento por el fundador D. Juan José Barandiarán I Ceberio y a REALIZAR las actuaciones jurídicas pertinentes.

San Sebastián, 9 de agosto de 1.973



Firmado: Emeterio Isasti

Honela bada:

- Ondasunaren erabiltzaileak, Karitateko Karmelitak izango ziren.
- Gotzaingoa (herriko apaizarekin) arduratuko zen testamentua betetzeaz eta
- Patronatoak bere bidean irakaskuntza ematen jarraituko zuen.

Eztabaida eta lixkar hauen albotik, Ikastola eta Patronatoa batuta, Ataungo irakaskuntzaren ardua nagusiena euren gain zutela, aurrez hartutako bide eta helburuekin jarraitzen zuten.

Horretarako diru zama handia jasaten zutelarik, berriro ere diru laguntza eske zuzendu ziren herriko Udaletxera eta hona hemen 1972ko otsailaren 2an Udalak egin zuen Batzarrean hartutako erabakia:

Se trata a continuación de "Información General del Patronato de Sagrado Corazón", entregando seguidamente el concejal Sr. Dorronsoro (Jose Antonio Dorronsoro Esnaola, de Arreseña-Iztator) tres escritos relativos al mencionado Patronato, suscrito el primero de ellos por varios miembros del Patronato, procediéndose seguidamente a dar lectura a los mismos por el concejal Sr. Barandíaran (Martin Barandíaran Zurutuza, de Bainti txiki) a instancia de la Presidencia.

En el primero de ellos, tras hacer historia de la gestación del Patronato Sagrado Corazón, se solicita de esta Corporación apoyo material para la buena marcha del mismo. Este escrito se completa con otro más detallado.

En un tercer escrito simple se relacionan :

- 1º) El Balance económico del curso 1970-71 (hasta octubre), con un saldo final negativo de 30.810,18 pesetas (185,17 euros).
- 2º) El presupuesto ordinario para el curso 1971-72 con un saldo final también negativo de 152.056 pts. (913,87 euros) .
- 3º) El presupuesto de gastos extraordinarios del curso 1971-72 que asciende a 202.318,40 pts. (1.215,96 euros).

La suma de estas cantidades asciende a 385.184,58 ptas. (2.315,01 euros).

La Alcalde manifiesta seguidamente que hará las gestiones oportunas en la Delegación Provincial de Educación y Ciencia para la obtención de ayuda económica para sufragar los mencionados gastos, si ello es posible.

A instancia de varios miembros de la Corporación se trata seguidamente de la necesidad de ayudar económicamente a la buena marcha del citado Patronato, dada la importante función docente que realiza en esta población, exponiendo la Presidencia la necesidad de examinar las facturas de gastos relacionadas, previa presentación de las mismas y proceder posteriormente en su caso, a la concesión de la mencionada ayuda, contestándosele que se presentarán en su día.

Entendiendo la Corporación que debe acordarse inmediatamente que el Ayuntamiento se hará cargo de los saldos antes mencionados, tras varias deliberaciones al efecto, así se acuerda por unanimidad, condicionándose ello al cumplimiento de las formalidades legales y obtención de las autorizaciones necesarias al efecto y justificación de los mencionados gastos.<sup>65</sup>

Bizi zen egoera politikoaren ondorioz, Udal idazkari jaunak iragarri zuen bezala, akordio hauek erabilgarri izateko Gobernadore Zibilaren onespena behar zuten, eta horrela Udala bera Gobernadore jaunarengana zuzendu zen, hartutako erabakiarekin.

Gobernadore jaunak akordio hori onartu ordez, Ikastetxe berri bat eskaini zuen, eskola nazionalak herrian indartu asmoz. Patronato batzordeak inolaz ere ez zituen onartu asmo haiek, eta Udaletxeko Kultura batzordekoen laguntzarekin, beraiek egindako planteamenduak Gobernadore jaunarekin jartzen iskanbila ugari sortu ziren.

<sup>65</sup> AUA: 516-01

1972ko maiatzaren 26an egin zen Udal Batzarreko aktatik jasota, hona hemen Gobernadorearen izenean, Udalak egiten zuen proposamena:

*Se da cuenta a la Comisión permanente del escrito del Gobernador Civil de la Provincia sobre subvención de 385.184 pesetas al Patronato Escolar Sagrado Corazón de esta Villa, así como la solución que en el citado escrito se apunta en relación con el funcionamiento del citado Patronato y el proyecto de edificación de un Colegio Nacional de 8 unidades escolares y 2 parvularios en el barrio de San Martín, previa la cesión del correspondiente terreno, quedando interesada la Comisión y acordando estudiar el asunto y proponer la solución que se considere más necesaria a los intereses de la Villa.*

1972an, Madrilen Hezkuntzako Ministro zen Villar Palasí jaunak erreforma berri batzuekin, irakaskuntzarako legea plazaratu zuen.

Lege honek zionez, Ikastetxe berriak hiru eratakoak izan zitezkeen:

- Ikastetxe publikoak
- Ikastetxe pribatuak eta
- Ikastetxe pribatu konzertatuak.

Horrez gain, herri txikietan zeuden eskola desberdinen arteko bateratze prozesua bultzatzen zen lege berri horretan eta Ataungo herriari zegokienez, zeuden eskolak itxi eta Lazkaoko ikastetxe berrira joan behar zuten 6. mailatik gorako haurrak.

Ataungo Udaleko zenbait zinegotzi, Guraso Elkarte eta Patronatoa, asmo horiekin ez zetozen bat eta berehala heldu zioten lanari eta ondorio hauetara iritsi ziren:

- Legeak agintzen zuen bezala, mailaka biltzeko 8 maila eta 2 haur-eskolako talde osatzeko hainbat haur bazegoen gure herrian.
- Gurasoek erabaki behar zutenez, herriko hiru auzoetan asmoak agertu ziren eta maila nagusi batean herrian gelditzeko jarrera agertu zen.
- Garraio eta jangela zerbitzua prestatzeko aukera osoak zeuden.
- Ikastetxe berri bat eraiki beharra zegoenez, Udalak onartuta zeukan "Plan General de Ordenación" ikuspegian, Fundazioaren lurzoru edo ondasunetan kokatzeko zegoen aurreikusita.

Jokabide eta ikuspuntu hauen berri eman zitzaion Hezkuntzako Ordezkaritari, baina erabakita zegoen bezala, haurrak Lazkaora bidaltzeko agindua jaso zen.

Eskainitako egitasmoa egokitzen eta ontzat ematen ez zenez, tinko eutsi zion orduko guraso taldeak urte hartako abendura bitartean 6. 7. eta 8. mailako ikasleak Gabillenetik bidali gabe, baina urtariletik aurrera gurasoen kezka eta desoseguak eraginda, haur batzuk Lazkaora eta beste batzuk Lizeora joaten hasi ziren.

Berriro azterketa sakon bat egin ondoren, Patronatoak agertu zion Heziketako Delegatu jaunari, herrian irakaskuntza osoa (8 maila eta 2 haur-eskola) emateko asmoa eta nahia.

Berehala, Estatuko hezkuntzako ordezkariekin egoteko, Madrilera joan ziren Patronatoko zenbait ordezkari.

Asmoak aurrera eramateko, eskola nazionalak Patronatokoarekin bat egitea, beharrezko baldintza zela argudiatu zuten eta Gabillene zela lekurik egokiena horretarako.

San Martingo eskola nazionaletan bi irakasle zeuden, Maria Carmen Yeboles eta Demetrio González hain zuzen, bien artean dozena bat haur zituztela.

Bi irakasle hauek ez zekiten euskaraz eta beste aldetik, ikastolako haurrak eta nazionaletatik etorriko zirenak, euskaldunak izanik, ikas maila desberdina zeukaten.

Honela, hiru motatako ikasleekin aurkitzen ziren:

- Euskara hutsean ikasitakoak
- Bi hizkuntzatan ikasitakoak eta
- Erdara hutsean ikasitakoak.

Batzeko asmoak aurrera eramateko, elkartaratze apustua egin zenean, bi ikastetxeetako (Nazional eta Patronatoa ) irakasleek, maila banaren ardura hartu zuten.

Euskara hutseko bidetik zetozen ikasleak erdaldun irakasle batekin jartzea arazo zela ikusten zen eta prozesu egokitzeari laguntzeko asmoz, Jabier Zubizarreta apaiz jaunak hartu zituen ikasle horiek.

Patronatoak garbi zuen nagusitu behar zen helburua: Ataungo haurrak gizarterako trebatzea bere hizkuntzan . Helburu hau aurrera eramateko ezinbestekoa zen honek irakasleak aukeratzeko ahalmena lortzea. Ataunek garbi zeukan behar ziren irakasleak euskaldunak izan behar zutela, baina hauen izendapenak Estatu mailan egiten zirenez, kanpotarrak ahalbide gehiago zizuten lanpostuak betetzeko.



1973an jaiotakoak. Ezkerretik eskuinera, goiko ilaran: Maite Bikuña, Jon Galparsoro, Igor Bereziartua, Eli Galparsoro, Maria Luisa Delfrade Razkin (andereñoa), Eneider Sukia, Naiara Munduate, Loreto Caballero eta Jesús Aizpurua.

2. ilaran: Zorion Bazterrika, Jon Aldasoro, Ane Sukia, Pili Albisu, Elena Caballero, Igor Sukia, Jon Barandiaran eta Arantxa Altuna. Lurrean: Mikel Egiguren, Jose Maria Arrondo, Alberto Aizpurua, Jose Maria Aierdi, Elisabet Cid, Hirune Gorostizu, Jon Irastorza, Edurne Munduate eta Madalena Aierbe.

**ATAUN 1977 / 82**

*Badira urte asko, atzo izan zela dirudien arren, Altsasutik Ataun aldera abiatu nintzela maleta huts bat eskuan hartuta, eta oso ongi zer aurkituko nuen, eta maleta hura zerez beteko nuen ez nekiela. Eta noski bete nuela. Leporaino bete ere !*

*Erromantizismo, ilusio eta zalantzas josita joan nintzen esperientzia hartara. Han eman nituen irakaskuntzako nire lehenengo urteak.*

*Gabillenen hasi aurretik, Arantxa eta Inazioren etxean 77ko udan pasatako astebeteko mintza-praktika izan zen nire lehenengo hartu-eman bertan. Haiek eskeinitako harrera beroa eta abaguneak erraztu zidan bidea, eta pasarte honetara helduta, eskerrak eman nahi nizkieke euren borondate eta eskuragarritasunagatik.*

*Ederra izan zen denon artean buruturiko egitasmo hura aurrera ateratzeko jorratutako bidea eta borroka, oztopoak oztopo, horiek elkarlanaren eta ilusioaren bidez gainditzen joatea, eta are gehiago garai hartako une politiko zail eta korapilatsuen testuinguruan.*

*Atseginez gogoratzen ditut urte haiek, pasadizo askorekin, eta horiek parera laburbiltzeko garaian denak bapatean buruan pilatzen zaizkit.*

*Aipatuko nuke: Ataungo sarreran zegoen oilategi hura, bertan egindako ikasturtea edo bi, bertatik prefabrikatueta, eta azkenik Gabillene zahar hartako ibilbidea, zaharra izanik ere xarma zuelarik.*

*Burura datozkit ere Anita sukaldariaren kontuak, jantokiko makarroi eta sardinak. Praktikak egitera zetozen iparraldeko irakasleak, eta eurekin sortutako harremana, eta ondorioz Iparraldera egindako bidaiak, Goierriko ikastolako bilerak, Donostiako bidaiak material bila, ikastaroak, juntakoekin bilerak, Bitorrenen kafeak eta bazkariak, Ramonitarekin solasaldiak, bertsoen mundua. Jentilen kondairak... hainbat eta hainbat oroitzapen!. Ez nuke aipatu gabe utzi nahi niretzako oso berezia izan zen Aita Barandiaranekin izandako bisita eta elkarrizketak, halako pertsonaia ezagutzeak benetan hunkitu ninduen.*

*Eta azkenik, eta nola ez, ezinbestean Maria Karmen Aramburu eta Maria Karmen Iztueta ekarri behar ditut lerro hauetara, bere laguntza estima ezina eta bere estiloa/moldea bai zuzendari, lankide zein pertsonak bezala nabarmenduz. Bihotzez eskerrik asko !*

*Hala bada, hutsik eramandako maleta hura bizipen eta oroitzapen ederrez beteta itzuli nintzen Ataundik, oraindik ere Benito Lertxundiren zenbait abesti entzutean bertako irudiak, paisaiak, usaia eta koloreak burua datozkit, nigan betiko erantsirik eta nire parte direnak.*

*Mila esker.*

**Maria Luisa Delfrade Razkin (Irakaslea)**

Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzaren aurrean Patronatoak trinko eutsi zion irakasle aukeraketari. Urte batzuetako borrokaren ondorioz, Patronatoak izan zituen hainbat hartu-eman Hezkuntzako Ordezkaritzarekin, batzuek garratzagoak baina baita, Batzordearen ikuspegiarekin eta zentzutasunarekin ados zetozenak ere.

### **ATAUNGO JOXEMIEL BARANDIARAN ESKOLAREN IBILBIDE LUZEA**

*Ataungo JoxeMiel Barandiaran eskolak 25 urte betetzen ditu 2009ko abenduan. Hori dela-eta, zerbait idazteko eskatu didate, orain ezagutzen dugun eskola hori sortu aurretik egin behar izan genuen bide luzeari buruzko nire esperientziak kontatuz. Bide luze hori hitz gutxitan laburtu behar izango banu, nik esango nuke Ataungo herriak Euskal Eskolaren bila egin duen basamortuko bidea izan dela.*

*Atauna 1965eko irailean iritsi nintzen ni, San Martin parrokiako apaiz-laguntzaile izendatuta. Ataunen eskola asko zegoen orduan: Eskola Nazionalak San Martinen, Arrondon, San Gregorion, Ergonen eta Aian, eta Merzedarien Ikastetxea Gabillenen; denak erdara hutsean erakusten zutenak.*

*Guraso talde bat hasita zegoen, Euskal Eskolaren egarriz, Ikastola bat sortzeko lehen urratsak ematen. Handik denbora gutxira, 1966/67 ikasturtearen bueltan, ireki zuten San Martinen San Frantzisko Xabier izeneko Ikastola. Sortu eta laister etorri ziren niregana eta han sartu ninduten ni ere Ikastolaren zurrunbiloan. Ez zen bide erraza Ikastola martxan jarri eta aurrera eramatea. Dena zailtasuna zen: diru falta, legeak jartzen zituen oztopoak, etorkizuna zalantzan ikustea...*

*Baina zalantzak zalantza eta zailtasunak zailtasun, jendea ez zegoen atzera egiteko prest. Dirua ateratzeko zozketak antolatzen ziren, legalizazioa lortzeko Elizaren babesa bilatzen zen... Guraso talde hark garbi zeukan bere seme-alabentzat ez zutela erdal eskolarik nahi, eta gogor saiatzen ziren zailtasunei eta oztopoei irtenbideak bilatzen. Zenbat bilera ez ote genuen egin Ikastolaren lehen urte horietan, dirua nola atera gai nagusia genuela.*

*Urteak pasa ahala, Ikastolan zenbiltzan umeak hazitzen zihoazen, eta Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara pasatzeko garaia iritsi zitzaien haiei ere. Lehen Hezkuntzan irakasle titulodunak behar ziren, eta irakasle berriak hartzeak, gastu gehiago zekarren... Eskolako kartilak eskuraterik izango ote genuen ere ez genuen garbi ikusten... Dena zailtasun eta dena oztopo, baina inor ez zegoen amore emateko prest.*

*Ni ere, guraso haiekin batera, gero eta sartuago nenbilen Ikastola aurrera ateratzeko ahalegin horretan; han ibili behar izaten nuen denetik eginez: eskolako "transportea" egiten ere hasi nintzen, Arrondo aldean zeuden umeak Ikastolaraino ekarriz; ez genuen ume gehiegi eta erraztasunak eman beharra zegoen... Behar bada, etorkizunearan maisu titulodunen beharra izango genuela eta, maisu tituloa ateratzeko bideak ere egin nituen, Irunen eliz eskolatakako maisu tituloa atera, eta gero Valladoliden titulo ofiziala ateratzeko azterketa eginez... Dena helburu bakarrarekin: Ataunen Euskal Eskola aurrera ateratzea.*

*Estu eta larri genbiltzala, Merzedariak Gabillenen zuten Ikastetxearekin gure Ikastola elkartzea ere bururatu zitzaigun. Garai hartan Ikastetxean eskola ematen ari ziren Merzedaria guztiak euskaldunak ziren, eta aukera hori ona izan zitekeela iruditzen zitzaigun: bi eskolak batu, Ataungo haur gehiagori eskolan euskaraz ikasteko aukera eskainiz. Baina, bi eskolak batze hori ez zen lortu. Ikastetxeko zuzendariarekin hitz egin nuen, eta hark gure proposamena begi onez ikusi bazuen ere, Ataungo Merzedaria elkarteko zuzendariak ez zuen onartu nahi izan... eta hor bukatu zen bi eskolak elkartzeko gure asmoa.*

*Handik gutxira, 1970ean, Merzedariak Ataungo eskolaren etorkizunean eragin handia izango zuen erabakia hartu zuten: Ataungo Ikastetxea uztea. Horrek Ataungo eskolaren egoera aldatu egiten zuen. Zer eskaini ordurarte Merzedarien Ikastetxean ikasten zuten haurrei? Ez zegoen gauek goizera hainbeste ume eskolarik gabe uzterik. Merzedariak, Ikastetxea uztean, Don Juan Jose Barandiaran Zeberio apaizak (Gabilleneko Don Juanek) testamentuan utzi zien ondasunak ere uzten zituzten (Gabillene etxea, inguruko lurak, bi baserri, diru apur bat...). Merzedariak Ikastetxea uztean, Gabilleneko Don Juanen testamentuaren arabera, ondasun horiek Karidadeko Karmeldarrei eskaini behar zitzairen Ikastetxearen ardura har zezaten. Karidadeko Karmeldarrek ezezkoa eman omen zioten Merzedarien proposamen edo eskaintza horri; beraz, ez zutela Gabilleneko Don Juanen testamentua onartu eta Merzedariak utzitako eskola bere gain hartzeko asmorik.*

*Eta... Don Juanen ondasunen laguntzaz, zergatik ez bultzatu Euskal Eskola Ataunen, Ikastolarekin batuz? Ideia hori indarra hartzen joan zen, eta, hasiera batean oztopo handirik gabe, bide hori hartu zen. "Jesusen Bihotza" izeneko Patronatoa sortu zen Gabilleneko Don Juanek utzitako ondasunak Ataunen Patronatoko eskola bat sortzeko erabiliz. Patronatoko Eskolan eraikina Patronatoak jartzen zuen, eta horrek irakasleak aukeratzeko eskubidea ematen zion Patronatoari, irakasleen soldatak Estatuak ordaintzen zituela.*

*Oztopo handirik gabe ekin genion bide horri, baina laister hasi ziren oztopoak eta zailtasunak. Patronatoak ez zuen indarririk Don Juanen ondasunik gabe, eta Euskal Eskola begi txarrez ikusten zutenak, Patronatoari ondasunak kentzen saiatu ziren, legea erabiliz. Karidadeko Karmeldarrek Don Juanen herentzia onartzen ez bazuten, ez zegoen garbi ondasun horiek noren eskura pasako ziren, baina nahiko garbi genuen, Patronatoa ezerezean geldituko zela, Euskal Eskolaren etorkizuna arriskuan jarritz. Baina, horreraino iritsi eta gero, ez zegoen jendea amore emateko prest. Donostiako Gotzain Laguntzailea zen Don Jose Maria Setienenengana jo genuen, eta, haren aholkuz, Karidadeko Karmeldarrek Gabilleneko Don Juanen herentzia onartu zuten, beraiek Patronatoan parte hartuz.*

*Patronatoko eskola martxan jarri eta berehala, Villar Palasí ministroaren eskutik, Hezkuntza legearen erreforma handia etorri zen. Erreforma horren ondorioz, Patronatoko Eskolak desagertu egiten ziren, baina horien parekoak ziren Eskola Pribatu Kontzertatuak sor zitezkeen. Ataungo Euskal Eskolaren bultzatzailei berdin zitzairen Patronatoko eskola izan edo eskola Pribatu Kontzertatua izan; izen batekin edo bestekin,*

*Euskaraz ikastea bermatuko zuen eskola izatea nahi zuten. Baziren horren kontra zeudenak ere, eta eztabaidari irtenbidea bilatzeko, Donostiako Hezkuntza Ordezkaritzan esan ziguten onena genuela Madrilera joatea geure nahiak Ministerio de Educación zelakoan aurkezteko. Han joan ginen Madrilera Ataungo ekipoa: Alkatesa, Udaletxeko Idazkaria eta Patronatoko bi kide. Gure azalpenak entzun ondoren, Ministerioko arduradunek esan ziguten guk nahi genuena aurrera eramateko (irakasleak geuk aukeratzeko eskubidea izatea) Eskola Pribatu Kontzertatuaren bidea zela egokiena eta legeak onartzen zuena. Erantzun hori ez zen denen gustukoa izan, baina pozik etorri ginen horren atzetik genbiltzanak. Eta gure eskola Pribatu Kontzertatua egiteko tramitazioari ekin genion.*

*Baina, ez ziren hor bukatu gure arazoak. Eskola Pribatu Kontzertatua eskatzera Madrilera joan ginenean, esan ziguten onartuko zutela gure eskola, baina horretarako gure eskola hori Ataun San Martinen zeuden Eskola Nazionalako bi unitateekin koordinatu beharra genuela, ez zela zentzuzkoa, haur-kopuruari begiraturata, Ataun bezalako herri batean Estatuak bi eskola mantentzea. Horra hor, berriro ere izugarritzko saltsa. Gure eskola eta Eskola Nazionala uztartzea eskatzen zuen horrek, bi eskolatako haurrak, mailaka, bi eskolatako irakasleen artean banatuz... Ordurarte euskara hutsean ikasitako haurrak nola jarri euskaraz ez zekiten maisu-maistreakin?... Gerora gauzak bere onera ekartzen joango ginela-eta, behin-behineko irtenbidea eman genion arazoari. Onartu genuen Eskola Nazionalarekin uztartzea, baina gauzak bere onera etortzen ziren bitartean, euskaraz ikasitako haurrak erdal irakasleekin jarri beharrean, nik hartuko nituela beste gela batean... Eta horrela hasi ginen. Haurrak sakabanatuta eta urtero tokiz aldatzen ez ibiltzeko, Eskola Nazionalako irakasleei ere Gabillenen tokia egitea erabaki zen. Orduan bildu genituen lehen aldiz haur guztiak eskola-etxe berean.*

*Emandako pauso hori garrantzitsua izan zen, eta aurrera jarraitu genuen, eguneroko gora-beherei ahal genuen bezala erantzuna emanez, baina, beti ere, iparra galdu gabe, gure helburua Ataunen Euskal Eskola sustatzea zela ahaztu gabe. Franco hil ondorengo garai berriak ere iritsi ziren, eta, pausoz pauso, geure helburuaren atzetik jarraitu genuen. Baina, Euskal Eskola gogoko ez zutenak ez zeuden lo, eta gero ere behin baino gehiagotan saiatu ziren gure Euskal Eskola berriro ere Eskola Nazionalako bidera eramaten. Deigarriak, eta aldi berean tentagarriak, izan ziren Ataunen Eskola Nazional handi, eder eta berria egiteko Udalarri Madrilgo Hezkuntza Ministeriotik egin zitzaizkion eskaintzak. Ormaiztegi herriak horrelako eskola bat eskatzen ari zen, eta ez zioten ematen. Ataunek eskatu ez, eta eskaini egiten zioten... Nola ulertu hori?*

*Baina, behin eta berriz, batzuetan zalantza eta eztabaida artean, herriak ezezkota ematen zien eskaintza guzti horiei... Noiz arte? Garai berriak iritsi ziren arte. Urteak pasa ahala, Euskal Herriko egoera ere aldatuz zihoan. Eusko Jaurlaritzak Hezkuntzako eskumena bereganatua zuen, eta iritsi zen momentu bat, Ataun herriari eskaini zioten Herri Eskola berriari, Euskal Eskola izateko itxura ikusi zitzaiona, eta herriak baiezkota eman zion eskaintza horri. Baiezko horren ondorio dugu JoxeMiel Barandiaran Eskola.*

*Horixe da, nire leihotik begiratuta, Ataungo herriak Euskal Eskolaren bila egin duen basamortuko bide luzearen historia. Urte askotan ibili nintzen bide horretan beste ataundar askoren bidelagun. Ez zen beti erraza izan bide hori egitea, baina, fruitua ikusita, merezi izan zuela esango nuke nik.*

### **Jabier Zubizarreta (Irakaslea)**

Patronatoko Batzordeak bere ibilbidean fidagarritasuna lortu zuen Hezkuntzako Ordezkaritzan zenbait pertonekin eta euren nahia betetz, Atauna izendatutako irakasle erdaldunei beste eskeintzaren bat egin eta ez zituzten gure herrira bidaltzen. Ordurako Patronatoak prestatuta izaten zituen bere baldintzak beteko zituzten irakaslea eta hauek izaten ziren aukeratuak. Nola nahi ere esan behar da, garai haietan Euskal Herrian irakasle eskabide handia zegoela, eta tituludun euskaldunak kontatuak.

Azken urte haietan, irakasle ikasketak egitera zihoaztenen kopurua oso mugatua izan zen, gazteak beste ikasketetara joaten baitziren. Egoera harrekin, Patronatoak ere zailtasunak izan zituen eta batzutan proposatutako irakasleek ez zuten euskara erabat menperatzen, euskaldun berriak ziren. Hori bai, pentsakeraz euskararen aldekoak izan beharko zuten eta gure hizkuntza ikasi eta erabiltzeko erantzukizuna hartuko zuten.

Oso kontuan hartu zen baita ere irakaslegoaren iraunkortasuna ikastetxean. Zoritxarrez, Ataunek maisu-maistren joan-etorri izugarria jasan zuen eta ezagutzen zituen jokabide horren kalteak haurrengan.

Bide batez, irakasle euskalduna, ikastetxeak izendatuta zeukan sistema pedagogikoan lanerako prest egongo zena eta urte batzuetan gure ikastetxean jardungo zuena, izango zen aukeratzeko profil egokia. Batzordea horretan saiatu zen eta neurri batean baita lortu ere. Baina ezbehar batzuen ondorioz, hiru irakasleren galera benetan kolpe izugarria izan zen Ikastetxearentzat: M<sup>a</sup> Eugenia Eskisabel, Amaia Rezola eta Luis Aldanondo irakasleen heriotzak hain zuten ere.



Gaur egun Joxemigel Barandiaran herri eskola auzkitzen den lekuan, Patronatoko haurrarekin Amaia Rezola andereñoa.

Goiko ilaran, ezkerretik eskuinera: Isidro Aldasoro, Iñigo Bikuña, ezezaguna, Santi Aierdi, Pedro Maria Goikoetxea, Karnele Begiristain, Maite Bazterrika, Pili Arrondo, Kristina Goikoetxea, Maria Eujenia Zaldúa eta Ana Mintegi.

Beheran: Juan Inazio Erauskin, Pedro Maria Araneta, Joxe Migel Galparsoro, Migel Anjel Munduate, Joxe Jabier Munduate, Lourdes Eskisabel, Maria Luisa Kerejeta, Elena Dorronsoro, Ana Rosa Imaz, Amaia Arrese, Ana Rosa Agirre eta Maria Jose Barandiaran.

1978/79 ikasturtean 6. maila ere bertan egitea lortu zen. Ondorioz, hurrengo urtean 7. maila eta azkenik 1980/81 ikasturtean, 8. maila

Andereñoen soldatak ordaintzeko, betiko diru larritasuna zegoenez, Kutxa Munizipalean 500.000 pezetako (3005 euro) mailegu bat eskatu behar izan zen, batzordeko bost partaideen abalarekin.

Pedagogia taldeak soin-heziketa ere beharrezko zela iritzi zion eta pista edo kiroletarako, 1.624 m<sup>2</sup> zituen zelai asfaltatua prestatu zen. Oraindik ere honetaz baliatzen dira gaurko ikasleak. Beti bezala eskulana guraso eta laguntzaile artean eta materiala, berriz, borondate oneko laguntzari esker, hauen artean, *Canteras Arrateta S.A.*, *Sukia eraikuntzak*, *Kerejeta lantokia*... Lan nagusia, Pilarikatako zubiaz baliatuz amaitu zen.



1976an jaiotakoak, Juliette Telleria andereñoarekin.

Goiko ilaran, ezkerretik eskubira: Joseba Andoni Goikoetxea, Estebe Auzmendi, Asier Aldasoro, Nagore Bikuña, Maider Irastorza, eta Amaia Galparsoro.

2. ilaran: Urko Barriola, ezezaguna, Estrella Sanchez, Ainhoa Urdangarin, Oihana Mendizabal, Nagore Urdangarin, eta Iohana Sukia. Lurren eserita: Unai Erauskin, Unai Urrestarazu, Jose Manuel Tato eta Jon Galparsoro.

Bigarren zikloari heltzean, hainbat aldiz eztabaidatuta zegoen Ikastetxe berriaren beharra agerian geratu zen, baina iritzi kontrajarriak zeuden Alkate eta Patronato Batzordearen artean eta arazoa luzatzen ari zenez, probisionalki hiru prefabrikatu ekarri behar izan ziren. Lehenengoa, 1980/81 ikasturterako aginduta bazegoen ere, 1981eko urtarrilean muntatu zen.

Aurretik Lizardi etxearen azpian gela bat irekitzeko asmoa hartu zen, baina gelaren prestaketa eskolaren gain izango zenez eta hileko errenta 12.000 pezeta (72 euro) ordaindu behar zela ikustean, bertan behera utzi zen ahalegina.

Honela, makina bat lan egin zen hainbat ekintza desberdinetan, beti ere herritarren partaidetza eta laguntzarekin (tombola egitea, sare jartzea, seguru saltzea eta abar). 1979an diru iturri berri bat lortu nahian, tombola metaliko bat egitea erabaki zen eta esku lana doan izanik, eraikitzeko erabili zen materialaren kostua 127.092 pezetako (764 euro) izan zen. Ekainean tombola hau eraiki orduko, herriko hiru auzoetako festetara eraman zen eta ondoren bailarako herri gehienetara ere. Batetik bestera kamioiaz eramaten zen eta erosotasun handia ematen zuen erraz alda zitezkelako edonora. Alokairua, 18.000 pezeta (108 euro) ordaintzen zuten hasera batean eta gero 25.000 pezeta (150 euro) eta urtetan zehar ibili zen batetik bestera, hau ere hain beharrezkoa zen diru iturria bilakatu zen.

Aipatu dugun giro onari jarraituz, azpimarratzekoa da herriko hainbat toki ezagutuz, igandero gurasoek haurrekin egiten zituzten ibilaldiak. Tarteka herritik kanpora ere. Haur eta gurasoak zenbatuta, 80-100en bat lagun inguru igandero elkartzen ziren.

Ez dugu xehetasun eta oroitzen gehiegi aipatuko, baina esan igandero ibilaldia egin ondoren nahi zuten guztientzat bazkaria Aitzkoate elkartearen prestatzen zela eta bazkalondoan haurrak zirenera joan ondoren, makina bat une goxo eta tertulia egin zituztela.

### **Ikastetxe berria:**

Ikastetxe berria eraikitzeko eztabaidaren muina non zegoen garbi ikusten zen:

- 1) Alkateak, eskola berria eskaintzen zuen, baina Estatuko eskola nazional bat lortzeko.
- 2) Patronatoak ere beharrezkoa ikusten zuen eraikuntza berria, ez nola nahi ordea, bere iritzian "ardatz" nagusia aurrerantzean ere herritarren esku gelditu behar zen (Patronato edo Pribatu konzertatu berdin zen, baina euskalduna eta proposatutako irakasleko osatua).

Ataungo Plan Orokorrean Ikastetxe berria egiteko aurreikusitako lurak, Patronatoaren eskuetan zeuden eta hemen sortzen zitzaion zailtasuna Udalari.

Ezagutu ditzagun bada garaiko planteamendu eta iritzi kontrajarriak. Hona hemen, Udaletxeko akta liburuetatik jasotako erabakiak:

*18-10-1.972 Dada cuenta a la Corporación del escrito del Sr. Delegado Provincial de Educación y Ciencia, en el que interesa a la Corporación ponga a disposición del Ministerio de Educación y Ciencia los terrenos correspondientes para la construcción de un Colegio Nacional en esta Villa, la Corporación después de amplia deliberación y estimar es de urgente necesidad la construcción en la Villa de nuevo un edificio escolar con capacidad para la población estudiantil de Atau, considera y así se acuerda con el voto en contra de la Presidencia, que para poderse pronunciar en tal transcendental problema, teniendo en cuenta las distintas soluciones que establece la Ley General de Educación y las especiales circunstancias que concurren en esta Villa, sería preciso recurrir a una consulta popular.<sup>66</sup>*

Herrian konsulta bat egin behar zela aipatze hutsak, urduri eta desoseguz jarri zituen agintariak eta berriro presionatuz, oraingoan Hezkuntzako Delegaziotik jaso zen gutun bat, lur-zorua uzteko hilabeteko epea emanaz.

<sup>66</sup> AUA: 516-01

Patronatoak garbi zeukan zer nahi zuen eta inoiz ere ez zen ikastetxe berri bat eraikitzearen aurkakoa, alderantziz baikik, baina bere errebindikazioak ez ziren onartzen eta hor zegoen kakoa.

Udaletxeko bilera batean, Hezkuntzako Delegazioko ordezkari zen Panizo jaunak harrিতa honela zion: *“Observo que el problema no es docente sino político”*.

29-11-1.972 *Se da cuenta de un escrito del Delegado Provincial del Ministerio de Educación y Ciencia comunicando haberse programado para 1.973 la construcción de un centro escolar de E.G.B. de ocho unidades en este Municipio y como ampliación al escrito de fecha 20 del ppdo., interesa que dentro del término de un mes se facilite el solar correspondiente con los datos y superficie que cita.*

*La Corporación Municipal reconoce la urgente necesidad que tiene el municipio de solucionar el gran problema de la enseñanza y la alternativa que ofrece la vigente Ley Gral. de Educación para ello, bien mediante un Colegio Nacional del Estado o bien mediante Colegio Nacional privado concertado, teniendo en cuenta las especiales circunstancias de la Villa, donde existen un Patronato Escolar y una Fundación para la enseñanza; considera que, dada la transcendencia del problema que puede afectar tanto a la enseñanza actual como a la futura, estima que, antes de adoptar con fundamento una determinación sobre el particular, es necesario conocer la opinión de todo el pueblo de Ataun, acudiendo a una consulta popular. Por todo ello acuerda por unanimidad :*

- 1) *Solicitar las autorizaciones pertinentes para realizar una consulta popular en forma de referendo en el que tendrían voto todos los vecinos de la Villa, mayores de edad y se organizaría el citado referendum por la Junta Municipal del Censo Electoral.*
- 2) *Las votaciones se efectuarían en tres días distintos, en horario de 7 a 10 de la tarde, un día para cada uno de los barrios de la Villa, San Martín, San Gregorio y Aia.*
- 3) *Para garantizar la autenticidad del sufragio, se requeriría la presencia de un Notario.*
- 4) *Sea cual fuere en número de votantes, se consideraría como deseo del pueblo lo que vota la mayoría de los que emitieran el voto.*
- 5) *Se faculta al Alcalde para que solicite los permisos y obtenga las autorizaciones que sean necesarias para llevar a efecto lo acordado en el párrafo anterior.*

*En este momento el Secretario de la Corporación advierte al Pleno que considera improcedente el acuerdo adoptado, toda vez que en el ordenamiento jurídico actual no existe la posibilidad de acudir a un referendun para el asunto que se plantea, debiendo la Corporación con los asesoramientos e informes que considera necesarios, adoptar acuerdo sobre si ofrecen o no los terrenos a la Delegación del Ministerio de Educación y Ciencia para la construcción de un centro de E.G.B. de 8 unidades en este término municipal.*

*A pesar de la advertencia, la Corporación Municipal adoptó por unanimidad el acuerdo anteriormente descrito.*

20-12-1.972 *Se da cuenta a la Comisión de un escrito-resolución del Gobernador Civil de la Provincia de fecha 9 del actual, suspendiendo el acuerdo adoptado por el Pleno de esta Corporación en sesión de 29 del ppdo. mes de noviembre, sobre la celebración de un referendun para decidir la forma de impartir la Enseñanza General Básica en el municipio.<sup>67</sup>*

Agintari eta Patronatoaren artean hika-mika ugari egon ziren, baina bakoitzak bereari eutsi zion.

17-01-1.973. *Se da cuenta a la Corporación de un escrito del Delegado Provincial de Educación y Ciencia en el que reitera el escrito del 17 de noviembre pasado relativo a facilitar por esta Corporación el solar correspondiente al centro de E.G.B. de 8 unidades que se van a construir en esta Villa en función de III Plan de Desarrollo, dándose un plazo de 8 días para comunicar a la citada Delegación de la decisión tomada, significando que de no hacerlo se procederá a una expropiación forzosa de los terrenos.*

*Después de amplia deliberación sobre el particular, por unanimidad se acuerda pase el asunto a informe de la Comisión de Cultura y adoptar en la próxima el acuerdo sobre el asunto.*

Hurrengo batzarrean, Udaletzeko Kultura komisioko zinegotziak prestatutako txostena irakurri ondoren, honako erabakia hartu zuen Udalak:

14-02-1.973 *En relación a la petición de la Deleg. Provincial de M<sup>o</sup> de Educación sobre el ofrecimiento de un solar donde construir un centro de E.G.B. de 8 unidades en esta Villa, se da lectura a un informe suscrito por los concejales de Cultura Jose Antonio Dorronsoro Esnaola y Eulogio Aldasoro Imaz que a petición de los firmantes y por acuerdo de la Corporación se transcribe íntegramente en el acta, y que es de tenor siguiente :*

*Los concejales miembros de la Comisión de Cultura se creen en el deber de informar a la Corporación Municipal en Pleno acerca de un problema de palpitante actualidad, cual es el de la enseñanza.*

*En estos últimos años; más concretamente desde que hace tres años cerraron las Rvdas. Hnas. Mercedarias su Colegio Sagrado Corazón de Jesús, sito en Gabriel enea, se constata en nuestra Villa un dato ejemplar, la toma de conciencia aunando sus esfuerzos, por parte del Municipio, Padres de Familia y Parroquia en torno al problema escolar y su posible solución:*

- 1) Dejando a un lado, si bien es un hecho claramente constatado, el dato referente al desfase que ha existido entre el desenvolvimiento de las Escuelas en su labor educacional y el nivel cultural que la enseñanza hoy exige y pretende en todos los grados, queda subrayada como principal y primer causante del problema escolar, la carencia de una escuela graduada que ha padecido nuestra Villa, escuela que se ha visto suplantada dada la configuración del pueblo de Ataun por una serie de escolitas sembradas acá y allá.*
- 2) Cómo no subrayar también el dato nada reconfortante relativo al personal del Magisterio. Nuestro pueblo ha estado asistido a un interminable desfile de maestros y maestras que eran nombrados prácticamente para el curso, con las lógicas consecuencias provocadas por este trasiego de hombres y mujeres responsables de la educación e instrucción de nuestros niños.*
- 3) Recuérdese también la importancia que el M<sup>o</sup> de Educación y Ciencia, en su libro Blanco, concede a la realidad de los dialectos e idiomas regionales y su justa inclusión y programación a nivel educacional así como la debida preparación del personal docente.*
- 4) Lo expuesto hasta aquí puede considerarse como un breve resumen de bases y condicionamientos que debe enmarcar el Centro Docente ideal para nuestra Villa.*
- 5) La Enseñanza hoy.- Como queda dicho en el preámbulo, Parroquia, Padres de Familia y Municipio. Las fuerzas vivas, por así decirlo de la Villa, se unieron en el mismo afán para dar justa réplica al problema planteado por el cierre del Colegio:*
  - a) Entre varias soluciones posibles (Colegio Privado, Escuela Estatal, Patronato), se escogió la modalidad de Patronato; solución cuyo acierto se ha visto confirmado a lo largo de, todavía corto funcionamiento como centro Docente.*

- b) Se pensó también en la unificación de todas las escuelitas desparramadas por toda la Villa, polarizándolas en dos graduadas: una en San Gregorio y otra en San Martín.
- c) La Delegación de Educación y Ciencia que ya había señalado Lazcano como punto de concentración para todos los niños de Ataun en edad de E.G.B., aceptó los varios razonamientos que se plantearon desde Ataun en pro de un Centro propio y dio luz verde, rectificando lo acordado con anterioridad, se impartiera la EGB. En la misma Villa, considerando muy justo y muy lógico el hecho de que sea el pueblo de Ataun el que solucione su problema de enseñanza y aceptando desde el primer momento la solución que se le diera; ya sea en forma de Colegio Estatal, ya sea Patronato.
- d) Una nueva exigencia se le plantea al Patronato, supuesta la reciente legislación Ministerial vigente: tiene que elegir, procediendo a su transformación, en Colegio Nacional o Colegio Nacional Concertado.
- Ante este dilema la Junta del Patronato ha estimado más útil y conveniente y en consecuencia se ha inclinado por un Colegio Nacional Concertado, útil y conveniente para los fines que justifican precisamente la existencia del referido Patronato. Dicha modalidad contempla y presupone dos grandes ventajas: Ayuda estatal y la selección del personal docente.
- En consecuencia, es decisión unánime de la Junta del Patronato seguir por el camino que se trazó (en su día) desde el principio. Porque estimamos que dada la finalidad existente entre una Escuela Nacional Concertada y la que se pretendió hacer desde el primer momento, a través del Patronato, el no aceptar la modalidad de concertada, hubiera supuesto un echar por tierra el ideal que se propuso la Junta a la hora de dar justa respuesta al problema planteado.
- e) Que esta Junta sea verdaderamente representativa no cabe la menor duda, ya que concurrieron a su elección y la siguen formando representaciones de todos los estamentos : Municipio, Iglesia, Padres de Familia del alumnado y Asociación Local de Padres de Familia.
- f) La Junta del Patronato tiene conciencia de no haber defraudado en los más mínimo y si el de haber complacido y respondido a la confianza tanto de los padres como del pueblo en general.
- g) Supuesto que es exigencia y cualidad esencial en nosotros como ediles, el de estudiar en todo momento las necesidades del pueblo a quien representamos, así como el de prestar máxima atención a sus aspiraciones. Rogamos a todos y a cada uno del Sres, miembros de esta Corporación municipal y lo hacemos muy encarecidamente, tengan a bien hacer una sincera y profunda reflexión en torno al tema que nos ocupa y que luego con toda objetividad y libres de perjuicios, den su aprobación eligiendo el camino trazado por la Junta del Patronato ; modalidad de Colegio Nacional Concertado o Colegio Nacional; sin olvidar que con nuestra decisión seremos plenamente responsables del porvenir de la enseñanza en la Villa.
- h) Nosotros fieles en todo momento al planteamiento del tema a través del presente escrito-informe, así como a las razones expuestas, solicitamos vuestra opinión favorable a la aspiración de los padres de familia, cual es la de conforme a las normas vigentes, transformar en actual Colegio del Patronato en Colegio Nacional Concertado.
- i) Nuestra condición de representantes de la Comunidad o pueblo de Ataun, a quien hemos de servir y el hecho de que los Padres de Familia de la Villa hayan preferido la modalidad de Colegio Nacional Concertado como respuesta al problema de la enseñanza en la Villa, ha motivado que nosotros, miembros de la comisión de Cultura, hayamos recogido, haciendo nuestro, el deseo de la Padres de Familia aquí ante el Pleno, rogando su voto favorable.

j) *Concertada y elegida así la línea a seguir por parte de esta Corporación, no restaría sino agradecer a la Deleg. de Educación y Ciencia su preocupación y su dedicada atención al problema de la enseñanza en nuestra Villa y responder a su solicitud de terrenos escolares, manifestando nuestra postura definitiva y nuestra total identificación en el punto de vista de los Padres, así como de la Junta del Patronato, en pro de un Colegio Nacional Concertado.*

*Ataun a dos de febrero de 1.973 por la comisión de Cultura, Eulogio Aldasoro Imaz y José Antonio Dorronsoro Esnaola.*

*Propuesta de acuerdo: Por todo lo expuesto en el precedente informe, los Sres. concejales que la suscriben solicitan del Pleno la adopción del acuerdo siguiente :*

*“Agradecer a la Deleg. Provincial del M<sup>o</sup> de Educación y Ciencia la atención y el interés demostrado en pro de la solución del acuciante problema de la enseñanza en esta Villa si bien, interpretando el general sentir de la población y de forma muy especial de la Asociación de Padres de Familia, Consejo Escolar Primario y la Junta del Patronato del Sagrado Corazón, no procede en esta Villa la cesión de solar alguno a la Delegación de Educación para la construcción de un centro de EGB de 8 unidades, toda vez que se pretende dar solución al problema mediante la creación de un Colegio Nacional Concertado por las razones y fundamentos que constan en el informe que precede a esta propuesta de acuerdo”*

*Después de amplia discusión del asunt, y puesto a votación, se elevó a acuerdo la propuesta de acuerdo que precede con el voto en contra de la Presidencia, obteniendo siete votos a favor.<sup>68</sup>*

Asmoak argi eta garbi agertu ondoren, baretasun epe labur bat izan zen, hala ere arazoa konpondu gabe zegoen eta ikastetxeak jarduera normala garatzeko zailtasunak zituen.

Berriro, askotan aipatutako ondasunak irakaskuntzarako izan ordez Ospitaletarako zirela agindu zen eta honela zioen 1975ko irailaren 11an Madrilgo Buletinean argitaratu zen Gobernazioko Ministeritzak hartutako erabakiak:

*“Se acuerda que se clasifique la Fundación establecida por Don Juan Jose Barandiaran Ceborio, con el nombre de “Casa de Beneficencia y Hospital de Ataun” en la localidad de este nombre, como de Beneficencia particular.*

*Que se confirme en el cargo de Patronato de la citada Fundación, a la Junta de Asistencia Social de Guipúzcoa.*

*Que se proceda a la inscripción a favor de la Fundación de los bienes inmuebles, debiendo quedar depositados si no lo estuvieren, los bienes muebles en establecimiento destinado al efecto, ejercitándose por parte de la Junta cuantos derechos y acciones sean oportunos en defensa de los intereses de la Fundación.*

*Que se dé traslado de este Resolución al Ministerio de Hacienda, a los efectos oportunos.<sup>69</sup>*

<sup>68</sup> AUA: 516-01A 516-01

<sup>69</sup> AUA: 516-01

Irakaskuntzari buruz eta lehenago esan dugun bezala, haurrak gela prefabrikatuetan erosotasun handirik gabe zeuden eta irakasleagoak euren ekintza osagarriak antolatzen ez zuten eremu edo espazio egokirik eta hutsune hori zuzenean haurren kaltetan zihoan.

Urte hori ordea erabakiorra izan zen, azaroaren 20an diktadorea hil baitzen. Franco desagertzean aldaketarako bideak ireki ziren eta arazo, zailtasun eta eragozpen ugariarekin aro historiko berri bati eman zitzaion hasiera.

### **ATAUNGO ESKOLARI BURUZKO NERE OROITZAPENAK**

*Hogeita bost urtetik gora, munduaren zehar (León, Caracas-Maracay Venezuelan, Bilbon) irakaskuntzan aritu ondoren, 1978-79 ikasturterako iritsi nintzen Atauna irakaskuntzan jarraitzeko.*

*Ilusio handia nuen arren, aitortu behar dut lehenengo urtea oso gogorra izan zela niretzat; hasteko, Eskola Publiko txikia (erabat ezberdina gure ikastetxe handietatik); ikasleak adin txikikoak, 9-10 urtekoak (ni adin handiagokoekin ohituta nengoen); gai guztiak landu beharra (nere espezialitateko gaiak bakarrik ematen nituen aurretik); dena euskaraz (hau ere berria, eta esan beharra dago, garai hartan ez geneuzkela gaurregungo euskarazko liburu eta hainbeste lagungarri).*

*Baina buru belarri ekin nion lanari eta bene-benetan, irakasle onen arteko harreman apartak, giro zoragarriak, lagundu zidan aurrera egiten.*

*Talde txikia ginen baina oso lotua. Lehenengo egunetik onartua eta maitatua sentituarazi ninduten, eta hori izan zen niretzat bultzadarik handiena.*

*Oraindik orain, hainbeste urte pasa eta gero, ez dugu eten gure harremana eta tarteke izaten dugu elkarren berri. Oso polita da hori.*

*Nere esperientziarik eza jasan zuten arren, lehenengo urteko nire ikasleek, azkarrak izan eta aurrera egin zuten zorionez. Geroztik, beraiek erakutsi zidaten nola irakatsi, nola heldu euren beharretara, eta oso gustora igaro nituen hurrengo urteak.*

*Nere oroitzapenak oso baikorrak dira, bai ikasle, bai guraso, eta Eskola inguruan ezagutu nituen pertsonen buruzkoak. Gogoan ditut elkarrekin egindako mahai-inguruko topaketak.*

*Ezinezko zait Ataun eta ataundarrak ahaztea eta urtean bizpahiru aldiz joaten nahiz bertara, eta pozik gogoratzen ditugu urte haiek eta orduko gertakizunak.*

*Bene-benetan eta bihotzez esan nezake, urte haietako bizipenak, nire bizitza luzeko onenentsuenetan kokatzen ditudala.*

**Begoña Alberdi Iriondo (Irakaslea)**



Ezkerretik eskuinera, goiko ilaran,  
Begoña Alberdi (andereñoa), Maria Jose Barandiaran, Joseba Andoni Kerejeta, Mikel Munduate eta Ana Isabel Eskisabel.

2. ilaran,  
Iñaki Osoro, Gillermo Galparsoro, Iñaki Galparsoro, Joseba Andoni Auzmendi, Jose Antonio Arruabarrena, Mikel Sukia eta Juan Maria Galparsoro.

3. ilaran,  
Iñake Barandiaran, Ruth Kaiero, Edurne Goikoetxea, Oihana Munduate, Agurtzane Barandiaran, Karmele Altuna eta Agurtzane Bikuña.

Lurrean eserita,  
Axier Oiarbide, Migel Anjel Aierbe, Jesus Maria Albisu, Koldo Aldabe, Martin Antonio Aramendi eta Martin Aldasoro.



## 5.- JOXEMIEL BARANDIARAN HERRI IKASTETXEA (1984-2009)

Garai berriek araudi berriak ekarri zituzten, besteak beste 1979ko Euskal Autonomia Estatutua, eta azken honen bidetik Eusko Jaurlaritzak hezkuntza konpetentziak bereganatu zituen arlo honetan garapen eta aldaketa ugari ekarriz. Hezkuntza Eusko Gobernuaren eskuetan gelditzean, eskola publikoetan irakasleak euskaldunak izatea bermatu zitekeela pentsatuz eta egoera politikoa ere aldatzen zihoala ikusirik. Eskola publikoari baiezkota eman zitzaion, herriko saloian guraso eta laguntzaileek egin zuten bileran Eskola Batzordearen proposamena onartuz.

Azken urteetan eskola eraikin berri bat egitearen premia garbi ikusten zen, Gabillenek ez baitzuten beharrezkoak ziren baldintzak betetzen. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ordezkariak ere premia honen berri eman zitzaion. Garai hartan udaleko eta eskolako ordezkarien artean bilera bat baino gehiago egin zen eskola berria non eraiki behar zen erabakitzeko, aukera desberdinak ikusten baitziren.

Azkenean 1979ko urriaren 5ean egindako batzarrean, Ataungo Udalak, 5.600 m<sup>2</sup> ko lur zorua erostea erabaki zuen, m<sup>2</sup> ko 500 pezeta ordainduz. Erosketak, 2.800.000 pezeta suposatuz, hau da, gaurko 16.828,34 euro eta baldintza hauek izendatu zituzten, Gotzaitegiak izendatutako lege-gizonarekin:

- *Diru kopuru horren ordainketa, ikastetxe berriaren eraikuntza bukatu eta 4 urtera egingo zen.*
- *Gotzaitegiak hiru urtetik behin izango zuen ahalmena, diru kopuru oso hori edo gelditu zitekeen zatiaren baldintzak berrikusteko.*
- *Gotzaitegiko arkitekto jaunaren gidaritzapean, Gabrielenea etxean egingo ziren bertze lanak ordainduz kitatuko zuen zorra Udalak.*

Sal-erosketa honen eskriturak, 1980ko otsailaren 12an izenpetu ziren. Alde batetik Karmelita kongregazio buruak, eta bestetik Inazio Maria Aierbe Apalategi alkate jaunak, Ataungo Udalararen izenean sinatu zuten. Segidan Udalak, ikastetxe berria eraiki zezan, lur-zoru hori Hezkuntzako Ordezkariari eskaini zion.

Lehendik eskola berria atzeko mendi inguruan egitea pentsatu zen, baina prestaketa lanari ekin ziotenean, zelai erdian eraikitzea egokiago iruditu zitzaion adituei.

Asmo haiek aurrera eramanez gero, kanpoko kirol-zelaia kendu beharko zen eta hori oraindik ere beharrezkoa zenez, beste irtenbide bat eman zitzaion arazo honi. Mugante zen Larratze baserriko lur-zoru zati bat erosi zuen Udalak, honela, eraikina hasierako kokapena alde batera utzi eta kirol-zelaia zegoenean gelditu zen.



2006/2007 ikasturtean Urretxuko erletegian.

Goiko ilaran: Maria Jesus Alvarez eta Maria Karmen Izueta andereñoak, Unai Oiarbide, Julen Herguedas.

2. ilaran: Maide Aldasoro, Manex Galparsoro, Jon Olano, Naiara Aierbe, Nora Tobar, Mikel Barandiaran, Maria Rejil, Ander Altuna, Iñigo Goikoetxea, Iraitz Zubizarreta, Aiertz Sukia, Jon Anza eta Aitor Almeida.

Makurtuta: Aiora Erauskin, Saioa Aranzasti, Maddalen Goikoetxea, Uxue Imaz, Umaima Quazqaz eta Maite Goikoetxea.

1982. urtean hasi ziren obrak. Pablo Borde Ondarra eta Fede Madariaga Lauzirika arkitektoek sinatutako proiektuaren arabera eta 49.955.400 pesetako aurrekontuarekin. 1984. urtea hasiarekin batera irakasle eta ikasleak Gabillenetik gaur egungo ikastetxera pasatu ziren. Joxemiel Barandiaranen omenez, eskolari bere izena jartzea erabaki zen. Urte bereko abenduaren 9an Eskolaren inaugurazioa izan zen. Bertan eskolako eta udal ordezkarietz gain, Joxemiel Barandiaran eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburu zen Joseba Arregik parte hartu zuten. Ikasleak Gabillenetik eskola berrira etortzearekin batera, Gabrielenea etxeak, Gabillenek, eskola

funtzioa betetzeari utzi eta beste eginkizun batzuk izatera pasatu zen, Fundazio edo Elizaren ardurapean.<sup>70</sup>

Betidanik guraso eta irakasleen nahia gure eskola, euskara eta euskal kulturarekin lotua egotea izan da. Ataun, herri euskalduna izanik, ez zeukan inongo zentzurik hori horrela ez izateko, eskola, bere inguruarekin lotua egon behar baita. Eskolako martxan parte hartzen zutenek hori garbi zutelako, historian zehar ahalegin handia egin zuten hori horrela izan zedin. Euskal Jaurlaritzak hezkuntzako kompetentziak bereganatu zituenean ere, eskolako organoek irakasle guztiak euskaldunak izan zitezten behin eta berriz aldarrikatu zuten.



1984an eraikitako Joxemiel Barandiaran herri eskola.

1984-85 ikasturtea amaitu arte San Gregorioko ikastolan haur hezkuntzako ikasleak ikasten ibili ziren. 1985-86 ikasturte hasieran San Gregorioko ikastola itxi eta ikasle denak Joxemiel Barandiaran Herri Ikastetxera etorri ziren.

Azken 25 urteetan arlo askotatik ikusita, irakaskuntza asko aldatu da. Hasiera haietan irakasle bakoitzak orduz kanpo orduak sartuz moldatu beharra izaten zuen ikasleentzat materiala prestatzeko, orduan liburu oso gutxi baitzegoen. Gainera horretarako nola halako multikopista erabili beharra izaten zen ikasleentzako kopiak ateratzeko. Gero pixkanaka-pixkanaka argitaletxe desberdinak sortzen joan ziren heinean, irakasleen lana errazten joan zen. Aukera desberdinak zituen kontsultatzeko eta baita materiala prestatzeko. Denborarekin kopiak ateratzeko makinak ere hobetzen joan ziren eta ondorioz, ikasleei ematen zitzaaien fitxak kalitate gehixeagokoak ziren. Gaur egunean asko hobetu da arlo horretan: kolorezko fotokopiagailuak esate baterako.

<sup>70</sup> Urte batzuk aurrerago, Ataungo Udalak Karmelita lekaimekoak Fundazioaren asmoak betetzen ote zituen zalantzak zituen eta bide batez ondasunen benetako jabea nor zen jakin nahian, 1984ko abuztuan, Ataungo Udalak lege-gizon eta gai hauek jakitun zen Iruñako Kepa Larunbe Biurrun jaunari iritzi zuzen eta legekoea eskatu zion.

Betiko kezka zegoen agirian : ***" Si ninguna de las tres ordenes aceptare o abandonase, se destinará la casa Gabriel enea, y los bienes de esta Fundación, a casa de Beneficencia y Hospital de Ataun".***

Larunbe jaunak, Fundazioaren asmoak, hasierako helburuak, sortu ziren aldaketak ikusi eta arazo adierazgarri hauek ikuspegi desberdinetatik aztertu ondoren, informe luze eta sakon bat eskaini zion Udalarari, bere ustez jabetza nori zegokion azalduz.

Laburki esanda, Larunbe jaunak agertzen zuenez, testamentu honen edukia oso eztabaidatsua eta auzi-gai edo litigiosoaren. (Gure lana irakaskuntzari dagokionez, ez gara sartuko gaiaren azterketan. Ikus udaletxeko artxiboan dagoen txostena). 1979ko urrian, Ikastetxe berria eraikitzeko erosi zen lur-zoruaren salmenta izenpetu zutenean, 2.800.000 pezetatara (16.828,34 euro) finkatu zen bere balioa, baina diru kopuru hori ordaindu gabe aurkitzen zenez, 1994ko ekainaren 29an, Karmeldar lekaimen buruak Gazteitzik Ataungo Udalarari zuzendutako eskutitzean, 7.280.000 pezeta (hau da 43.753,68 euro) ordaintzea eskatzen zion. Izan ere, 1979an izenpetutako hitzarmenean Gotzaitegiak zegoen zorra hiru urtean behin errebisatzeko ahalmena zuen.

Aurrez izendatutako baliotik orain eskatzen zen kopurura (2.800.000tik 7.800.000ra) 1979-09-30tik 1991-12-31rako epean, bitzita edo IPCaren igoerari zegokion Karmeldarrek ziotenez.

Azken urteetan Ikastolen Elkarteko proiektua da aurrera eramaten ari dena gure eskola. Bere metodologian ikasle eta gurasoen parte-hartzea bultzatzen den proiektua delako eta ikasgai desberdinak modu globalizatuan lantzen dituelako, bere momentuan eskolak horren aldeko apustua egin zuen. Haur Hezkuntzako proiektuak Urtxintxa izena duen bitartean, Lehen Hezkuntzakoak, Txanela du izena. Hezkuntza Sailak Ordizian Berritzeguneak martxan jarri zituenetik gure eskolako irakasleek bertako teknikari desberdinekin harremanak izan dituzte: mintegi eta hitzaldietan parte hartuz, bertako aholkularitza jasoz, e.a.

Bestalde hasiera batean tutorea bera zen talde jakin bati ikasgai desberdinak ematen zizkiona. Denbora pasa ahala hori aldatzen joan da, pixkanaka-pixkanaka hezkuntzak espezializazio bidea hartu baitu: irakasle jakin batek eskolako maila desberdinetan musika ematen du, beste batek gorputz hezkuntza eta beste batek ingelesa. Hortik aparte denborarekin beste espezialitate batzuk ere sortzen joan dira: laguntza taldea, teknologia berriak... Ondorioz azken urteetan Ataungo eskolako irakasle kopurua asko handitu da. Azkeneko urteetan Ataunen jaio diren ume kopurua nabarmen gora igo denez gero, horrek irakasle kopuruan ere bere eragina izan du. Ondoren, gure eskolako irakasleen bilakaera taula baten bidez agertuko dugu:

IRAKASLE KOPURUAK					
IKASTURTEA	KOPURUA	IKASTURTEA	KOPURUA	IKASTURTEA	KOPURUA
1983/1984	13	1992/1993	13	2001/2002	15
1984/1985	13	1993/1994	14	2002/2003	16
1985/1986	13	1994/1995	13	2003/2004	17
1986/1987	12	1995/1996	14	2004/2005	19
1987/1988	12	1996/1997	13	2005/2006	20
1988/1989	12	1997/1998	12	2006/2007	17
1989/1990	13	1998/1999	13	2007/2008	20
1990/1991	13	1999/2000	15	2008/2009	19
1991/1992	14	2000/2001	15	2009/2010	22


Aspaldidanik euskara irakasterakoan ahozko adierazpenari leku berezia eskaini zaio. Badira urteak ikasleak ikasturtero antzerkiak prestatzen aritzen zirena, gero guraso eta herritarrei eskaintzeko. Herri Antzokia egin zenetik Inauterietan, antzerkiaz gain bertsolaritza eta kantagintzaz osatutako jaialdia antolatzen da. Gure eskolak euskararen aldeko apustu garbia egin arren, beste hizkuntzak ere ez ditu inoiz ahaztu. Ikasleek geroz eta hizkuntza gehiago ikasi, orduan eta hobeto. Horregatik ikasleen heziketaren barruan aspaldidanik gaztelania eta ingelesaren ezagutzari garrantzi handia eman zaio. Eskoletan ingelesko espezializazioko irakaslerik ez zegoenean, urteetan guraso elkarteak pertsona bat kontratatu zuen ikastorduetan OHoko 6, 7 eta 8. mailako ikasleei ingelesko klaseak emateko. Kontratazioa 1979-80 ikasturtean martxan jarri zen eta 1986ko ekainera arte iraun zuen. 1986-87 ikasturteetik aurrera Hezkuntza Sailak izenda-

tutako irakasleak aritu dira lan horretan. Bestalde 1996-1997 ikasturteetik aurrera, Irakaskuntza-  
ren Erreforma legearen ondorioz, Lehen Hezkuntzako 6. mailara arteko ikasleak izan genitue-  
nean, 3. mailatik gorako ikasleak hasi ziren ikastorduetan ingeleseko klaseak jasotzen. Garai  
hartan ikasliburuak eta lan koadernoak erabiltzen ziren. 1999-2000 ikasturtean, Eusko Jaurlari-  
tzako Hezkuntza Sailaren INEBI, esperientzia eleanitzaren barruan, "Ingelesaren sarrera goiz-  
tiarra" programa martxan jarri zen. Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urteko mailetan hasi zen pro-  
grama hau lantzen. 2001-2002 ikasturtean berriz, Lehen Hezkuntzako Oinarrizko Diseinu  
Curricularra oinarritzat hartuta 1. mailan ezarri zen programa hori eta ikasle hauek 2006-2007  
ikasturtean 6. maila egin arte. Urte horretan, Haur Hezkuntzako 2. zikloan eta Lehen Hezkuntza  
osoan INEBI programa ezarrita geratu zen. Gaur egun horrela jarraitzen dugu. Bestalde ikas-  
turte honetarako Hezkuntza Sailak 6. mailako ikasleentzako astebeteko ingeleseko barnetegiak  
antolatzeko asmoaren berri eman du, oraindik zehaztasun askorik ez izan arren. Horrelako ikas-  
taroak positiboak izango dira arlo honetan trebatzeko.



2000. urtean, Santa Ageda bezperan, herri eskolako haurrak.

Betidanik eskolaren martxan gurasoen parte-hartzea garrantzitsua izan da. Garai batean esko-  
lan dirua urri zegoenean, dirua ateratzeko hainbat eta hainbat ekintza egin beharra izaten zen.  
Burua nekatu eta elkarrekin beti aurrera! Makina bat ekintza egiten ziren helburu horrekin: ton-  
bola muntatu, zozketak egin, talo, gaztaina eta mondeju janak antolatu, Eguberrietan jostailu  
eta liburuen azoka...Ikastorduetan ere ikasleak taldeka jarrita, gurasoak eskulan desberdinak  
erakustez arduratzen ziren. Horri esker ikasleek talde txikitik lan egiten eta tailerretan eskulan  
desberdinetan trebatzen ikasten zuten. Beti jendea prest zegoen egin behar zena egiteko. Den-  
borarekin, beste gauza askotan gertatu den bezala, egoera berrietara denok egokitzen joan  
gara eta gurasoak ere bai. Orain beste era batera ikusten ditugu gauzak. Hala ere gaur egu-  
nean ere eskolako eginkizunetan gurasoen parte-hartzea oso garrantzitsua da.



Eguzki Berri, eskolako aldizkariko bi aleren azalak.

Urte batetik bestera ikasleen kopuruetan ere gorabehera asko izan dira. Hasiera haietan gure eskolan ikasle dezente izaten ziren gelako, gero ordea urte batzuetan ikasleen kopurua nabarmen jaisten joan zen: ikasturte batzuetan zenbait gelatan 4-8 bitarteko kopuruak behin baino gehiagotan ezagutu genituen. Horrek ondorio bezala irakasle kopurua ere jaitea ekarri zuen. 1995-96 ikasturtean lehendabiziko aldiz gure eskolak 2 urteko ikasleak hartu zituen. Ikasle kopurua jaisten ari zenean, ondo etorri zen eskolarentzat 2 urteko haurrak ere hartzea. Bestalde ikasturtez ikasturte ikasleen kopuruak jaisten jarraitzen zuenean, Lazkaoko San Prudentzioko ikasleak Atauna etorri ziren. 1998-99 ikasturtean eskolan 85 ikasle zenbiltzan, baina hurrengo ikasturtean esandako arrazoiarengatik kopuru hori 104ra igo zen. Ondorioz Ataungo umeekin gela bat mantentzea ezinezkoa zenean, lehen hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloetan Lazkaokoekin elkartzuz hori posible izan zen. Azken ikasturteetan ikasleen kopuruaren gorakada nabarmena izanda. Datu hauek ikustea nahikoa da horretaz konturatzeko: 2005-06an 111 ikasle; 2006-07an 121; 2007-2008an 138; 2008-09an 154 eta azkenik hasi berri dugun ikasturtean 178 ikasle. Esandakoa kontuan izanda, gaur egunean eskola txikiegia gertatzen ari denez gero, jadanik Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eskola handitzeko obrak egitea onartu du eta badirudi aurtengo urtea amaitzerako obrak hasiko direla. Asmoa, atzeko aldean dagoen terraza bota eta bertan 8 gela berri eraikitzea da. Ondoren, azkeneko 25 urteetan ikasleen kopuruaren bilakaera nola joan den ikusteko taula batean azalduko dugu.

JOXEMIEL BARANDIARAN HERRI IKASTETXKO IKASLEEN BILAKAERA													
IKASTURTEA	2 URTE	3 URTE	4 URTE	5 URTE	1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA	5. MAILA	6. MAILA	7. MAILA	8. MAILA	GUZTIRA
1983-84		18	20	20	26	27	25	24	26	29	23	23	261
1984-85		12	18	24	21	30	25	23	24	26	28	24	255
1985-86		24	11	16	24	22	30	23	23	28	22	25	248
1986-87		12	23	10	16	22	20	30	22	25	28	22	230
1987-88		12	12	23	10	15	21	19	29	21	25	29	216
1988-89		13	12	12	23	11	15	21	21	26	21	25	200
1989-90		15	13	12	12	23	13	15	20	23	26	21	193
1990-91		11	16	13	12	13	21	13	16	20	22	26	183
1991-92		9	11	16	11	12	12	21	14	15	19	24	164
1992-93		5	9	10	15	11	12	12	20	15	14	20	143
1993-94		13	5	9	9	16	11	12	11	20	13	14	133
1994-95		3	13	5	8	9	14	10	12	11	19	14	118
1995-96	9	9	4	13	5	8	9	15	10	13	10	19	124
1996-97	9	10	9	4	13	4	8	10	14	10			91
1997-98	4	10	10	9	4	13	4	8	11	13			86
1998-99	9	6	10	11	9	6	11	4	8	11			85
1999-00	10	9	6	10	11	9	11	15	8	15			104
2000-01	10	9	11	6	10	11	9	10	15	10			101
2001-02	13	10	9	11	6	10	11	9	10	15			104
2002-03	10	13	11	9	11	6	11	11	9	10			101
2003-04	15	10	14	11	9	11	6	12	10	10			108
2004-05	6	16	11	14	11	10	11	6	12	10			107
2005-06	10	7	16	11	14	12	10	11	7	13			111
2006-07	27	9	7	18	10	14	12	10	9	7			121
2007-08	24	27	9	7	16	10	14	12	10	9			138
2008-09	23	24	27	9	7	17	10	14	13	10			154
2009-10	33	24	24	27	9	8	16	10	14	13			178

Irakaskuntzaren Erreforma Legearen (LOGSE) aplikazioak herri txikietan zer ondorio ekar zezakeen aztertzeko, 1991etik aurrera Goierriko Herri Eskolen artean Zaldibiako Eskolan makina bat bilera egin ziren. 1992ko otsailean Herri-Eskolen batzordeak hala erabakita, Siadeco Ikerketa Elkarteari Herri-Eskolen egoerari eta etorkizunari buruz ikerketa egin zezan eskatu zitzaion. Lan horren ondorioz garrantzitsuena zera izan zen: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa, 12-14 urte hain zuzen, Herri-Eskolak kokaturik zeuden udalerrietan mantentzea. Baina Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak egin zuen Goierriko Eskola Mapak ahalegin hori ezinezkoa bihurtu zuen. Ondorioz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa ikasleek herri txikietan egin beharrean, Goierriko beste ikastetxeetan egitera behartu zuen. 1996-97 ikasturtean OHoko 8. mailan zeuden ikasleek (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko bigarren mailakoak) nahitaez herritik kanpora joan beharra izan zuten. Hurrengo ikasturtetik aurrera eta gaur egun arte, gure eskolako ikasleak Bigarren Hezkuntza egitera Lazkaoko San Benito ikastola edo Beasaingo Loinazpe ikastetxera joaten dira. Beraz aldaketa hori eman zenetik aurrera Joxemiel Barandiaran Herri Ikastetxea, Haur eta Lehen Hezkuntzako zentroa da. Gure eskolan 8. mailaraino ematen zen garai haietan, Eskola ibiltariak programari esker, Estatuko beste erkide batzuetako eskolekin trukaketak egin genituen. Aldi berean 8. mailakoekin ikasturte amaieran Kataluniako aterpetxera egin genituen bidaiak ere ezin ahaztu.

1999-2000 ikasturtean Lazkaoko San Prudentzioko 22 ikasle Ataungo eskolara etorri ziren euren ikasketak egitera. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eskola ixtea erabaki zuenean, bertako gurasoek euren seme-alabak gure eskolara bidaltzeko apustua egin zuten. Etorri ziren ikasleak Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren ziklokoak ziren. Hasiera batean gazteenak ziren ikasleak, 2002-2003. ikasturtean, 6. maila bukatu zutenean, Lazkaotik Atauna etortzeko prozesua amaitu zen. Fusio honek iraun zuen 4 urteetan, Lazkaoko ikasleek egunero bi joan-etorri autobusez egiten zituzten. Bestalde fusioko prozesua eta baita Lazkaoko ikasleen integrazioa errazteko asmoz, garai hartan San Prudentzioko eskolan lan egiten zuten bi irakasle ere Atauna etorri ziren irakasle moduan.

Teknologia berriak eskoletan sartzen joan diren heinean, gure eskola ere arlo horretan pauso garrantzitsuak ematen joan da. Bere momentuan Hezkuntza Sailak arlo honen aldeko apustua egin zuenean, gure eskolan informatikako gela antolatu zen. Hezkuntza Sailaren laguntza ekonomikoaz gain, ikastetxeko Guraso Elkartek ere bere aurrekontuetan beti izan du partida bat arlo hau indartzeko. Guraso, irakasle eta ikasle ohiak gogoan izango dute idazteko makina zaharrak eta kalko paperak alde batera utzi eta lehenengo ordenadoreak ikastetxean jarri ziren urte hura: idatzitakoak borratu, kopiak atera, tarea mekanikoak askoz errazago egin... Disko gogorrik gabekoak ziren eta 5 pulgadako 2 disketera erabiltzen zituzten. Horietako batean MS-DOSa sartzen zen eta bestean erabili nahi zen programa. Windows-en bertsio ezberdinekin batera ordenagailua geroz eta protagonismo handiagoa hartzen joan zen, hezkuntzarako programak ere zihoazen heinean. Multimedia ezagarriak: eskanerra eta irudien trataera pixkanaka-pixkanaka erabiltzen hasi ziren. Eta urte batzuen barruan Internet etorri zen: mundu osoko eza-gutzaren berri ematen zuen aukera. Azken ikasturteetan horrez gain Hezkuntza Saila teknologia berrien erabilpena bultzatzeko ikastetxeak material desberdinez hornitzen ari da: azpiegiturak, irakasleen kompetentziak... Gaur eguneko gela guztietan ditugu ordenadoreak, internetera sarrrerak, sareko inprimagailuak, eskanerrak, proiektoreak eta pantailak, bideo kamera digitalak. Informatikako gela daukagunetik Eguzki Berri aldizkaria digitalizatuta dago eta azken urte hauetan ikastetxean bertan kolorez bertan inprimatzen da. Gaur egun, Lehen Hezkuntzako eta Haur

Hezkuntzako ikasleek gaiak lantzeko dituzten CDak erabiltzeaz gain interneten bidez beste lan asko egiten dute: informazioa lortu, ariketak on line egin... Geroko hezkuntza geroz eta gehiago teknologia berriekin lotua egongo denez gero, umeak txikitatik horretan prestatzen joateak garrantzi handia dauka. Hezkuntzak jarrita dituen aplikazioak erabiltzen dira kudeaketa ekonomiko programan, eskolako datuetan: irakasle eta ikasleenak, orduategiak, egutegiak, hutsegite faltak, estatistika.



"Alleko" mendira ibilaldia, guraso eta haurrak.

Gorputza Hezkuntzaren arloan ere gaur egunean ez dago hasiera hartako egoerarik. Lehen urteetan eskolako gela bat erabiltzen zen gimnasia egiteko. Leku txikia eta ez hain itxurosoa, baina orduan hura zen zegoena! Gero 1991ean eskola ondoan kiroldedia egin zenean, soinetarako askoz ere leku egokiagoa bihurtu zen bera. Gaur egunean bertan aritzen dira eskolako neska-mutilak gimnasia egiten. Horrez aparte, eskolako lehen solairuan haur hezkuntzako ikasleentzat psikomotrizitateko gela bat ere badago. Eskolako txikienei begira, gela hori oso baliagarria gertatzen da. Ikastorduetan egiten den igeriketaren sustapena ere aipatu gabe ezin utzi. Urteak daramatza gure eskolak igeriketa arloa landuz. Lehen urteetan Ordiziako igerilekura joaten baginen ere, azkenekoetan Lazkaoko igerilekura joanez gabiltza. Foru Aldundiaren kanpainarekin bat eginez, lehen hezkuntzako lehen lau mailetako ikasleak dira igeriketako sustapenean parte hartzen dutenak. Azken ikasturteetan eskola orduetan xakeko ikastaroak ere eskaintzen dira. Lehen Hezkuntzako 3, 4, 5 eta 6. mailakoek astean hiru ordu laurdeneko saioa edukitzen dute xakean lantzeko.



Eskolarteko bertso txapelketan: Irati Goikoetxea, Aitzol Barandiaran, Oier Zurutuza, Iban Urdangarin eta Haitz Aierbe kantari.

Musikak ere geroz eta garrantzi handiagoa hartzen ari da gure eskolan eta herrian. Hasiera batean ikastorduetan bakarrik eskolako ikasle zaharrenei musika irakasten bazitzairen ere, azken urteetan haur txikienek ere badute aukera arlo hau lantzeko. Bestalde urteak daramazkigu ohitura zaharrek kantaldiak eta ospakizunak ikasleekin eginez: Santa Ageda koplak, Gabonetako kantaldiak, San Sebastianen martxa...



Ezkerretik eskuinera. Atzeko ilaran: Elixabet Galparsoro, Naiara Munduate, Irune Gorostizu eta Ainhoa Galparsoro. Aurrean: Nagore Urdangarin, ezezaguna, Mikel Irastorza, Eusko Urrestarazu eta Harri Munduate.

Gure eskolaren bilakaeran jangela eta garraioa oso elementu garrantzitsuak izan dira. Ataun, hain herri luzea eta sakabanatua izateak, ez du beste aukerarik uzten. Eskola berria eraiki aurretik ere, Gabrielenean bazen ikasleentzat garraioa eta baita jangela zerbitzua ere. Gaur egunean ere berdin jarraitzen du.

Ikasturtean zehar egiten diren irteerek ere badute garrantzirik ikasleen heziketan. Horretaz jabeturik, ikastorduetan betidanik eduki dute lekua ikasgeletan landutako ikasgaien osagarri moduan.

Momentu bakoitzean ikasleen heziketarako baliagarriak diren proiektu desberdinetan sartua egon da eta dago gure eskola. Azken ikasturteetan eskola agenda, elkarbizitza eta Osasun-kume dira lantzen ari garen proiektuak.

Lanean dabiltzan senar-emazteei lagundu nahian, 2003ko abenduan Joxemiel Barandiaran Herri Ikastetxeko beheko solairuko gela batean 0-2 haurrentzat Haurreskola ireki zen. Hasiera 2 hezitzaile eta 9 hurrekin eman zitzaion. Pixkanaka-pixkanaka kopurua hori handitzen joan zen. Joxemiel Barandiaran Herri Ikastetxeak geroz eta gela gehiagoren premia zuelako eta baita Haurreskolan geroz eta ume gehiago zeudelako, 2006ko irailetik aurrera Haurreskola Gabille-neko beheko solairura pasatu zen. Horretarako bertan obrak egin beharra izan ziren eta besteak beste haurrentzat bi gela prestatu ziren: bata 0-1 umeentzako eta bestea 1-2rentzako.

Azken 25 urte hauetan aurrera eraman diren hainbat proiektu eta ekintzen artean aipagarriak eta nabarmen berezia merezi dutenak badira tartean. Eskolaren bilakaeran ezin dira inolaz ere ahaztu, gure eskolako hezkuntzaren proiektuaren barnean baitaude: Eguzki Berri aldizkaria, negutegia, Otsoa Irratia, eskola barruko nahiz kanpoko kirolak, bertsolaritza eta lehiaketak eta skeepak.

Eguzki Berri aldizkariari dagokionez, 1980/81 ikasturteko lehen hiruhilekoan lehen alea argitaratu zen. Azken 29 urte hauetan ez du hutsik egin eta ikasturtero hiru ale argitaratu dira: Egu-berri, Aste Santu eta udako oporren aurretik hain zuzen. Liburu hau idazten ari garenean, jadanik 84 ale argitaratu dira.

1985/86 ikasturtean jarri zen martxan Otsoa Irratia. Hau ere astero emititzen aritu izan da. Urte guzti hauetan ikasleen irratsaioak ez dira beti ordu berean emititu. Azkeneko urteetan ostirale-tan goizeko 10etatik 11etara emititzen ari da.

Kirolak ere leku berezia izan du gure eskolaren bilakaeran. Urte asko dira Guraso Elkartek Pako Urrestarazuri kontratua egin ziola eskola kirolaren koordinazioa aurrera eramateko. Urtero-urtero gure eskolako neska-mutil gehienek eskola kirolatan parte hartzen dute.

Bertsolaritza gaia ere aipatu beharrekoa da. Eskolarteko bertsolari txapelketetan gure eskolako ikasle asko izan dira, bai bat-bateko saioetan eta baita bertso paper lehiaketan ere parte hartu dutenak.

## AURRERA BEGIRA ESKOLAREN ERRONKAK

Aurrerantzean hezkuntzan metodologia, eduki, baliabide... aldetik ere aldaketa eta berrikuntza handiak ikusteko gaude. Horren ondorio bezala, maisu-maistrek etorriko diren eraldaketei aurre egin beharko diete. Horregatik maila desberdinetako hezitzaileen prestaketek lehentasuna edukiko dute. Helburu horren barruan txertatu behar da “Kalitatea Hezkuntzan” proiektua. Datozen urteetan ikastetxearen planifikazio prozesu orokorra zehazten eta berritzen joan beharko dugu: heziketa proiektua, irakasteko eta ikasteko metodologia, emaitzak neurtzeko eta kontrolatzeko atala eta abar.

Teknologia berrien aroan gaudenean, eskola ere berritzen eta egokitzen joan beharra dauka derigorrez. Gaur egun, gure gizartean ematen ari den aldaketarik garrantzitsuena, dudarik gabe, Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) munduarena da eta horren aurrean, hezkuntza sistemak ezin du hortik kanpo egon. IKT-en erabilera egokiak hainbat abantaila eta onura ekar ditzake hezkuntzara, baina horretarako azpiegituren, irakasleen eta prozesuen prestakuntza behar-beharrezkoa da. Ezin du gehiegi atzera begira gelditu. Beste arloetan bezala, hezkuntzan ere aldaketak hain azkar ematen ari den unean, bai guraso, bai irakasle eta baita ikasleek ere teknologia berrietara etengabe prestatzen joan behar dute. Azken urteetan teknologia berriek hezkuntza mailan izan duten bilakaera ikusita, garbi dago aurrera begira euren erabilpena eskolako komunitatean parte hartzen dutenentzat ez dela informazioa jasotzera eta erabiltzera mugatuko, hortik aparte digitalaren arloan posibilitateak ikaragarri irekiko baitira. Adibidez, eskola desberdinetako irakasle eta ikasleen arteko komunikazioa eguneroko gauza izango da.

Gaur egun guztiok dakigu zer nolako garrantzia duen hizkuntzak jakiteak: ikasketetarako, lanerako, aisialdirako, bidaietarako, informazioa lortzeko... Geroz eta azkarrago hasten dira ikasleak ikastorduetan gaztelania eta ingelesa lantzen. Aurrera begira, beste arloetan gertatuko den bezala, hizkuntza arloan ere pentsatzen ez ditugun pausoak emango dira. Adibidez, oso gaztetatik ikasleak hizkuntzak ikastera atzerrira joaten ikusiko ditugu edo atzerriko eskoletako ikasleekin harreman zuzenak izango ditugu.

Beste aldetik gure ikasleen heziketarako hain baliagarriak diren Eguzki Berri aldizkaria eta Otso irratiak aurrerantzean ere jarrai dezatela gaur egun bezala. Hizkuntza aktibo baten aldeko apustuan elementu garrantzitsuak direnez gero, oraindik badaukate zer eskainirik bai eskolari eta baita herriari ere.

Ezin ahaztu eskolako ordutegitik kanpo lantzen diren beste arlo batzuk ere: ingelesa, kirolak, musika, dantza, bertsolaritza... Hauek ere ikasleen heziketarako orain arte atal garrantzitsuak izan dira eta aurrera begira ere egokia izango litzateke horrela jarraitzea.

Orain arte bezala, aurrerantzean ere eskolako komunitatea osatzen dugun partaide guztien armoniak garrantzi handia izango du. Guraso, irakasle eta ikasleen artean, bakoitzak bere lekutik, baina denok batera lana eginez gure eskola aurrera ateratzen saiatu behar dugu. Kontuan izan behar dugu gaur egunean ikasle diren hauek etorkizuneko gizarterako prestatu behar ditugula.

## 6.- DOKUMENTUAK<sup>71</sup> ETA TAULAK:

**Lehen Hezkuntzako Zerbitzu Nazionaleko Buruzagitzak 1938ko martxoaren 5ean, Espainiako lehen hezkuntzako Eskola Nazional, Udal-eskola, eta Pribatuetako Irakasleei zuzendutako zirkularra:**

Ministerio de Educación Nacional. Jefatura del Servicio Nacional de Primera Enseñanza. Circular a la Inspección de Primera Enseñanza y Maestros Nacionales, Municipales, y Privados de la España Nacional.

La gloriosa, gesta del pueblo español, a las órdenes de nuestro invicto Caudillo, ha hecho posible que España recobre su manera de ser, lográndolo a fuerza de sacrificios dolorosos de sus hijos. En contribución gloriosa; con derroche espléndido de ofrendas y heroísmos sin tacha, ni medida, todos aportan cuanto tienen; es la voluntad firme de un pueblo con siglos de historia genial y creadora que no se resigna a desaparecer.

La Escuela, forjadora de las futuras generaciones, fervorosamente fundida con este épico movimiento de resurrección patriótica, ha de marcar su rumbo categórico hacia las glorias futuras, preparando a nuestra infancia por derroteros nacionales. Nuestra hermosísima Historia, nuestra tradición excelsa, proyectadas en lo futuro, han de formar la fina urdimbre del ambiente escolar, cobijando amorosamente es espíritu de los niños españoles.

Al Maestro se le encomienda esta obra transcendental. España le entrega sus hijos para formarlos en el amor a Dios y su Patria. De ahí la gloria y la estrecha responsabilidad del Magisterio Nacional.

Con el fin de dar orientación fija y uniforme a todos los Maestros de España, la Jefatura del Servicio Nacional de Primera Enseñanza, por mandato expreso y recogiendo las indicaciones del Excmo. Sr. Ministro de Educación Nacional, publica, para su más exacto cumplimiento, las siguientes instrucciones:

---

<sup>71</sup> Eranskinean azaltzen diren dokumentu guztiak Ataungo Udal Artxibokoak dira. AUA: 520-03.

### Educación religiosa

La Junta de Defensa Nacional restableció la enseñanza religiosa en las escuelas nacionales, por su Orden número 186. Ansiosamente pedía esta reforma la España Nacional. Imperiosamente lo exigían las necesidades educativas de la infancia española.

Este establecimiento no quiere decir tan sólo que el Maestro se limite a dedicar una ó varias sesiones semanales a la enseñanza del Catecismo e Historia Sagrada. Esto es indispensable; pero de mucha mayor necesidad ha de ser lograr que el ambiente escolar esté en su totalidad influido y dirigido por la doctrina del Crucificado.

El restablecimiento del Crucifijo en las Escuelas, conta solemnidad celebrado en todos los pueblos de las regiones reconquistadas por nuestro glorioso Ejército, no significa tan sólo que a la España laica del Régimen Soviético sustituya nominalmente al catolicismo de la Escuela nacional. Es preciso que en las lecturas comentadas, en la enseñanza de las ciencias, de la Historia, de la Geografía, se aproveche cualquier tema para deducir consecuencias morales y religiosas. La enseñanza de la Religión tiene que formar niños cristianos, con ideas claras, con normas concretas para el presente, y para sus futuras actuaciones ciudadanas. No ha de dirigirse tan sólo al sentimiento, sino también al carácter y a la voluntad. Consecuencia de este ambiente religioso que ha de envolver la educación y la escuela, ha de ser la asistencia obligatoria, en corporación, de todos los niños y Maestros de las Escuelas nacionales, en los días de precepto, a la misa parroquial, fijada a hora conveniente de acuerdo con la autoridad eclesias-tica. El Santo Evangelio será leído con frecuencia e ineludiblemente, todos los sabados, explicando la Dominica del día siguiente. La doctrina social de la Iglesia, contenida en las Encíclicas Rerum Novarum y Quadragésimo Anno, ha de servir para inculcar en los niños la idea del amor y confraternidad social, hasta hacer desaparecer el ciego odio materialista, disolvente de toda civilización y cultura.

### Educación patriótica

